

•eus Jakⁱⁿ 230

herria kultura hizkuntza urtarrila-otsaila
2019

Jose Ramon Etxebarriari elkarrizketa

MIREN RUBIO ITURRIA

GAIAK

Neurozientzien diskurtso eragina
hezkontza-kulturan: liluratik harago

JEXUX LARRAÑAGA ARRIOLA

EGUNEN GURPILEAN

ITZIAR UGARTE · JAIME ALTUNA
ALBA GARMENDIA

Jakin^{•eus}**230**
herria kultura hizkuntza urtarrila-otsaila
2019



JAKINEko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

LEHENDAKARIA

Joan Mari Torrealdai

OHOREZKO KIDEAK

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

ZUZENDARIA

Lorea Agirre

ERREDAKZIO BURUA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Lorea Agirre, Haizea Barcenilla, Harkaitz Cano, Xabier Eizagirre,
Idurre Eskisabel, Patxi Juaristi, Joanmari Larrarte, Maialen Lujanbio,
Imanol Murua, Andoni Olariaga, Olatz Osa, Gexan Sors,
Joan Mari Torrealdai, Eguzki Urteaga

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Martin Ugalde Kultur Parkea / Gudarien etorbidea, 29 / 20140 Andoain
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia

*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza
Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*



*Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*

Jabegoa: Jakin Fundazioa. Donostia. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: O211/495X
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

SUMMARY

5

ZUZENDARIAREN HITZAK

7

HISTORIA BIZIA

11 Jose Ramon Etxebarriari elkarrizketa Miren Rubio Iturria

Jose Ramon Etxebarria irakasle, fisikari eta euskaltzalearen bizitzan eta jardunean sakontzeko aukera eskaintzen digu elkarrizketak: haurtzaroa Gernikan eta Eibarren; ingeniari-tza ikasketak Bilbon; soldaduska Cadizen eta Gasteizen; herri mugimenduekin lehen harremanak; lehen idazkuntza eta alfabetizazio prestakuntza Anaitasuna aldizkarian; fisika irakasle Zientzia Fakultatean; euskarazko apunte eta testuliburuen sortze lanak Saioka egitasmoan eta UEUn, besteak beste; militantzia politikoa eta Guardia Zibilaren torturak La Salven; zentral nuklearren aurkako borroka; Xabier Amurizaren bertso ikasle; Gernikan Espainiako erregeari Eusko gudariak abesten; lan politikoa Herri Batasunan; Euskal Herriko Unibertsitatean irakaslego propioaren figura sortzeko borroka luzea...

GAIAK

73 Neurozientzien diskurtso eragina hezakuntza-kulturan: liluratik harago Jexux Larrañaga Arriola

Berrikuspen honek diskurtso zientifistaren norabide bakarreko egien ustezko neutraltasunaz dihardu. 'Neuro' aurrizkiaren inflazio kulturala aztertzen du, bere eragina hezkuntza-kulturan kokatuz.

EGUNEN GURPILEAN

93 Kultura
Itziar Ugarte

99 Soziolinguistika
Jaime Altuna

105 Glokalia
Alba Garmendia

KONTRAZALA Unai Iturriaga

Interview with Jose Ramon Etxebarria

The journalist Miren Rubio Iturria conducts a wide-ranging interview with the teacher, physician and Basque activist Jose Ramon Etxebarria, in a new issue of the Living History series. The interview takes an extensive look back at Etxebarria's life: his childhood in Gernika and Eibar; his university studies in Engineering in Bilbao; military service in Cadiz and Vitoria; his initial contacts with popular movements; his literacy and initial training as a writer in the Basque language in the magazine Anaitasuna; lecturer in Physics at the Faculty of Science; creation of notes and textbooks in the Basque language for the Saioka project and at the UEU (Basque Summer University); his political activism and the torture he suffered at the hands of the Civil Guard at the La Salve barracks; the fight against nuclear power stations; his introduction to the world of Basque verse improvisation as a student of Xabier Amuriza; singing Eusko gudariak before the King of Spain in Gernika; his political work in Herri Batasuna; his long, bold struggle in favour of the role of teaching staff attached to the University of the Basque Country... **Miren Rubio Iturria**

The discursive influence of neuroscience in educational culture

Jexux Larrañaga Arriola, Doctor of Social and Cultural Anthropology, reflects on the alleged neutrality of one-directional truths in scientific discourse. He analyses the cultural conceit behind the prefix 'neuro', drawing attention to its influence on the field of educational culture. **Jexux Larrañaga Arriola**

News today

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, sociolinguistic and globalization matters. This section draws on various specialists: Itziar Ugarte, Jaime Altuna and Alba Garmendia.

Various authors

Ohiko dugunez, *Historia bizia* sailak zabaltzen du JAKIN aldizkariaren urteko lehen zenbakia. Oraingo honetan, zientziaren, euskaltzaletasunaren, euskal unibertsitatearen eta politikaren eremuetan lanean eta borrokan luze jardun duen izen propio bati egin diogu lekua: Jose Ramon Etxebarriari. Miren Rubio Iturria kazetariak egin dion elkarrizketa luzean, Etxebarria bere bizitza harilkatuz doa, azken berrogeita hamar urteetan Euskal Herrian izan diren hainbat egitasmo, lorpen eta gatazka lehen pertsona kontatzearekin batera. Atal honetako elkarrizketatu guztiekin gertatu ohi den legez, Euskal Herriaren historia hurbila kontatzen du protagonistak bere historia propioa kontatu ahala. Horrela, Etxebarriaren bizitzako argazki asko geure memoriaren parte dira dagoeneko, eta, gainera, gaur arte iritsi zaizkigu: lehen argazkian, Etxebarria fisika euskaraz irakasten ikusten dugu Lan Kide Aurrezki Kutxaren egutegi historikoan, Adolfo Suárezek, Franco osteko lehen presidentek, euskararen kontra supremazismo argiz esandakoak gezurtatuz; bigarren argazki batean, «Nuklearra? Ez, eskerrik asko» txapa bularraldean jarrita ageri zaigu; hirugarrenean, Espainiako Juan Carlos I.a erregea Gernikako juntetxera etorri zenekoan, *Eusko gudariak* kantatzen; laugarrenean, UEUko ikastaroren batean hitz eta pitz ikusten dugu; bosgarrenean, EHUKo Leioako sarreran irakasle propioaren aldeko gatazka luzean, pankartari eusten ageri da; seigarrenean, hogeitau urte iraun zuen gatazka luze horren ondotik, berriro ikasgelan ikus dezakegu. Baditu argazki ezagun gehiago ere Etxebarriak, eta baditu argazki gabeko uinak ere, gordean pasatu direnak baina funtsezko izan direnak, hala nola eskola materiala euskaraz sortzen emandako ordu luze ikusezin horienak. Dena borroka bat da, dena borroka bera da. Dena da prozesu bat, dio elkarrizketaren azken lerroetan Etxebarriak, «eta inportanteena segitzea eta egitea» dela. Zerbaitetan nabarmentzen bada, koherentziari jarraitzen eta egin egiten nabarmendu da fisikari gernikarra. Argazkiekin ez, marrazkien marrazkiarekin osatu du Unai Iturriagak Etxebarriaren gaineko kontrazala.

Jexux Larrañaga Arriola antropologian doktoreak idatzitako artikularekin osatu dugu zenbakia. Larrañaga Arriolak neurozientzien

goraldiaren atzean dagoena aztertu du: neurozientziaren argitan, garunaren funtzionamenduak gizakiaren funtzionamendua azal dezakeela sinetsarazten digun hezkuntza eta kultura sistema elikatzen da eta gizartearen beraren testuinguru soziohistorikoaren eraginak erabat indargabetzen dira, horrekin eredu neoliberalaren aldeko diskurtsoa indartuz eta hedatuz gure artean.

Bukatzeko, *Egunen gurpilean* sailean, idazle berri bat dakarkigu: Alba Garmendia filosofian doktoregaia. Zenbaki honetatik aurrera Glokalia atala osatuko du, eta Jaime Altunak Soziolinguistika atalean eta Itziar Ugartek Kultura eremuan egin legez, gaurkotasunari errepassoa emango dio.

HISTORIA BIZIA

1 1 Jose Ramon Etxebarriari
elkarrizketa
Miren Rubio Iturria

Jose Ramon Etxebarriari elkarrizketa

Miren Rubio Iturria

Kazetaria

Leioako EHUko atarian pankartari eusten zegoen irakasle kanporatua da batzuentzat. Adolfo Suárez Espainiako presidenteari euskaraz ere fisika nuklearra irakats zitekeela erantzun zion fisikaria da besteentzat. Espainiako erregeari *Eusko gudariak* abesten gogoratzen dute beste hainbestek. Eta, bertsozale batzuen haserretarako, bada praka motzetan bertsotan gogoratzen duenik ere.

Izengoititzat duen txepetxak nola, adar batetik bestera egin baitu salto Jose Ramon Etxebarriak (Gernika, 1948). Euskalgintzaren «olatuak» eramanda, dioenez. Norbere adin eta bizipenen arabera irudikatuko du irakurleak: zentral nuklearraren kontrako hitzaldietan, euskal unibertsitatearen aldeko protestetan, UEUko ikastaroetan, ikasmateriala sortzeko bileretan, *Anaitasuna*-ko dibulgazio lanetan, HB koalizioaren hauteskunde zerrendatan... Hegaldi luzekoa da Etxebarria.

Gernika sorterrian ikasi zuen zer zen garaituaren mina. Bonbardaketa zuzenean bizi eta sufritu zuen familian hazia, umetatik jaso zuen zapalduaren kontzientzia. Aitak Astra enpresan edukitako arazoengatik egin zuten aldaira gero Eibarrera, zazpi urte zituenean. Sei neba-arreben artean hirugarrena da, mutil bakarra. Besteen ideiekiko errespetuaren eta kolektibotasunaren garrantziaz jabetu zen Eibarren, Gernikako beldurretik aske.

Bilborako aldaketa gogorra bezain aberatsa egin zitzaion. Ingeniaritza ikasketak hautatu eta elitearen unibertsitate frankistan ikusi zuen bere burua. Kosta zitzaion moldatzea. Euskararekiko kontzientzia giro hartan piztu zitzaion, ordea. Elektroi hitza euskaraz nola esaten zen ezin asmatu aritzearen lotsaz erabaki zuen bere kabuz alfabetatzea. *Anaitasuna* aldizkaria goitik behera irakurtzeari ekin zion. Eta, karrera bukatuta, etxean ikasitakoa hasi zen besteei irakasten, Santutxuko alfabetatze gau eskoletan.

Irakasle izateko bokazioa izan baitu gaztetatik Etxebarriak. Unibertsitatean nahiz ikastolan aritu da irakasle, baina baita bertso eskoletan ere. Xabier Amuriza izan zuen maisu, eta fisikako gaitegia koplatare errenditzeko adina ikasi zuen, unibertsitateko ikasleen harridurarako. *Anaitasuna*-n hainbat dibulgazio artikulua argitaratu zituen, eta etengabe jardun du ikasmateriala sortzen. Aurrena lehen hezkuntzarako, Saioka bezalako proiektu berritzaileekin. Eta unibertsitaterako gero, UEUren babesarekin.

Euskara ardatz eta irakaslearen erantzukizuna buruan aritu da beti Etxebarria. Besteen aurrean jartzen denak eredu-garri izan behar baitu, dioenez; ikasgelan zein legebiltzarrean. Zentral nuklearren kontrako boikotean parte hartu zuen horregatik Santi Brouardekin, biak HBko kide. EHUko irakasletza propioa lortzeko borrokari ere lotu zitzaion hasieratik. Horren ondorioz, hamabost urte eman zituen etxetzat jotzen duen unibertsitatetik kanpo. 2007an itzuli ahal izan zuen EHUra. Eta, barrutik nahiz kanpotik, euskarazko unibertsitatearen alde aritu da lanean.

Egun erretiratuta, hiru alabaren aita, bere garaia amaitutzat jotzen du, eta egin ahal zuen guztia egin duenaren pozaz mintzo da. Bere utopiak egia bihurtzen ari direlako ziurtasunez, konfiantza osoa du belaunaldi berriengan. «Egin nahi baduzue, egingo duzue. Ziur naiz».

1965ean etorri zinen Bilbora ingeniari-tza ikastera. Urte mugarrria da zuretzat.

Momentu erabakigarria izan zen. Ordura arte oso babestuta eduki ninduten, bai etxean eta bai kolegioan ere; ikasle fina nintzenez, ez nuen aparteko problemarik. Zientzietako ikasketaren bat egitea pentsatu nuen, familiako tradizioagatik, eta ingeniari-tza aukeratu nuen. Halako ikasketak egiteko leku bakarra zen Bilbokoa, Espainiako ingeniari-tzan klasiko bat. Hiru leku bakarrik zeuden-eta estatu osoan: Bilbokoa, Madrilgoa eta Bartzelonakoa. Leku guztietatik etortzen ziren Bilbora, eta ni ere Bilboko Ingeniari-tza Eskolara joan nintzen.

Erabat arrotza zitzaizun mundu batean murgildu zinen Bilbora etortzean.

Jakina! Gernikarra naiz sortzez, Eibarrera joandakoa gero, eta horiek herriak ziren. Bilbo ez: dena zen ezezaguna niretzat eta guztiz erdalduna. Euskaldunak bazeuden, noski. Nire aitaren aldeko izeko-osabaren Bilboko etxera joan nintzen bizitzera, eta euskara zen etxe hartako hizkuntza. Baina, kalerera atera eta erdal giroa erabatekoa zen.

Gainera, Eibarko kolegioan babestuta geunden. Sagrado Corazón ikastetxean egin nuen batxilerra lehenengo, eta gero, azkenengo kurtsoa, zabaldu berri zuten La Salleko ikastetxean. Bi kolegio horietan fraideek esaten zigutena egiten genuen guk: zer eta nola ikasi behar genuen esaten ziguten, egunero-egunero. Arratsaldeetan ere, klase orduak bukatu

eta etxera joan ordez, ikasgelara joan behar izaten genuen berriz ikasitakoa erreparatzera; buruz, noski. *Reválida* azterketa aprobatzeko prestatzen gintuzten, ez besterik.

Horregatik, Bilboko Ingeniaritza Eskolara etorri nintzeanean, hori izan zen ikusi nuen diferentzia handiena: unibertsitatean bakoitzak egiten zuela nahi zuena. Libre. Klasera joan, lezioa jaso eta *agur ben-hur*. Niretzat kolpe handia izan zen hori, ikasketaren erantzukizuna norberarena zela jabetzea. Kontu txikia dirudi, baina niretzat oso gogorra izan zen.

Frankismo betean, Ingeniaritza Eskolako giroa ere hala-koa izango zen.

Pentsa, egunero-egunero joaten ginen gorbata eta trajearekin, bai behintzat lehenengo urteetan. Eta irakaslea klasera sartzen zenean, ikasle guztiek altxatu behar izaten genuen. Errespetu faltsu bat zegoen, errespetua beharrean beldurra geniolako irakasleari. Adibidea ipiniko dizut: bazegoen Arana abizeneko irakasle bat, Neguriko *kastakoa*. Bere ofizioa golfean egitea zela esaten zigun eta klasera etortzen zela hobby modura. Beste mundu batekoa zen.

Ikaskide asko ere giro horretakoak ziren: 120 bat ginen lehen kurtsoan, eta jende aberats asko zegoen, Espainia osotik etorriak. Bilbora ikastera joan eta urte osoko gastuak pagatzeko, dirua behar zen! Aberatsak ere ez ginenok beka batekin geunden han, ikasle finak ginelako.

Giro horretan egokituz joan zinen apurka, hala ere.

Ausardia apur bat ere izaten hasi nintzen lehen urterako. Eta hori aurreneko urtea 'selektiboa' zela: ikasturteko bost ikasgaiak gainditu behar ziren hurrengo kurtSORA pasatzeko, eta batzuek

«Irakaslea klasera sartzen zenean, ikasle guztiek altxatu behar izaten genuen. Errespetu faltsu bat zegoen, errespetua beharrean beldurra geniolako irakasleari»

urteak ematen zituzten lehen kurtsoa ezin gaintuz. Zortea izan nuen, garaiz egokitzen hasi nintzelako eta irakasleari ere aurre egitera ausartu nintzelako. Ze arazotxo bat izan nuen.

Marrazketa teknikoa ematen zigun Macrín Zorrilla katedradunak; beldurgarria zen. Baina, ikasgaia asko gustatzen zitzaidanez, ederto egin nuen azterketa finala. Notak ikustera joan eta... a zer sorpresa: zero bat ikusi nuen akta ofizialetan. Ez zen posible!

Macrínek unibertsitateetik kanpo zuen lantokira joatea erabaki nuen, eta han, xuabe-xuabe azaldu nion ezinezkoa zela, azterketa ondo egin nuelako. Enpresako mahaiari zituen zuzendutako azterketak, eta nirea ez zegoela erantzun zidan, horregatik ipini zidala zeroa. Bat-batean, mahaiaren bestaldean ikusi nuen nirea; eredu modura erabili eta alboratuta utzia zuen. Gaintuta nuen, baina, akta ofiziala zenez, ezin zidan nota aldatu. Hori esan zidan. Nik nota onak behar nituen, bekarekin ari nintzelako ikasten, eta ez dakit nola, baina, azkenean, eskolako idazkaritzan errekurtsioa egin eta lortu nuen zuzenketa bat egitea, aktan bertan. Uste dut horrelako aldaketa bat lortzen bakarra izan naizela. Askotan pentsatu dut: a zer ausardia nirea garai hartan aldaketa hori eskatzeagatik...

Lagun giroa ere topatu zenuen unibertsitatean.

Euskaldunak eta ingurukoak hasi ginen batez ere elkartzen. Extremadurako lagunak ere banituen, baina taldetxoan gehienak ingurukoak ginen. Ikasteko batzen ginen hasieran. Ikasketa kooperatiboa egiten hasi ginen, eta lagunak egin ginen. Gero euskaldunen taldea izango zena osatu genuen.

Elkarrekin euskaraz egiten zenuten?

Lehenengoan ez. Elkar ezagutzen pasatu genuen lehen hiruhilekoa. Gazteleraz zen dena, noski. Baina, bigarren hiruhilekorako harremana genuen eta euskalduna nor izan zitekeen erraz jakiten zen.

Hala ere, euskaraz aritzeko erabakia Mendizabal ize-neko Venezuelako klasekide batengatik izan zen. Gerran

Venezuelara joandako familiakoa zen Mendizabal; ez zuen euskaraz ikasi, eta «oye, Etxebarria, tú ya sabrás euskera» galdetu zidan behin. Nik baietz, banekiela, eta erakutsi behar niola aipatu zidan. Segidan: «Oye, y ¿cómo se dice en euskera electrón?», edo antzeko hitzen bat. Hori entzun eta zuri geratu nintzen, zer erantzun ezin asmatu: «¿Electrón? Eso no se dice en euskera». Begira zer erantzun nion!

Elkarrizketa sinple hark deskolokatu egin ninduen; biluzik utzi zuen nire ezjakintasuna. *Electrón* euskaraz zergatik ez zen esaten pentsatzen hasi nintzen, eta arrazoia ere bazuela konturatu nintzen: euskaraz ere esan behar zen hori. Kontuan izan ordurako bazegoela ETaren mugimendua, Eibarren ere nire arreba nagusia bazebilen euskara bultzatzeko kontuetan... Giroa hori zen, baina, nigan ez zegoen halako kontzientziarik une horretan, eta elkarrizketa sinple horrek piztu zidan kontzientzia. Kolpe txiki bat izan zen.

Elektroiaren erruz hasi zineten klasekideak euskaraz?

Lagun taldean hartu genuen erabakia, ez dakit zehazki nola, baina elektroiares kontu hori eta gero izan zen. Ea euskaraz ote genekien hasi ginen elkarri galdetzen, eta, euskaraz berba egin beharko genukeela pentsatu genuen. Horrela hasi ginen. Hamar bat laguneko taldea osatu genuen: Oiartzungo bat zegoen, kostata ulertzen nuena, bazegoen beste bat Tolosakoa, Nafarroakoa ere bai, eta gehienak bizkaitarrak. Euskaraz hitz egiten hasi ginen.

Klasean ere bai?

Klasean euliek ere ez zuten barbarik egiten.

Soldaduskan ere bai aritzen zineten euskaraz, klasekideek elkarrekin egin baitzenuten.

Unibertsitateko ikasleek *milicias universitarias* deitutako pribilegio moduko bat genuen, eta zatikatuta egin genezakeen soldaduska, hirugarren kurtsotik aurrera: hiru hilabete udan, beste hiru hurrengo udan, eta gero beste lau hilabeteko

praktikak. Bilboko gehienak Zamorara joaten ziren. Gure lagun taldearen intentzioa ere bertara joatea zen. Baina, Cadizen soldaduska egiteko lekua zegoela esan zigun militar batek, eta, boluntariorik izanez gero, apuntatzeko. Hori entzun, eta Zamorako Monte la Reinara beroa pasatzera joan beharrean, Cadizen hobeto egongo ginela pentsatu genuen. Taldeko bost bat euskaldun onartu gintuzten. Eta a zer pagotxa gurea! Pinu artean genuen kanpamendua, eta 500 bat metrora hondartza luze eder bat. Eta han ere euskaraz egiten genuen. Katalanek ere katalanez egiten zuten.

Bost lagun elkarrekin zineten, beraz.

Unibertsitatekoen bi konpainia zeuden han, eta beste bat *gente de tropa* deitutakoa, jende arruntarekin. Instrukzioak soldadu normalak bezala genituen guk, baina gero teoria ikasten genuen, armamentua eta abar... Gu Cadizen *señoritoak* ginen. Tropako soldaduek egiten zituzten lan zikinak: komunak garbitu, sukaldean aritu... Hala ere, gu eurekin egoten ginen, eta berehala konturatu ginen analfabetismo ikaragarria zegoela tropakoen artean. Andaluziarrak eta extremadurarrak ziren gehienak: hitz egiten zutenean ia ez genituen ulertzen ere.

Bigarren udan, eurei idazten eta irakurtzen erakusteko talde bat osatu genuen euskaldunok. Hamarretik gora apuntatu ziren, analfabeto totalak. Eta, gure denbora librean ordu beteko klaseak emanez, aizu, ikasi zuten.

Amaieran, agur festa bat egin ziguten, oso umila baina ederra. Eta, amaitzerakoan, ikasleetako batek, morrosko galanta zenak, esan zidan: «Etxebarria, no sabes qué contento estoy. Como he aprendido a leer y a escribir, ahora me voy a presentar a policía nacional». Begira zer naturaltasunez esan zidan. Berarentzat guk bide bat zabaldu genion eta eskertuta zegoen. Eta nik: «Pues nada, muy bien, hombre, ¡adelante!». Gero, askotan pentsatu dut, gugatik astakeria asko esan dituzte, bai, baina irakurtzen eta idazten erakutsi genion polizia hark seguru askotan pentsatu duela: «Esos

vascos serán muy malos y terroristas, pero a mí me enseñaron a leer y a escribir».

Soldaduskako azken zatia Gasteizen egitea egokitu zitzazun.

Nota ona nuenez, alferrez moduan aritu nintzen Gamarran, lau hilabetez. Uniformearekin, eta platozko txapel izardunarekin. Espainiako ejertzito frankistako ofiziala izan naiz ni!

Eta Espainiako ejertzito frankistako ofizialek euskaraz egiten zuen?

Alfereza nintzenez, konpainia bateko 200 soldadu zeuden nire menpe. Instrukzioak eta beste ematen nizkien, eta euskaldun asko egoten zen han. Baten bat identifikatuz gero, zuzenean egiten nion euskaraz. Horien artean erdaraz ez zekiten hiru soldadu ere izan nituen; Leitzakoa zen bat, beste bat Tolosakoa eta hirugarrena Munitibarkoa. Aginduak ulertzeko, alboan beste euskaldun bat ipini nien, azalpenak euskaratzeko. Ze, bestela, ez zuten ezer ere ulertzen.

Nire desohore handienetako bat Gasteizen izan nuen, baina...

Zergatik?

Burgosko prozesuko epaiketaren garaiak harrapatu ninduen Gasteizen, militar moduan. Franco oso kezkatuta zegoen, eta Juan Castañón de Mena Espainiako Armada ministroa bidali zuen Gamarrara, aginduak ematera. Zabalaldi handi batean ipini ginen denak formatuta. Eskularru zuriak jantzita, luxuzko uniformearekin eta ezpatarekin, eta pistolarekin albo batean. Musika militarra hasi, eta denek burua gora! [Zutik ipini da, han balego bezala, eta kantuan hasi da]. Castañón de Mena banan-banan zihoan ofizialak agurtuz. Aurrean ipini zitzaidan, eta «a las órdenes de vuecencia, mi general» esan behar izan nion. *A las órdenes de vuestra excelencia* esan nahi du horrek. Francoren Armada ministroari agur militarra egin diot nik. Nork eta nik! [Algara batean lehertu da].

GERNIKA, BELDURRAREN HERRIA

Gernikako familiarengandik jaso zenuen zuk euskara, eta, batez ere, euskaldun izatearen kontzientzia.

Familia osoa da Gernikakoa. Horregatik, Gernikako bonbardaketa funtsezkoa da nire familia ulertzeko. Nire *aitxitxa* Patxok Iruñea izeneko kafetegia zuen, eta, alargunduta, bi alaba zituen. Nire ama eta izeko Itziar. Bonbardaketa egunean han zeuden hirurak. Hemeretzi urte zeuzkan amak, eta izekok bederatzi bat. Dena galdu zuten: etxea, taberna... Zorionez, bizirik atera ziren. Gernika erretzen ikusi zuten eurek. Nire aitak ez. Alboko mendi batean zegoen, eta handik ikusi zuen Gernika suntsitzen. Ze nire aita, Errigoitin jaioa izan arren, Ereñoko baserri batean bizi zen. *Artes y oficios* deitzen zena ikasi zuen Gernikan, eta Astra arma lantegian hasi zen lanean. Tailer maisu eta delinearzaile oso ona zen.

«Beldurraren herria izan da Gernika, orain gutxi arte. Euskara etxeetan bizi izan da, ez kalean. Nazional-katolizismoa zegoen kalean, irabazleak nagusi»

Eurek ikusitakoa kontatzen ziguten guri ume-umetatik. Transmisio hori egon da gure etxean. Ama abertzalea zen, aita ez dakit, ez zuelako horretaz hitz egiten... Euskalduna eta euskaltzalea zen, hori bai. Eta Gernika alemanek erre zutela, zer erre eta zer ez oso ondo zekitela... Hori betidanik jakin dugu guk. Sentimendu eta kontzientzia hori hortik datorkigu. Oso errotuta dugu; barruan duzun marka moduko bat da.

Bonbardaketaren kontaketa hori etxera mugatzen zen? Eta euskara?

Beldurraren herria izan da Gernika, orain gutxi arte. Euskara etxeetan bizi izan da, ez kalean. Nazional-katolizismoa zegoen kalean, irabazleak nagusi. Ni 1948an jaio nintzen, eta

ordurako Gernika berreginda zegoen. Baina, giroa hori zen. Irabazleak zeuden kaleetan.

Oso gazte zinetela joan zineten Eibarrera bizitzera. Zergatik?

Nire aitak lanean problema terriblea eduki zuelako alde egin behar izan genuen. Ze gure aita eta ama Gernikara ezkondu ziren 1942an. Astran hasia zen aita lanean ordurako. Oso tipo azkarra zen, asmatzailea; planoak eta bestelakoak diseinatzeko zituen, makinak behar zuen guztia. Pistolarentzako mekanismo bat asmatu zuen, fabrikazioa erraztu eta merkatu egiten zuen pieza txikitxo bat. Berak asmatu zuen, eta patentatu nahi izan zuen. Baina, arazoa izan zuen untzetatar batekin, jabeetako batekin. Euren izenean patentatu nahi zuten nire aitak asmatutakoa. Gure aitak epaitegira eraman zituen, eta, azkenean, Burgosen amaitu zuen auziak. Baina, epaiketa galdu egin zuen. Kalera joan zen, bost seme-alabarekin. Ni hirugarrena naiz, Bego eta Mari Karmenen ostean jaiotakoa. Etxeko mutil bakarra.

Zer egin zuten zure gurasoek?

Koinatu baten bidez lana lortu zuen aitak Eibarren. Bi-hiru urte egon zen han lanean. Ama Gernikan geratu zen gu zaintzen, etxeoandre, aita Eibarren ondo kokatu zen arte. Armekin hasi zen berriro lanean, eta lanpostu ona lortu zuenean joan ginen gu hara, nik zazpi bat urte nituenean. Seigarren arreba Eibarren jaio zen. Beste guztiak gernikarrak gara.

Aldaketa handia izan zen Eibar?

Bai, izugarria, batez ere pentsamenduan. Gernika sakonki zegoen beldurtuta; gure etxea ausartu zen kontra egiten eta begira nola irten zen. Eibarren ez zegoen halakorik.

Hala ere, urtean hiru aldiz gutxienez joaten nintzen Gernikara. Ze, bost ume eta seigarrena etortzeko, gure ama suposatzen dut lanez lepo egongo zela, eta Gabonetan, Aste Santuetan eta udan Gernikara bidaltzen ninduen, *aitxitxa-amumarekin*. Mutil bakarra nintzenez... Nire arreba zaharragoek

gatzetxoagoak zirenak zaintzen zituzten. Bego zaharrena ere lanean aritzen zen fabrika batean, eta Mari Karmenek piano klaseak ematen zituen etxean. Pianoa beti egon da gurean, amari asko gustatzen zitzaiolako.

Horregatik umetako kuadrilla guztia eduki dut Gernikan, eta hango tradizio guztiak ere ezagutu ditut. Festa eta ohiturak irudi horiek oso ondo gogoratzen ditut. Gernikako jaietan, esaterako, kale nagusietan hiru bandera ipintzen ziren balkoitik balkoira. Gernika erre zutenen banderak ziren: falangearena, erreketena eta espainolak. Eta denak isil-isilik, noski. Aste Santuko prozesioek ere asko inpresionatzen ninduten: Kristoa hantxe bere zerraldoan, eta atzean guardia zibil guztiak formazioan, armekin, desfilatzen. Non eta Gernikan.

Min ematen zizun horrek, haurra izan arren?

Sentimendu hori etxean zegoen. Imaginatu *aitxitxa* eta *amuma*, beren balkoien alboan Gernika erre zutenen hiru bandera horiek eskegita ikustean. Pentsa zer mingarria zen hori, eta ixilik egon behar, gainera! Nola ez genuen edukiko sentimendu hori? Etxean dena kontatzen ziguten-eta. Esaterako, Francoren armada sartzerakoan nola 'guardia moroa' elizan egon zen, eta gure izekoek joan behar izaten zuten haien kakak garbitzera. Burua *rapatu* zieten, umiliatzeko.

Elizaren jarrera hori ikusita ere, zure senideek elizkoiak izaten jarraitu zuten?

Bai, etxean bai. Baina, fedea nazional-katolizismo horretatik 'desbideratu' zutela esango nuke. «Espainolak ez gara, baina fededunak bai», horren moduko zerbait pentsatzen zuten. Uste dut askok egin zutela horrelako bereizketa; gure etxean bai, behintzat. Nire interpretazioa hori da, gutxienez fedea geratzen zitzaie eta horri eutsi ziotela.

Eskola erlijiosoetara joan zara beti?

Bai, edukazio hori jaso dut. Gainera, kontatzen zidaten guztia sinisten nuen nik, naturaltasunez. Hori egin behar genuen, eta

egiten genuen: errosarioa, meza, gogo-jardunak... Sexua izaten zen euren obsesioa gogo-jardunetan. Behin abade bat etorri zen gogo-jardun horietako bat ematera, eta grabatuta geratu zait kontatu zuen istorioa: gure edadeko mutil bat ‘neska horriengana’ joan, bekatua egin eta istripua edukita hil egin zela esan zigun. Etxean ipini zuten bere zerraldoa, eta bere arimaren alde errosarioa errezatzen ari zirenean, urrutiko ahots bat entzun ei zen, esanez: «Ez errezatu nigatik, kondenatuta nago eta!». Ai, ai, ai! Pentsa zelako inpresioa hamalau urteko mutiko batentzat. Betiko kondenatuta. Asko inpaktatu ninduen kontakizun hark. Txikieria dirudi, baina beldurgarria zen. Han ikasi nuen beldurrak, sinistuz gero, blokeatu egiten zaituela.

EIBAR, IDEIEKIKO ERRESPETUA

Eibarren ez zenuen Gernikako beldurrik topatu?

Oso mentalitate diferenteko herriak ziren. Eibarren beste alaitasun eta zabaltasun bat zegoen, eta kolektiboaren zentzuak indar handia zuen. Zortzi familia geunden pisu-etxe batean, peora berean; umeak etxe batetik bestera ibiltzen ginen. Edozein problema izanez gero, denon artean konponzen genuen. Elkartasun handia zegoen Eibarren. Gabonetako jaietan ere berdin: pianoa genuenez, denek bukatzen zuten gure etxetik pasatzen.

Euskaraz aritzeko ere Gernikan baino beldur gutxiago zegoen Eibarren. Gernikan denak euskaldunak izanda ere, gero tabernan erdaraz aritzen ziren. Eibarren ez, txikiteoan joan eta han denek euskaraz berba egiten zuten. Eta, gainera, harro. Askotan entzun dut Eibarren erdara piloa sartzen dutela. Ba ez. Euskara ederra dute eta oso ironikoak dira, gainera.

Askatasuna eman zizun Eibarrek?

Ideiekiko errespetua zer zen ikasi nuen Eibarren, eta niretzat berria zen hori. Esate baterako, gogoratzen naiz nola Domu

Santu egunean kanposantura joaten ginen denok, eta han-
txe jakin nuen bi kanposantu zeudela Eibarren: bata eliza-

«Alberto Egia lagun
minak behin esan zidan:
'Hi txoria izatekotan,
txepetxa haiz'.
Txikiena nintzelako eta
erreboltoso samarra.
Eta horrela hasi ziren
Txepetxa deitzen»

koa, eta bestea, alboan eta txi-
kitxoa zena, ateoena. Niretzat
hori *shock* bat izan zen. Oso
gogoan dut ere nire amaren
anekdota bat: Dorita izeneko
lagun bat zuen amak, eta bere
senarra sozialista zahar ateo
zen. Hil, eta, jakina, entierro
zibila egin behar zitzaion se-
narrari. Ama guztiz zen eli-
za zalea, baina, enterrura joan
zen, bere lagunaren adiskide-

tasunagatik. Jarrera hori irakasbidea izan zen guretzat, ideien
aurretik laguntasuna zegoela erakutsi zigulako amak. Eiba-
rrek hori dena hartzen zuen.

Erljiotik urruntzen hasi zinen Eibarren?

Desikaste hori prozesu bat da, gauza txikiekin egiten dena.
Eibarren, Sagrado Corazón kolegioan jipoi terriblea eman
zioten behin Agustin Minondo nire klasekideari, gero EHUKo
soziologiako irakaslea izango zenari. Errosarioa errezatzeari
uko egin zion, eta sekulakoa eman zioten. Horrek inpaktatu
egin ninduen, maitasunaren erlijioa ei zenak halako jipoia
ematea ere haur bati... Horrela joan nintzen apurka desikasiz.

Txepetxa izengoitia ere zor diozu Eibarri?

Eibarko kuadrillak mendirako zaletasun handia zuen, eta,
armen tradizioa handia zegoenez, guztiak ziren ehiztariak.
Beraz, pase garaian, denak ehizara. Ni ere bai. Aitak hama-
biko txikiko eskopeta bat eman zidan, jostailu moduko bat.
Nire lagunek eskopeta handia eramaten zuten, eta hantxe
ibiltzen ginen. Ni desastre bat nintzen, ez neukan-eta ehiza-
rako gogorik. Haiek ere ezer gutxi harrapatzen zuten, baina,
lagunekin goiza pasatu, ogitartekoa jan, berba egin... gustura

egoten ginen. Horietako bat zen Alberto Egia lagun mina. Behin esan zidan: «Hi txoria izatekotan, txepetxa haiz». Txikiena nintzelako eta erreboltoso samarra. Eta horrela hasi ziren *Txepetxa* deitzen.

Identifikatuta sentitzen naiz. Nire artikulu batzuk sinatzeko ere erabili izan dut. Gainera, geroago irakurri nituen Pedro Mari Otañoren *Txepetxa* bertsoak eta asko gustatu zitzaizkidan.

Santutxun *Txepetxa* izaten jarraitu zenuen?

Ez, ni hemen Joserra naiz. Hemen diferentea zen, beste mundu bat zen hau. Hemen desikasten ikasi nuen, eta orain Santutxu nire herria da.

SANTUTXU, IKASLE ZEIN IRAKASLE

Ikasketak bukatu ahala gerturatu zinen Bilboko herri mugimenduetara.

Batez ere nire arreba Begorengatik. Bilbora etorri zen banku batean lan egitera, eta soziologia ikasten hasi zen Deustuko Unibertsitatean. Aspalditik zegoen saltsan sartuta, eta lagun asko zeuzkan. Berarekin berba egin eta Tasio Erkiziarekin kontaktuan ipintzea gomendatu zidan. Fraidea zen orduan Tasio. Bazeuzkan bere ideiak, eta, gazteekin ibiltzen zenez, eskoletan euskal kantak erakustea proposatu zidan. Astean behin joaten ginen talde bat kantak haurrei erakustera. Hori izan zen nire lehenengo militantzia.

Ordurako erabat alfabetatuta zeunden.

Bai, bai. Unibertsitatean gure artean euskaraz hitz egitea erabaki genuenean hasi nintzen ni neure kabuz alfabetatzen. Bego arrebak pasatu zidan *Anaitasuna* aldizkariko aleren bat, eta, *marabilatuta*, aldizkaria irakurtzen hasi nintzen, euskara ikasteko.

Imanol Berriatua apaizak hiztegitxo moduko batzuk paratzen zituen artikulu bukaeran. Esana duzu euskara ikas-teko aparteko baliabideak zirela zuretzat.

Buruz ikasten nituen hiztegitxo horiek, eta goitik behera irakurtzen nuen aldizkaria. *Anaitasuna*-ren bidez alfabetatu naiz ni, gehienbat. Euskarazko liburu bat lortzen banuen, hori ere irakurtzen nuen. Zegoena irakurtzen nuen, oso gutxi bazegoen ere. Hitzaldiren bat ere izanez gero, hantxe ginen gu. Gabriel Arestirenetan, esate baterako. Txillardegi edo Federiko Krutwig ere guretzat 'jainkoak' ziren, eta horiek idazten zuten guztia irakurtzen ahalegintzen ginen. Horrela, 1968-1969ko ikasturtera arte, unibertsitatekoa estudiatu eta etxean alfabetatzen aritu nintzen. Karrera bukatu nuenerako erabat alfabetatuta nengoen.

Zure kabuz ikasitakoa besteei irakasten hasi zinen handik gutxira Santutxuko gau eskoletan.

Karmelo ikastolaren bueltan zebiltzanak konturatu ziren euskaldunak ere alfabetatu behar zirela. Eta ni, ingeniaria nintzenez eta alfabetatua, nagusien irakasle aritzeko deitu ninduten. Horrela hasi nintzen Santutxuko gau eskoletan klaseak ematen, karrera bukatu berri.

Erronka izango zen zuretzat.

Ez hainbeste. Nik ikasitakoa erakutsi behar nien, ez besterik. Edozein material erabiltzen genuen horretarako, *Anaitasuna*-ko artikuluak edo bestelako testuak. Gainera, 1970ean Gabriel Arestik eta Xabier Kintanak argitaratutako *Batasunaren kutxa* giltzarria izan zen, eta material ona eduki nuen klaseak emateko.

1968ko Arantzazuko Biltzarrak harrapatu zintuen bete-betean, beraz. Euskara batuaren alde egin zenuten hasieratik?

Gau eskolan genbiltzanok hausnarketa egitea erabaki genuen. Ordura arte Patxi Altunaren *Euskera, hire laguna!* liburua erabiltzen genuen klaseetan. Liburu horiek gipuzkeraz,

bizkaieraz... zeuden, eta bizkaierazkoa agortu egin zen. Zer egin erabakitzeko, 30 bat lagun elkartu ginen asteburu pasa Dimako Indibeiti baserrian; ia guztiak seminariotik pasatutako gazteak. 1971. urtea edo izango zen, eta batzar bidez metodo berria egin edo ez erabaki behar genuen. Eta hantxe erabaki genuen guk geuk egingo genuela euskalduntzeko metodo berria, euskara batuan izango zena. Talde bat osatu genuen horretarako: Juan Luis Goikoetxea, Jon Aurre, Rikardo Badiola, Xabier Kintana, ni neu... eta lanean hasi ginen. Bi urteren buruan jaio ziren *Euskalduntzen* metodoaren hiru liburukiak, eta 1975ean argitaratu genuen *Alfabetatzen* metodoa.

Tenore horretan ere *Anaitasuna*-n artikuluak idazten hasi zinen.

Anaitasuna irentsi egiten nuen. Erraz irakurtzen nuen, bizkaieraz eta batuaz ere ondo nekien. Baina, idazteko konplexua nuen oraindik.

Alfabetatzeko irakaslea izanda ere?

Bai. *Anaitasuna*-n idaztea beste kontu bat zen niretzako. Baina, orduan irakurri nuen Patxi Urtiagak sinatutako erlatibitatearen teoriaren inguruko artikulu bat. Xabier Kintanarena zen, eta euskarazko aditzak lau dimentsio zituela-edo esaten zuen, erlatibitatearen teoria oinarri hartuta. Aiba! Ni seko harrituta.

Ordurako irakaskuntzara dedikatuko nintzela erabakia nuen, eta fisika irakurtzen eta ikasten nenbilen, neure kabuz. Fisikako klase partikularrak ere ematen nituen, dirutxo bat lortzeko, Bego arrebarekin bizitzen ipini nintzen-eta, zezen plazaren ondoan. Beraz, erlatibitatearen teoria ondo estudiatua nuen, eta asko harritu ninduen *Anaitasuna*-ko artikulu hark. Hainbeste, erantzutea erabaki nuela, erlatibitate teoria zer zen benetan azaltzeko.

Kontu handiz idatzi nuen, Imanol Berriatuaren eskuetara pasatuko zela banekielako; niretzat jainkoa zen Berriatua. Eskuz idatzi eta txukun-txukun bidali nuen korreoz. Handik

denbora tarte batera publikatu zuten, non eta *Anaitasuna*-ren azalean, eta kartatxo bat idatzi zidan Imanolek, esanez euskara aldetik gauza batzuk zuzendu behar izan zituela. Nik berarekin egon nahi nuela erantzun nion, aldaketa horiek zergatik egin zituen ulertzeko. Iralaberriko komentuan bizi zen Berriatua, Bego eta bion etxetik oso gertu, eta berarengana joan nintzen.

Geroztik zure zuzentzaile eta irakasle izan zen.

Lehen bisita hartan gehiago idaztera animatu ninduen. Baina, nik tratua proposatu nion: «Nik idatziko dut, konforme; baina zuk egiten dituzun zuzenketak niri esplikatzea gustatuko litzaidake». Geroztik komentura joaten nintzen idazten nituen testuak berarekin zuzentzera.

Urtetan aritu zineten horrela, orpo orpo zuzenketak egiten.

Bai, hasieran komentuan bertan egiten genituen. Baina, Imanol bera eboluzionatuz joan zen: frantziskotar arropekin ibiltzen zen hasieran, gero trajearekin. Denborarekin oso lagunak egin ginen. Semetzat ere hartu ninduen, kasik, eta bere bizioak zein ziren ikasi nuen. Horregatik, komentuan beharrean, kafe baten inguruan egiten genituen gero zuzenketak, Euskalduna kalean zegoen *Mocedades* tabernan. Hantxe jesarrita trankil-trankil eskatzen genuen kafea biontzat, eta berarentzat kopa bat Magno koñak eta puru bat. Fariasa erretzen zuen normalean, baina habano bat edo halakoren bat oparitzen bazidaten, berarentzat gordetzen nuen. Horrela aritu ginen urte luzez, euskaltegiekin eta metodoekin lanean hasi zen arte.

Zuk ere ondoren halaxe egin dituzu zuzenketak: testuaren egilea alboan duzula, azalpenak emanez.

Ikusi nuen hori zela metodo egokiena, ezin delako testu bat zuzendu arrazoirik eman gabe. Niri zerbait zuzentzen badidate, zergatik jakin nahi dut. Ze, zuzenketak egiten dituzunean, zuzendu baino gehiago iritzia ematen duzu, eta

parean duzuna konbentzitu behar duzu. Ez badago konfor-
me, ez dezala aldatu. Hori egin zuen Berriatuak nirekin, eta
nik ere horixe egin dut besteekin.

KLASEA GAZTELERAZ, APUNTEAK EUSKARAZ

Karrera bukatu eta berehala hasi zinen irakasle Leioako campus zabaldu berrian.

Irakasle laguntzaile moduan hasi nintzen, 1971n. Medikuntza Fakultatea zegoen bakarrik zabalik, eta hor egin genuen aurreneko ikasturtea Zientzia Fakultatekook. Oso gutxi ginen, irakasleak ere oso gazteak ginen: giro oso polita, gertukoa genuen. Lehen ikasturte horretan fisika orokorra eta mekanika klasikoa ematen nituen, eta Jose Luis Arias Aspiazu zen nire irakasle titularra. Berak ematen zuen teoria, eta ni ariketez arduratzen nintzen.

Irakasle lanetan ari nintzela, trebatzen ere jarraitu nuen. Ingeniaritza ikasia nuen, ez fisika, eta prestakuntza egokirik gabe nengoen. Horretan autodidakta izan naiz. Nire irakasle titularren klaseetara joan eta apunteak hartzen nituen. Euskaraz idazten nituen apunte horiek»

«Ingeniaritza ikasia nuen, ez fisika, eta prestakuntza egokirik gabe nengoen. Horretan autodidakta izan naiz. Nire irakasle titularren klaseetara joan eta apunteak hartzen nituen. Euskaraz idazten nituen apunte horiek»

Klaseak gazteleraz izan arren, zuk apunteak euskaraz hartzen zenituen?

Klase guztiak ziren gazteleraz, noski. Ez zegoen besterik. Baina nik euskaraz prestatzen nituen apunteak, bai. Hala erabaki nuen.

Ezohiko erabakia izango zen hori...

Bueno, niretzat naturala izan zen. Egia esan, ez naiz gogoratzen nola hartu nuen erabaki hori. Baina, ordurako *Anaitasuna*-n idazten nituen artikulu dibulgatiboak, hamabostean behin. Horretarako bi errebista zientifiko erosten nituen, oso onak, frantsesez biak: *Sciences et Avenir* eta *Sciences et Vie*. Amaren parteko nire izeba Parisen bizi zen, eta 14 eta 16 urterekin bi uda pasatu nituen han. Girondako estuarioan ere etxetxo bat zuten, eta, hara joaten nintzenez, frantsesez banekien. Asko irakurtzen nuen sasoi hartan frantsesez, eta aldizkari horietatik ateratzen nituen *Anaitasuna*-n idazteko gaiak. Horrek esan nahi du artikulua erdaraz irakurri eta ulertu behar nuela lehenengo. Gero eskema egin behar zen –zientzian funtsezko gauzak, legeak, oso gutxi dira, eta horiek logikarekin ulertu eta lotu behar dira–, eta lixto, gero euskaraz idatzi. Berdin da zein hizkuntzatan egiten duzun hori. Ulertu baduzu gauza bat edo oinarritzko eskema hori, infinitu modu daude hori azaltzeko. Eta unibertsitatean ere berdina zen, hizkuntza batean zein bestean.

Euskarazko apunteekin ematen zenituen zuk gero gazte-lerazko klaseak?

Bai. Gainera, erretiroaren harira UEUk egindako omenezko liburuan [*Bai, jauna, bai: fisika euskaraz! Jose Ramon Etxebarria irakaslearen omenez*, UEU, 2018] jakin dut ikasleak *moskeatuta* zeudela horregatik. Ze problemen enuntziatuak ahoz gora irakurtzen nizkien, eta, errepikatzeko eskatzen zidatenean, agian diferente esaten nuen. Eurek enuntziatua berdin-berdin errepikatzea nahi zuten, kopiatu egiten zutelako. Baina, nik beste modu batera errepikatzen nuen, aldi bereko itzulpena egiten nuelako.

Egun batean komunera joan eta ikasle batzuk mahaira gerturatu ziren. Apunteak euskaraz zeudela konturatu ziren. Hala diote liburuan. Hor konturatu zirela apunteak euskaraz zeudelako errepikatzen nituela enuntziatuak diferente. Sorpresa itzela hartu zuten.

Unibertsitatean bakarrik ez, Santutxuko ikastolan ere hasi zinen fisika irakasten. Nolatan?

Oso erraz. Santutxun nengoen gau eskoletan, eta alfabetatuta zegoen bakanetako bat nintzen ni. Unibertsitatean zegoen fisikaria ere banintzen, gainera, eta *Anaitasuna*-n idazten zuena.

Ordurako abiatuta zegoen Karmelo ikastola Santutxun, oso baldintza xumeetan: lonja batzuetan ematen ziren klaseak. Ikusi beharko zenituzke zelako lonjak ziren! Adin diferentzetan zeuden ikasleak banatuta, eta hamar urteko haurrak ere bazeuden. Eurei fisikako oinarrizko gauza batzuk erakusteko irakasle aritzea proposatu zidaten. Eta nik, ba ondo, aurrera. Arratsaldetan joaten nintzen ikastolara, astean behin edo bitan, unibertsitateko lanaren ostean.

Nola jarduten zenuen haurrekin?

Ez zegoen libururik, eta fitxak egiten hasi nintzen, problemekin eta ariketa praktikoekin. Azkenean, klasea ematen duzunean, ikasleen izaerara egokitu behar duzu mezua. Berdin du zer ikasle duzun aurrean: unibertsitatean apunte unibertsitariokoak egingo dituzu, eta ikastolan umeek ulertzeko modukoak.

Anekdotak bat kontatuko dizut ulertzeko nola hasi ginen, zer baldintzatan: autotxo bat nuen orduan, eta umeak hartuta Txurdinagara joan ginen egun batean, han oso jende gutxi ibiltzen zelako. Bi taldetan banatuta, elkarrekin sartu nituen autoan. Errepideko zati zuzen batean autoko frenoak topera sakatu, eta pun!, haur guztiak joan ziren aurreraka. «Zergatik hartu duzue kolpea?», esan nien. «Ba horixe da inertzia». Hala esplikatzen nien zer zen inertzia.

Ikasleak oraindik ere gogoratzen dira, askotan aipatu izan didate. Orain egingo banu, kartzelara joango nintzateke, seguru. Baina, beste garai batzuk ziren.

Fitxa horiek baliatu zenituen ondoren materiala sortzeko?

Bai, ze, fitxa horiek egin nituenean, tarte horretan ezagutu nituen Elhuyarkoak izango zirenak: Mikel Zalbide, Andoni Sagarna, Luis Maria Bandres... Donostiako Ingeniaritza

Eskolaren bueltan zebiltzan, eta EKT (Euskal Kultur Taldea) osatua zuten. Haurrentzako zientzia liburutxo bat egiten ari ziren, eta elkarlanean hasi ginen, fitxa horiek erabiliz.

Nola izan zenuen EKTkoen berri?

Seguru asko Hiazinto Fernandorena Setienen bidez. Hiazinto oso pertsona inportantea izan da. Apaiza zen, oso fina eta euskaltzalea, eta Gordailu editoriala zuen. Umeentzako 40 bat orrialdeko liburu monografiko batzuk egiten zituen Ikastolako Liburutegia sailerako; simple-sinpleak, eta gai bakar bat hartuta. Oso erabilgarriak ziren. Hor argitaratu genuen geure lehenengo liburua: *Haizea, euria eta klimak*. Gero etorriko ziren *Materia aztertzen* eta beste liburu batzuk... Liburu horiek EKTkoekin egin nituen.

Talde lanaren garrantzia azpimarratzen duzu beti.

«Gure prozesua kolektiboa izan da. Gure aurretik ibili zirenengatik sartu ginen gu euskalgintzan. Esaterako, Santutxun ikastolaren mugimendu bat zegoelako sartu nintzen ni horretan, ez nire ekimen hutsez»

Gurea prozesu kolektiboa izan da. Gure aurretik ibili zirenen-gatik sartu ginen gu euskalgintzan. Esaterako, Santutxun ikastolaren mugimendu bat zegoelako sartu nintzen ni horretan, ez nire ekimen hutsez. Euskarazko alfabetatze klaseekin ere berdin. Olatu horretan sartu naiz ni beti, *surfeatzen* jakin dut, eta, behin sartuta, garaiko problemei erantzuten saiatu naiz. Testugintzarena zen ikastolen problemetako bat, esaterako. Eta liburuak egiten hasi ginen. Gero unibertsitatean berdin, materiala sortzen jarraitu nuen, ikastolako haurrak unibertsitatera ere iritsiko zirelako.

Ikastoletarako materiala sortzeko, Saioka proiektua ipini zenuten martxan, Santutxun bertan.

Geroxeago izan zen hori, 1974 inguruan. Ordurako alderdi politikoak mugitzen hasiak ziren; klandestinoki, noski. Ipar Euskal Herritik zetorren horietako bat, EHAS, Jean-Louis Davantek eta ingurukoek sortua. Hemen ere bazegoen, eta eurekin hasi nintzen militatzen, Santutxun.

Alderdi politiko bat zenez, panfletoak-eta egiteko azpiegitura bat behar zen, eta talde egonkor bat osatu genuen Natxo Arregi eta Jabi Zuloagarekin. Matematikaria da Arregi, gero pedagogian zerikusi handia izan duena. Zuloaga Mikelon adiskidearen anaia nagusia zen, Bilboko Verdes liburutegi ezaguneko semea. Horiek organizatu zuten Iker izeneko enpresa. Gauza asko egiteko *tapadera* zen: panfletoak, dokumentuak... Hego Euskal Herrirako estatutua idatzi zen han, Iruñea hiriburu izango zuena. Eta gero *Anaitasuna* aldizkariaren ardura ere hartuko genuen bertan.

Baina, garai horretan, ikastolen federazioetarako testugintza proiektu bat prestatu zuen Natxo Arregik. Ikasturte guztietarako izango zen eta programa ofiziala betetzeko moduko liburuak izango ziren, gure estilora ekarrita eta euskara batuan, noski. Horrela sortu zen Saioka proiektua.

Proiektuka antolatu zenituzten Saiokako testuliburuak. Erabat berritzailea zen hori.

Natxo Arregiren ideia izan zen hori, pedagogia arloko eza-gutza handia zuelako. Freinet, Freire, Piaget... teknika guztiak ikasi genituen, eta berea izan zen proiektuen metodologia aplikatzearen ideia. Orain modan dagoen horixe bera, proiektuka ikastearena.

Zer ardura izan zenuen zuk Saiokan?

Espainiako 1970eko hezkuntza legean ezarritako *Educación General Básica*-ko zortzi mailetakoko testuak prestatu genituen taldean. Nik maila guztietan hartu nuen parte, oso jende onarekin elkarlanean. Xabier Mendiguren Bereziartu Kontseiluko burua izan zenarekin idatzi nuen lehenengo mailakoa. Algortan bizi zen bera, eta hara joan nintzen uda

«Goi mailako irakasleak
eta jende ezaguna
aritu zen Saiokan: Iñaki
Antiguedad, Arantxa
Garmendia, Iñaki Zarraoa,
Josune Ariztondo,
Xabier Kintana, Imanol
Añon, Kepa Martinez,
Karmele Baelo...»

batean testuak erredaktatze-
ra. Bera gipuzkoarra da, oso
euskara dotorea eta landua du,
eta nire Bizkaiko osagaiekin
eta terminologiaren ezagutza-
rekin orekatzen genituen tes-
tuak. Termino pila bat berriak
zitzaizkigun. Mugika hiztegi
zaharra atera, hitzak aztertu
eta erabakia hartu behar iza-
ten genuen Xabierrek eta biok.

Hori idazketari dagokionez.
Testua bera taldean adosten
genuen: zer idatzi, zer proiektu

egin... Dena eztabaidatzen zen. Oso goi mailako irakas-
leak eta jende ezaguna aritu zen horretan: Iñaki Antiguedad,
Arantxa Garmendia, Iñaki Zarraoa, Josune Ariztondo, Xabier
Kintana, Imanol Añon, Kepa Martinez, Karmele Baelo... Tal-
dean erabakitakoa egokitzen nuen nik gero idatziz.

Zer harrera eduki zuen Saiokak ikastolen federazioetan?

Problema itzelak egon ziren. Saioka osoa argitaratzeko eskubi-
deak erosi zituzten Gipuzkoako eta Bizkaiko federazioek, eta
eztabaida politikoak egon ziren tartean, milaka bronka! Gaine-
ra, metodologia hain zen berritzailea, arraroa egiten zitzaie-la.

Metodologia ulertarazteko ikastaroak ematea adostu ge-
nuen, eta hantxe ibili nintzen ni Saiokaren metodologia
esplikatzeko eta irakasleak konbentzitzen. Irakasle gehienak
harritu egiten ziren proiektukako metodologiarekin, baina
gero pozik zeuden. Saioka zale amorratuak ere sortu ziren,
Bergarako ikastolakoak, esaterako.

Oraingo ikuspegitik, aukera galdu bat izan da Saioka, zentzu
handi batean. *A posteriori* konturatu direlako haren balioak,
eta orain dena da proiektukako metodologia. Beharbada au-
rreazaleegia zen: lehena izan zen, euskara batuan eta origina-
la. Baina, bere fasea bete zuen, eta nik oso ondo pasatu nuen.

LA SALVE, TORTURA

Santutxun bertan ezagutu zenuen zure emaztea.

23 urterekin hasi ginen gu *nobixo-nobixa* izaten, eta urtebetera ezkondu ginen. Bera ere bazebilen herri mugimenduetan. Elkarren gustukoak izan eta gaur arte.

Hasi berri zinetela joan zineten oporretan Zuberoara. Eta bueltatzerakoan jakin zenuen Guardia Zibila zutaz galdezka zebilela.

1972ko iraila zen. Itzuli ginenean, Eibarko gurasoen etxera joan nintzen, eta aitak esan zidan Guardia Zibila etorri zela etxera nigatik galdezka. Arma baimena neukanez, eskopetatxo bat, hori erabiltzeko baimenaren konturen bat izango zela esan nion aitari; trankil egoteko, hurrengo goizean joango nintzela. Eta horrela joan nintzen, neure kabuz, hori izango zelakoan.

Ez zenuen inolako susmorik?

Inoiz ez dut eduki-eta. Nik asko *kobratu* dut, baina eman, ez diot inori eman. Ez dut eskurik altxatu inoren kontra. Harri bat ere ez dut bota. Lasai nengoelako joan nintzen hurrengo goizean Guardia Zibilarengana. Hara heldu, eta inolako esplikaziorik gabe, «pues te tienes que quedar aquí» esan zidaten. Eguerdian sartu ninduten Guardia Zibilaren kotxe horietako batean, eta «a Bilbao»; La Salveko kuartelera.

Galdezka hasi ziren han. Sarekada handi bat egina zuten, eta, paper batzuetan-edo nire izena azaldu zen, herri mugimenduetan ibiltzen nintzelako. Artxibategi baten antzeko gela batean sartu ninduten, eta «toma este papel y escribe lo que sabes sobre ETA», agindu zidaten. «*Aiba diez*, si yo no sé nada». Han utzi ninduten bakarrik, idazteko. Bueltatu zirenean papera zuri zegoen, noski, eta orduan hasi zen dena.

Joka hasi ziren.

Joka, bai, baina ez edozein modutan. Mendiko arroparekin nengoen, egun horietan Zuberoatik ibilia nintzelako, eta,

galtzerdi lodiak kendu gabe, botak kendu eta belauniko ipini ninduten. Ondo oratu, salomondar zutabearen antzeko formako makila batekin, danba-danba-danba... oinazpitan jotzen ninduten. Terriblea da mina. Gero eskailera batera ere lotu ninduten eta buruz behera ipinita segitu zuten kolpeka, oinazpitan. Funtsean, oinetako kolpeak izan ziren. Ezin duzu sinistu nolako mina ematen duen. Konortea galdu eta momentu batez horrela egon nintzen, galduta-edo. Gero berriro hasi ziren. Une batean hiltzeko desiratzen nengoen. Ezin duzu gehiago, eta nahiago duzu sufrimenduarekin bukatu.

Hiru egun egon zinen La Salven?

Bai, baina tortura lehen egunean izan zen. Deseginda geratu nintzen, etzanda egon behar izan nuen, eta egun horietan, dardarka eta... ea noiz itzuliko ziren beldur nintzen. Antsietatea eta hori dena pasatu nituen: «Etorriko badira berriro, eta hasten badira...». Ulertzen? Beldur izugarria duzu. Gainera, zelan esango nuen ez nekiena... Tira, askotan eurek nahi dutena esaten duzu. Baina, nonbait, ni ez nintzen inportantea, eta beste bi egun eduki ninduten han oinak baretzen. Hirugarren egunean, libre.

Zer egin zenuen aske geratzerakoan?

Andregaiari telefonoz deitu, taxian beraren etxera joan, eta badakizu zer egin nuen? Nire oinak ikusi zituztenean, bainuontzia bete zidan andregaiak. Ur epel-epeletan egon nintzen, erlaxatzen, ahal nuen gehien. Argi eta garbi azaldu nien gertatutakoa, eta oso ondo hartu zuten etxeko guztiek.

Lanean ez nuen kontatu. Gainera, La Salven nengonez, huts egin nuen ingeniarietzako etsamina batera. Ingeniaritza Eskolan ere aritzen nintzen lehen urte hartan, eta Zuberoatik hain justu etsamina hori nuelako etorri ginen. Baina, ez nintzen agertu eta ez nien kontatu zergatik egin nuen huts. Ingeniaritzakoa uztear nengoen, Leioan egun osoz aritzeko, eta, lotsagatik edo beldurragatik, ez nuen esplikaziorik eman. Eurek ere ez zidaten eskatu.

Gotzaindegian, ordea, kontatu zenuen jasandakoa.

Nire emaztearen osaba Joakin Urrutia apaiza zen, eta, etxera heldu ginenean, berari ere kontatu nion. A zer *kabreoa* hartu zuen. Sasoi hartan Antonio Añoveros zen Bilboko gotzaina; frankismoarekin problematxo batzuk izana zituen, eta berari kontatu behar geniola esan zidan.

Handik egun batzuetara, oinak oraindik handituta nituela, joan ginen gotzaindegira. Mahaiaren alde batean osaba eta ni, eta bestean obispoa. Egin zidatena kontatzen hasi nintzen, eta, nahi bazuen oinak erakutsiko nizkiola-eta, zapatak kentzen hasi nintzenean, «no, no, no... te creo, te creo. No me enseñes», hasi zitzaidan.

Handik gutxira, deklarazio batzuk egin zituen obispoak. Ea torturen berririk izan ote zuen galdetu zioten, eta berak ez zuela horren berri, berak ez zuela halakorik ikusi... Horrela erantzun zuen. Nahi izan ez zuelako ez zuen ikusi! Zer hipokrita, benetan.

Gotzainaren jarrerak bereziki mindu zintuen?

Erlijioari buruz ideiak aldatzen hasia nintzen ordurako. Baina, obispoaren hipokrisi terriblea ikusita, hura azken tanta izan zen. Erlijioarekin apurtzeko azken errematea izan zen.

Zure torturazaileetako bat ikusi zenuen gero, non eta Imanol Berriatuaren komentuan.

Ezagutu nuen, bai. Ze ni torturatu nindutenak aurpegi bistan zeuden. Erabateko inpunitatea zuten. Lau bat-edo egon ziren ni oratzen, eta ilehori batek asko jotzen ninduen.

Egun batean Imanol Berriatuarengana joan nintzen Ira-labarriko komentura, 1973an-edo izango zen, torturatu eta gero. Zain nengoela, taldetxo bat sartu zen itxarongelara, eta hantxe zegoen ni torturatu ninduen ilehoria. Buf... gorputzak buelta eman zidan. Imanoli edo hango bati galdetu nion ea horiek nor ziren, eta bataio bat prestatzera etorriak zirela esan zidaten. Hori umea bataiatzera? A zer hipokrisia. Ezin dut hori jasan, ni baino fuertegoa da.

Torturak arrasto sakona utzi dizu?

Lehenengo momentutik kontatu nuenez, ez dut trauma bezirik eduki. Suertea izan dut, lehenengotik kontatu dudalako. Hori bai, atxiloketaren bat zegoen bakoitzean, ezin nuen gauean lo egin. Urtetan egon nintzen horrela. Nik ezer jakin gabe, begira zer egin zidaten... Zer egingo ote zieten atxilotutakoei...

ZENTRAL NUKLEARREI EZ, EUSKARAZ

Pasatutakoak pasatuta, hala ere, militarren jarraitu zenuen.

Begira: beldurra da zu mugatzeko botereak duen tresnarik potenteena. Ze, zuk ez baduzu beldurrik, gai zara edozer egiteko. Horretaz geroago konturatu naiz, jakina. Baina, orduan ere beldur horri aurre egiteko gai izan nintzen, eta aurrera segitu nuen.

Lemoizen, Ogellan eta Tuteran zentral nuklear bana erakitzeke asmoa zegoen sasoi hartan, eta horren kontra militarren hasi zinen mugimendu antinuklearretan.

Orduantxe atera zen Euskal Herriko zentral nuklearren proiektua, eta, injustizia handia zenez, horretan ere sartu nintzen.

Zentral nuklearrei buruz egin zenuen karrera amaierako proiektua. Arriskuez, ordea, geroago jabetu zinela esana duzu.

Unibertsitateko proiektua oso pozik egin nuen, asko gustatzen zitzaidalako zentral nuklear batek nola funtzionatzen zuen estudiatzea. Fisika nuklearra izugarri maite nuen. Baina, ezagutza teknikoa nuen, ez besterik.

Irakasle hasi nintzenez sortu zen Euskal Kostalde Ez Nuklearra izeneko mugimendu herritarra. Denetariko jendea zegoen hor. Harreman handia nuen nik Jose Allende

ekonomistarekin, esaterako, edo gero PSOEkoa izango zen Jose Ramon Rekalde abokatuarekin. Gainera, zentral nuklearren kontrako artikuluak ere irakurtzen hasi nintzen. Aldizkari frantsesetan, batez ere. Alemaniako eta Frantziako talde antinuklearren artikuluak ziren, han aspalditik zeuden-eta antolatuta.

Horrela konturatu nintzen zentral nuklearren arazoez, eta horrela ere hasi nintzen arazo horiek estudiantzen.

Zentral nuklearren kontrako hitzaldiak eman zenituen herriz herri. Euskaraz.

Euskal Herri osoan zehar ibili nintzen. Euskal Kostalde Ez Nuklearra mugimenduko gehienak ezker abertzalekoak ziren. EAJkoren bat ere egongo zen, noski, baina EAJk Iberduerorekin bat egina zuen publikoki. Begira zer esan zuen Xabier Arzalluzek [EA]ko EBBko presidentea zenak]: zentral nuklearrik gabe azak jan beharko genituela, besterik ez. Hori zen giroa. ETA gero sartu zen, istilu izugarriekin. Baina, ordurako milaka herritar elkartu zituen Lemoizko zentralaren kontrako mugimenduak, eta baze-
goen euskararen aldeko jarrera.

«Beldurra da zu mugatzeko botereak duen tresnarik potenteena. Ze, zuk ez baduzu beldurrik, gai zara edozer egiteko»

Herri euskaldunetara joaten nintzen ni hitzaldiak ematera, edo gehienetan ni bezala kontu politikoetan edo euskalgintzan ibilitakoek gonbidatuta joaten nintzen. Euskaraz eman nituen, normal-normal. UEUrekin ere antolatu genituen geroago hitzaldiak, JAKINEk publikatu zituenak. Eta Euskal Kostalde Ez Nuklearreko printzipioen panfleto bat ere lehenengoz itzuli nuen nik euskarara, Jose Allendek eskatuta.

Ez da harritzekoa Adolfo Suárez Espainiako gobernu-buruari kontra egin izana. Kimika nuklearra ezin zitekeela katalanez eta euskaraz erakutsi esan zuen Suárezek

1976an, *Paris-Match* aldizkariari eskainitako elkarrizketa batean. Fisika irakaslea eta mugimendu antinuklearretako militante euskalduna zinen zu ordurako.

Kazetariak galdetu zion ea batxilergoa euskaraz eta katalanez erakutsiko zen, eta Suárezek hori tontakeria bat zela erantzun zion: lehenengo kimika nuklearra hizkuntza horietan erakusteko gai zen irakasle bat aurkitu behar zuela.

Ordurako ikastola mugimendua martxan zegoen, eta Saio-ka proiektua ere hasia geneukan. Gure helburua irakaskuntza osoa euskaraz ematea zen. Beraz...

Fisika euskaraz erakuts zitekeela erantzun zenion Suárezi horma-irudi batzuetan. Nola izan zen hori?

Ez dakit seguru, baina susmoa dut Xabier Kintana egon zela horren atzean. Harreman handia nuen berarekin, eta askotan hitz egiten genuen euskarak denetarako balio behar zuela, edo bestela, ez zuela balioko. Suárezen hitz horien garaian, euskara bultzatzeko ideia bat eduki zuen Kintanak. Lan Kide Aurrezki Kutxakoekin –gaur egun Laboral Kutxakoak direnekin– hitz egiten zebilen euskararen alde zer edo zer egiteko, eta kanpaina bat proposatu zien. Kanpaina horren barruan erantzun genion Suárezi, poster handi batzuekin.

Argazkilaria bidali zuten horretarako unibertsitatera: ar-belean euskaraz idatzi, eta aurrean nire ikasleak nituela atera zidaten argazkia, klasea euskaraz ematen banengo bezala. Irudi horri esaldi hau ipini zioten: «Bai, jauna, bai, fisika euskaraz!». Bulegoetarako poster handi-handiak egin zituzten, esaldi famatuarekin.

Ez nintzen kanpaina horretan azaltzen bakarra, hala ere. Francisco Tejería deitzen zen bat ere azaltzen zen. Extremadurakoa zen, baina Goierrin bizi eta euskara ikasia zuen; bertso-tan ere ibiltzen zen Patxi Teilatu izenarekin. Bere argazkiaren leloa hau zen: «Extremaduran jaioa, eta euskaldun osoa».

Zurea egin zen bereziki ezaguna, Suárezi emandako erantzuna izan zelako. Zure beste erantzun batek ere irau du:

fisika nuklearra euskaraz erakusteko, euskaraz jakitearekin eta fisika jakitearekin nahikoa dela erantzun zenion Suárezi.

Jende askok esaten dit hori esan nuela; kazetari batek gal-detuta-edo esango nuen. Ez dakit zehazki noiz. Lehenengo posterrarena izan zen, eta ondoren esango nuen esaldi hori. Gerora beti errepikatu dut esaldiko ideia, baina, egia esan, ez dakit zehazki noiztik. Jende askok eskertu dit Suárezi horrela erantzun izana.

BERTSOLARI FISIKARIA

Euskara unibertsitatean apurka indartzea ere lortu zenu-ten tenore horretan.

Hasieratik ibili ginen horretan, eta, Franco hil eta gero, agerikoagoa egin zen euskararen aldeko mugimendua. 1977an esperimentalki bost ikasgai eman genituen euskaraz, astean behin. Ordurako euskarazko mintegiak egiten nituen ikasle boluntarioekin, eta Zientzietako Euskal Kultur Taldea (ZEKT) ere sortuta zegoen, Donostiako EKTkoen eredia hartuta. Horri esker, hurrengo urtean lortu genuen euskarazko lerroa martxan ipintzea.

Nor elkartzen zineten ZEKT taldean?

Jacinto Iturbe, Jose Mari Txurruka, Itziar Urretxa, Mari Jose Zarate, Jesus Maria Arregi, Maribel Arriortua... hainbat. UEUko espirtua unibertsitatean sartzea zen gure helburua. Nik UEUren ikastaro guztietan hartzen nuen parte, aktiboki: batzuetan antolatzen, besteetan hitzaldiak ematen. Eta UEUko giro hori ekarri nahi genuen unibertsitatera. Materiala sortzen ere aritu ginen lehenengo momentutik. Jacinto Iturbek Banco Vizcayako buru bati ematen zizkion euskarazko klaseak, eta hark emandako laguntzarekin atera genituen *Fisika orokorra I* eta kimikako lehenengo liburutxoak: fotokopiatan, pegatuta eta enkoadernatuta. Horrela hasi ginen UEUrako materiala egiten.

Handik gutxira UZEIn hasi zinen lanean, hiztegitan.

Oso inportantea izan zen UZEI. Eztabaida handia zegoen hizkuntzalarien eta terminologoen artean, eta Jakineko Jo-seba Intxaustik ideia bat eduki zuen: zientzia arlo guztietarako hiztegi teknikoak sortu behar ziren. UEUko Fisika Saila kudeatzen nuen eta, Elhuyarkoekin ere banenbilenez, fisika proiekturako zuzendaria izatea proposatu zidan. Lehen hiztegi teknikoa fisikakoa izan zen; niretzat izugarritzko ohorea.

Arestian aipatu duzun fisika liburuxka horietan gauza ‘bixia’ egin zenuen: bertso sortak sartu zenituen atalen atariko.

Bertsoaren saltsan ere sartuta nengoelako. Xabier Amuriza laguna nuen, zentral nuklearren kontra eta HBn elkarrekin genbiltzan, eta mitinak edertzeko bertsoak botatzen zituen

«Urtebete egon ginen ikasten Amurizarekin, eta, azkenerako, bertso bat edo beste egiteko moldatzen ginen. Bat-batean aritzeko gai nintzen»

Amurizak. Jendea aho zabalik geratzen zen. Orduan hasi nintzen ni zaletzen eta bertso idatziak ipintzen. Gure etxean kanturako bai, baina bertso-tarako ez zegoen zaletasunik. Ezta nire inguruan ere. Eta apurka-apurka hasi nintzen. *Anaitasuna*-n ere ipini nituen gero zentral nuklearraren kontrako bertsoak!

Xabier Amuriza izan zen zure bertso irakaslea?

Sasoi hartan, zer edo zer diferente egiteko eskatu zidaten Santutxuko alfabetatze eskolakoek, eta bertso zaharrak kantatzea otu zitzaidan. Bertso afariak ere egiten zirela bagenekien, eta Xabier Amuriza eta Jon Lopategi gonbidatu genituen hilean behin bertso afari bat egitera zazpikaleetan; Erronda kaleko La Gernikesa jatetxeko sotoan elkartzen ginen. Gainera, Amurizak kartzelan bertsoari buruzko bi liburu idatzi zituela jakin nuen, *Hitzaren kirol nazionala* eta *Hiztegi errimatua*, eta bertsoa zer den esplikatzera etortzeko gonbidatu genuen.

Hamar bat lagun elkartu ginen bere klaseetan. Gurekin esperimentatu zituen bi liburu horiek.

Bertso eskola osatu zenuten, beraz.

Urtebete egon ginen ikasten Amurizarekin, eta, azkenerako, bertso bat edo beste egiteko moldatzen ginen. Bat-batean aritzeko gai nintzen.

Trebatuta, unibertsitatera eraman zenuen zure bertsozale-letasuna.

Nire fisikako unibertsitateko ikasleek bazekiten horretan nenbilela. Euskal lerroa martxan zegoen ordurako, eta teoria eta praktika ematen nien. Mintegi boluntario batean hala esan nien: «Azken klasea bertsotan emango dizuet». Bertso jarriak izan ziren, eta hamar gai edo zirenez, kapitulu bakoitzari bertso bat ipini nion, laburpen modura. Bertso jarri horiek kantatu genituen elkarrekin klasean. Ideia asko gustatu zitzaien, eta *Fisika orokorra I. Problemak eta ariketak* liburuan argitaratu nituen, atal bakoitzaren atariko.

Plazara ere segidan egin zenuen salto, 1980koa duzu-eta lehena.

Santutxuko Basarrateko jai batean izan zen hori, guk geuk antolatutako saio batean. Lopategi eta Amuriza gonbidatu genituen, eta Juanjo Bastera, Carlos Ibarzabal eta Joserra Bilbaorekin aritu nintzen bertsotan. Gu, bertso eskolakoak, harro-harro geunden taula gainean. Agurra kantatzeko txanda iritsi zitzaidan, eta hasi eta laugarren puntuan, ez zait ba ahazten! Zuri geratu nintzen. *-aia* errimarekin ari nintzen, eta atzetik ahopeka hasi zitzaidan Lopategi: «Bizkaia, Bizkaia...». Berari esker bukatu nuen plazako nire lehen bertsoa.

Plazaz plaza jarraitu zenuen gero?

Bai, askotan kantatu nuen. Amurizaren eskolen ondoren, ni aritu nintzen bertso irakasle, norbaitek egin behar zuen-eta, eta eskolekin jarraitu genuen. 1982aren bueltan, Euskal Herriko

txapelketa etorri zenean, eskolako guztiak presentatzea erabaki genuen, ea zer pasatzen zen ikusteko. Eta, gure harridurarako, hiruk pasatu genuen lehen sailkapena. Gu poz-pozik, frogatu genuelako ez ginela hain txarrak. Bigarren bueltan ia sailkatzea lortu genuen! Sebastian Lizaso, Iñaki Murua, Millan Telleria eta Mikel Mendizabalekin kantatutakoa naiz ni; horiek sailkatu ziren, ni ez. Gero ere Euskal Herriko herriarteko txapelketa antolatu zuten, eta Santutxuren izenean presentatu ginen Joserra Bilbao, Bittor Uraga eta ni neu. Errezil tokatu zitzaigun kontrario. Hara joan ginen saio bat egitera, eta beste bat egin genuen Santutxuko kiroldegian. Justu-justu irabazi ziguten!

1987ra arte segitu nuen bertsoan, HBko mahai nazionalen kide aukeratu ninduten arte. Dedikazio handia eskatzen zidalako utzi behar izan nuen.

Iruñeko UEUko ikastaroko bertso saio batean bazterrak aztoratu zenituen. Galtza motzetan aritu zinen bertsoan, eta halaxe azaldu zinen *Argia*-n. Kritika gogorrek jaso zenituen horregatik.

Kritika terribleak, bai. Kontua da bertso ikastaroa antolatu genuela UEUko Iruñeko ikastaro batzuetan. Uda zen eta, bero izugarria egiten zuenez, ez ginen ba traje eleganteekin ibiliko. Futbolearen ere aritzen ginen, gainera, eta praka motzekin ibiltzen nintzen ni, eroso-eroso. Horregatik, bertso saioa egin genuenean, praka motzetan atera nintzen kantatzera. Ene... Errespetu falta ikaragarritzat hartu zuten batzuek! Gu kritikatzeko artikulu bat ere azaldu zen *Argia*-n.

Hurrengo urtean beste bertso saio bat antolatu genuen, eta lezio bat eman behar geniela adostu genuen: «Ez dute praka motzetan kantatzea nahi? Ba disfrazatu egingo gara». Eta horrela kantatu genuen. Oso tradizionala izaten jarraitzen zuen bertsoak.

Bertsoa epaitzeko metodo berria ere proposatu zenuten Santutxutik.

Lehen epaileek osotasunean baloratzen zuten bertsoa, eta kontra egoten ginen gu. Osotasunean eginez gero, oso subjektiboa delako. Bertsoak badu teknika bat, eta Amurizak ere bertsoaren elementuak zein diren erakutsiak zizkigun: gaia, kontaera, errima, neurria, erantzuna... Hori puntua daiteke. Gogoratu ni fisikaria naizela, eta fisikan neurtu ezin litekeena ez da magnitudea. Elementu horiek buruan erredaktatuen bertsoa baloratzeko metodologia berrirako proposamena, eta Bertsolarien Elkartean presentatu genuen. Kaka bat zela esan ziguten, bertsoa ezin zela zenbaki bihurtu, matematizatu. Erantzun hori jaso genuen. Baina, gero kopiatu egin ziguten...

Zer da zuk bereziki bertsolaritzatik maite duzuna?

Lehenengo esango dizut ahozko hizkuntza dela gizakiaren historiako asmakizunik handiena. Hitz egitea da bat-batekotasunean aritzea, eta horrek liluratzen nau. Oinez egitea bezalakoa da, pentsatu gabe egiten duzu. Baina, ez da berdina lurrean oinez egitea edo hari baten gainean ibiltzea, eta bertsotan aritzea hari gainean ibiltzea bezalakoa da. Kantuan hasi eta amaierara helduko ote den bertsolaria, sufritu egiten dut. Eta, amaitzen duenean, zer gauza ederra. Horrek harrapatu egiten zaitu.

EUSKO GUDARIAK ETA IBERDUERO

Eusko Legebiltzarreko 1980-1984ko lehen legegintzaldian HBko legebiltzarkidea izan zinen, eta, ondoren, 1995era arte, Bizkaiko Batzar Nagusietako kidea. Politikaria ez zarela diozu, ordea.

Sorreratik HBkoa izan naizenez, hauteskundeetara aurkeztu ninduten. Baina, ni ez naiz 'benetako politikaria'. Beno, ea: politikariak denak gara, egiten dugun guztiak duelako bere efektua. Baina ni ez naiz 'alderdi-gizona'. Nire bokazioa

laguntzea izan da, eta horretarako aurpegia eman behar bada, aurrera. Irudiak eta izenak balio handia dute, eta, HBren mezuarekin ados nagoenez, aurpegia ipini dut. Gainera, botazio gutxi irabazi ditut nik. Gutxiengoan egon naiz beti. Hori bai, asko eskertu didate pentsatzen nuena esatea, gero bozketetan kontrakoa ateratzen bazen ere. Horrek ez nau inoiz kezkatu, kolektiboan sinisten dudalako. Gauzak mugitzeko kolektiboak behar dira.

HB ilegalizatu ondoren ere jarraitu zenuen ezker abertzaleko alderdiei babesa ematen.

HBren ilegalizazioari erantzuteko, AuB izan zen sortu zenetako bat. Euskal Herriko proiektuarekin 'fidatzekoa' zen pertsona ezagun bat behar zuten, eta hautagai izatea proposatu zidaten. Baietz esan nuen. Hori ere ilegalizatu zuten gero. Beti ahaleginetan ibili gara, erresistitu behar izan dugu ezker abertzalean. Baina, beste asko desagertu dira eta gu transformatu gara. Jarraitzen dugu.

HBko kide zinela, Santi Brouard pediatria zenuen alderdikide. Berarekin egin zenion boikota Iberduerori, zentral nuklearren kontrako protestetan.

«Asko eskertu didate pentsatzen nuena esatea, gero bozketetan kontrakoa ateratzen bazen ere. Horrek ez nau inoiz kezkatu, kolektiboan sinisten dudalako»

Iparraldean zegoenetik ezagutzen nuen Brouard, UEUren bidez. Bilbon ere oso ezaguna zen. Gizon lasaia zen, bazuen zerbait. Laguna nuen.

HBn ginela, Iberduerori ez pagatzeko kanpaina hasi zuen Euskal Kostalde Ez Nuklearra mugimenduak. Ezker abertzaleak bultzatzea eta laguntzea erabaki zuen, eta jende askok hartu zuen parte. Iberduero

mehatxuka hasi zen, pagatzen ez zutenei argia kenduko ziela esanez. Jendea apurka etsiz joan zen, baina, parlamentariak

eta ezagunak ginenez, ez ordaintzea erabaki genuen Santik eta biok. Eutsi egin behar genuela. Hori ere bazen politika egiteko modu bat, eredu izan behar genuen. Iberduerok segidan prezintatu zigun kontadorea, eta etxean argirik gabe geratu ginen.

Hiru alaben aita zinen zu orduan.

Txikiak ziren, gainera. Alaitz zaharrena 1973an jaio zen, Maider 1975ean, eta Joana 1978an. Fardelak erabiltzen zituen txikienak, berriro garbitu behar ziren horietakoak. Baina, nire emaztea ados zegoenez, Santi Brouardena ere bai, boikota egitea erabaki genuen.

Orduan, auzoan hitz egin eta manifestazio moduko bat antolatu genuen. Kazetariak deitu eta festa giroan, txistulariekin eta biribilketan, joan ginen kaleetatik. Etxepeko kontadoreetara iritsi ginenean moztu genituen prezintoak. Denen aurrean. Eta martxan ipini genuen argindarra. Prentsan azaldu zen hurrengo egunean.

Denbora laburrerako berreskuratu zenuten argindarra, ezta?

Kontadoreak portalean daude eta prezintoak erraz moztu daitezke. Hala egin genuen guk, argazki eta guzti. Baina, Iberduerok orduan lurpetik moztu zizkigun kableak. Hori konpontzerik ez zegoen, eta hiru bat hilabetez egon ginen argindarrik gabe. Izugarrizko elkartasuna izan genuen auzoan. Bizilagunek garbitzen zizkiguten arropak, butano bat ekarri ziguten berotzeko... Pasada bat.

Egunerokoari eutsi ahal izan zenioten?

Unibertsitatera joaten nintzen lanera normal, eta etxean ere berdin segitzen ahalegintzen ginen. Gure umeentzat abentura izan zen hura. Ipuinak kontatzen nizkien kandelen argipean lehenengo, eta gero kanpingasarekin. Ni ere hala aritu nintzen lanean etxean, umeak oheratu eta gero. Saioka bat osorik halaxe idatzi nuen, gaeuz eta kanpingasarekin.

Hiru hilabetez egon ginen horrela. Gero, egoera analizatu, eta boikota bukatutzat eman genuen.

Santi Brouardekin batera ere aritu zinen Gernikako juntetxean *Eusko gudariak* abesten, 1981eko otsailaren 4an, Espainiako erregearen etorreraren protesta modura.

Hori ere bazen guretzako politika egitea, sozialki eragingo zuen politika. HBko parlamentariak ginen gu orduan, baina legebiltzarrerara ez joatea erabaki genuen, legebiltzarreraren beraren egitura, Konstituzioa, Estatutua... salatzeke. Kontra egiteko modu bat zen. Erregea Gernikara zetorrela ikusi genuenean, baina, zer edo zer egin behar genuela erabaki genuen HBko legebiltzarkideok, eta joatea adostu genuen.

Nora eta Gernikara zetorren Espainiako erregea. Esanahi bikoitza izango zuen horrek zuretzako.

Pentsa! Han egon zen nire familia osoa bonbardaketa egunean, eta, han sortua izateaz aparte, hura ere bada euskaldun guztien sinboloa. Nafarrena ere bai. Francok zergatik ez zituen Gernikako arbola eta juntetxea bonbardatu? Nafar erreketekiko errespetuagatik. Eurentzat sakratua zen Gernikako arbola. Eta begira zer kasualitate: alboko Allende Salazar karlisten jauregia eta Andra Mari eliza ere ez zituzten erre. Beste guztia bai, baina horiek ez. Karlistekiko errespetuz izan zen hori. Nire teoria da hori.

Nola erabaki zenuten erregeari *Eusko gudariak* kantatzea?

Legebiltzarkideak ginenez, juntetxera joateko gonbidapena jaso genuen. Eskubide osoko gonbidatuak ginen gu, eta horregatik jakin genuen erregea zetorrela. Onartezina zen hori: Juan Carlos errege espainiarra frankismoaren ordezkaria zen, Francok ipini zuen. Lehenago ere etortzen ziren Espainiako erregeak Gernikara, baina gure eskubideak errespetatuko zituztela zin egiteko etortzen ziren –gero nahi zutena egiten zuten, baina beno–. Juan Carlos erregea ez zetorren ezta horretara ere, eta, beraz, ez zuen zertan etorri.

Hori ikusi eta taldean erabaki genuen Gernikara protesta sinboliko bat egitera joango ginela. Zer egin pentsatzen ari

ginela, baten bati otu zitzaion hantxe, batzarrean, erregea berba egiten hasiko zen unean, guk *Eusko gudariak* kantatuko genuela. Zutik ipiniko zen gutako bat, eta beste guztiak jarraituko genion kantuan. Xabier Amuriza aukeratu genuen altxa eta tonua guri emateko.

Eta halaxe egin zenuten.

Eguna iritsi eta hantxe ginen jesarrita denak, Gernikako juntetxean. Erregea etorri zenean txaloka hasi ziren, Carlos Garaikoetxea lehendakaria eta denak. Erregea berba egiten hasi eta zas! Amuriza zutik ipini eta «Eusko gudariak gara...» [zutik ipini da eta kantari hasi da], eta atzetik gu. Oso-osorik kantatu genuen. Ezin erreakzionatu geratu ziren.

Baina, han zeuden *berroziak*. Ertzaintza sortu aurreko EAJ-ren talde berezia ziren *los Berrocis*. Arabako Berrozi ize-neko leku batean prestatzen zirelako deitzen zitzaien horrela; Ertzaintzaren ernamuina ziren. Hantxe zeuden, kaleko arropekin baina zaindari. Legebiltzarretik ezagutzen genituen, pertsona 'karratuak' eta prestatuak ziren-eta. Noizbait erreakzionatu eta izkinetatik azaldu ziren. Aulkitik airean atera ninduten, eta kalera.

«Erregea berba egiten hasi eta zas! Amuriza zutik ipini eta 'Eusko gudariak gara...', eta atzetik gu. Oso-osorik kantatu genuen. Ezin erreakzionatu geratu ziren»

Bortizki atera zintuzten?

Txikitxoa naiz, eta ni airean ateratzea ez da zaila. Behin kanporatuta, gu ere oinez trankil-trankil atera ginen eraikinaren albotik. Jendea txistuka hasi zen, besteak erregeari txaloka... Jende pilo bat zegoen han. Eta pentsatzen nuen: «Baina, hemen egoteko eskubide gehiena daukana ni naiz eta. Hemen jaiotakoa eta parlamentaria naizelako. Zergatik egiten duzue txistu... Errege hori ez da inor!».

Kanpora iritsi eta libre utzi gintuzten.

Xabier Amurizak esana du ez zuela uste gau hartan etxean lo egingo zuenik. Zuk ere hori zenuen buruan?

Planteatu ere ez nuen egin, egia esan. HBko legebiltzarkideak ginenez, babes parlamentarioa geneukan, eta sasoi hartan oraindik formak gorde egiten ziren, neurri handi batean. Giroa ere gurekiko diferentea zen. Pertzepzio soziala bestelakoa zen eta errespetua zigun jendeak. Gainera, poliziak harrapatzeko beldurrik ez baduzu, egin egiten duzu, eta lixto. Hori niregatik diot, noski.

Benetan diot, Gernikakoa esperientzia oso polita izan zen.

Beldurra aurrerago sentitzen hasi zineten?

Hasieran nik ez nuen halakorik sentitzen. Santi Brouarden heriotzaren ostean bai, noski. Norbait garbitzeko aukera bazegoela abisatu ziguten, mehatxuak eta halakoak iristen hasi zirelako. Baina, ni zuzenean ez naute inoiz mehatxatu. Santi bai, aurpegira esan zioten hilko zutela.

Egia da ez nuela tontokeriarik egiten: ez nintzen gauez ibiltzen, leku publikoetatik ibiltzen nintzen... Neurri orokorrak hartzen nituen. GALen garaia zen. Baina, ez nintzen hain 'inportantea' ere, Santi Brouard edo Josu Muguruza bezala. Muguruza, esaterako, oso pentsalari ona zen. *Egin*-en idazten zituen artikuluak analisi fenomenalak ziren; estudiatzeko irakurtzen genituen. Eta, Santirekin, berdin. Lider lasai bat zen, pausatua, ideiak oso garbi zeuzkana. Gainera, beti zegoen hantxe zu laguntzeko prest. Hala ere, egunen batean hilko zutela kontziente zen. Guk posibilitateak zituela bagenekien, Iparraldean gertatzen ari zelako. Baina, ez genbiltzan armekin, bide baketsuetatik ari ginen gu, eta ez genuen espero. Gero konturatu naiz igual eurentzat 'arrikutsuagoak' ginela gu.

Mehatxuak bete ziren: 1984ko azaroaren 20an hil zuten Santi Brouard.

Beldurgarria izan zen. Hainbeste maite genuen, eta mugimenduan ere hain eragin handia zuen... Gainera, nor eta

Santi? Eta zer eta modu horretan, mediku kontsultan? Buru aldrebasa eduki behar du hori egiteko gai denak...

Hala ere, beldurra pasatu bai, baina kontrolagarria izan da. Horrekin esan nahi dut lehenagotik pasatua nuela nik beldurra, torturengatik-eta, eta beldurrari kontra egin behar zaiola ikasi nuen, agoantatu egin behar dela gauzak ondo egin nahi badira.

Kartzelatua ere izan zarenean, berdin?

Bi aldiz egon naiz kartzelan eta aldi bakoitzean bost bat egun besterik ez. Basauriko eta Langraizko kartzeletan egon nintzen, eta bietan oso ondo pasatu nuen. Ironia pixka batekin diot, noski. Zortea eduki dut, oso pertsona ezagunekin egon naizelako espetxean: Telesforo Monzon, Jon Idigoras, Santi Brouard bera, Miguel Castells... HBko konturen batengatik sartu ninduten lehenengoan Basaurikoan, historiko guztiekin. Gure artean mediku bat zegoela konturatu zirenean, errespetu izugarritz tratatzen gintuzten presoek. Santi kontsulta pasatzen hasi zen kartzelako egongela handi batean. Fakultateko Jose Antonio Madariaga dekanoa eta Anibal Hernandez idazkaria ere etorri zitzaizkidan bisitan, Basaurin nengoela.

Langraizkoa diferentea izan zen. 1979. urtea zen, eta Bizkaiko Diputazioaren egoitzan itxialdia egin genuen HBko hautetsiek. Gaua pasatu, eta goizean atera gintuzten. Eta atera bezain pronto joan ginen Donostiara, itxialdiarekin jarraitzeko. Handik ere atera, eta Gasteizera. Eta handik Langraizko kartzelara eraman gintuzten. Epaitegira eraman gintuztenean, euskaraz deklaratu genuen. Eta, jakina, gure burua defendatu ezinik itzuli ginen kartzelara.

Beste hainbestetan atxilotu zaituzte, kartzelatu ez arren.

Ez dakit zenbatetan! Bakarrik unibertsitateko kontuekin, hoguei prozesu judizial baino gehiago izan ditut. HBkoa iza-tegatik ere beste hainbeste. Atera kontuak.

LEIOA, BEHIN-BEHINEKO ETXE

Politikan nola, unibertsitatean ere buru-belarri ari zinen lanean. Euskal lerroa martxan ipini zenuten 1978an, eta euskarazko materiala sortzen zenbiltzan. Gainera, tenore horretan ere prestatu zenuen zuk tesia. Egunak 24 ordu ditu, baina.

Tesiarekin zortea eduki nuen. Juan Mari Agirregabiria zen nire lankidea, fisikari teoriko modura bikaina, eta bere laguntzari esker egin nuen tesia. Beti esaten dut hori: tesi on bat egiteko, zuzendari on bat behar duzu, eta berari esker egin nuen nik. Hainbeste saltsatan sartuta, bestela, inposiblea da.

Bigarren Hezkuntzako materiala idazteari utzi behar izan zenion.

Bai, utzi nuen, eta unibertsitaterako materialak sortzen jarraitu nuen. Egun osoa unibertsitatean geratzea erabaki nuen

«Narcís Serra, Alfredo Pérez Rubalcaba, Javier Solana... Horiekin ibilita nago ni. Madrilera joaten nintzen batzarretan parte hartzera, eta halakoekin elkartzan nintzen»

horretarako. Baziren irakasle batzuk klasea eman eta alde egiten zutenak. Ni ez: goizean autoan Leioara igo, han bazkaldu eta arratsaldean bueltatzen nintzen etxera. Ze, leku batean bazaude eta aktiboa bazara, egunak gauza askotarako ematen du. Gainera, bertako kontuez enteratzeko modu bakarra da hori. Irakasleekin informazioa trukatzeko leku

pribilegiatua da unibertsitatea, eta ikasleek ere gauza oso interesgarriak planteatzen dizkizute. Horregatik esaten dut ni unibertsitatean 'bizi' izan naizela.

Etxetzat duzun Leioako campusean aski borroka gogor eta luzea izan duzu.

Bai, pentsa. 1971n hasi nintzen irakasle laguntzaile eta 1992ra arte egon nintzen irakasle ofizialki Leioako Zientzia Fakultatean. Gero, kanporatu ninduten, 2007ra arte.

Behin-behineko kontratuengatik hasi zenituen protestak.

Unibertsitatean lanean ginen irakasleen gehiengoa PNN izenekoak ginen. Hau da, *Profesores No Numerarios*. Horrek esan nahi du behin-behineko kontratuarekin geundela, eta bi urtetik behin berritu behar izaten genuela kontratua. Funtzionarioak ere bazeuden unibertsitatean, baina gehienok behin-behineko egoeran geunden.

Franco ahul zegoela, PNNen mugimendu oso inportantea egon zen Espainia osoan, 'El movimiento de los PNN' deituta. Espainia osoko unibertsitateetako irakasleek hartu zuten parte, nik ere bai, eta lan kontratu duina behar genuela aldarrikatzen genuen. 1973-1974 urte inguruan hainbat greba eta mobilizazio egon ziren, unibertsitate guztietan. Espainiako irakasle 'progresista' guztiek parte hartu zuten, ideia ezkertiarak zituztenetako askok. Horien artean gero ministro izango zirenak zeuden: Narcís Serra, Alfredo Pérez Rubalcaba, Javier Solana... Horiekin ibilita nago ni. Madrilerara joaten nintzen batzarretan parte hartuz, eta halakoekin elkartzten nintzen.

1975ean Franco hil zenean etorri ziren aldaketak. 1977an PSOE boterera hurbildu, eta hortik aurrera praktikoki desagertu egin zen mugimendua, PSOE eta PC ingurukoak funtzionario izatera pasatu zirelako. Gainera, 1978ko Espainiako Konstituzioa onartu zenean, funtzionario guztiek zin egin behar izaten zioten Konstituzioari. Keinu sinbolikoa da, ados, nahi duzuna, baina Konstituzioa onartu behar zen funtzionario izan nahi bazenuen. Problema sortu zituen horrek, non? Katalunian eta Euskal Herrian.

Bi lurralde horietan jarraitu zuen behin-behineko irakasleen protestak?

Jarraitu zuen, bai, baina, aldi berean, beste errebindikazio batzuk batu zitzaizkion. Euskal Herriko unibertsitate bat

behar genuela eskatzen hasi ginen, eta lehenagotik zetozen bi mugimendu abiatu ziren. Euskara unibertsitatean sartzeko mugimendua sortu genuen, alde batetik. Gehienak UEUren bueltan ibilitakoak ginen, euskarazko unibertsitatea sortzea zelako UEUren helburua. Eta, bestetik, Nafarroa barne izango zuen 'Euskal Herriko unibertsitate barrutia' eskatzeko beste mugimendua sortu zen. Mugimendu horrek ez zuen euskararen eta hizkuntzaren ikuspegia kontuan hartzen. 'Universidad Vasca' moduko bat nahi zuten, hizkuntza oinarrian hartu gabe. Ez ziren euskararen kontrakoak, baina ez gentozen haien ereduarekin bat. Koldo Mitxelenak berak ere eredu hori eskatzen zuen, esaterako. Euskararen alde lan izugarria egin du Mitxelenak, zalantzarik gabe, baina, unibertsitatean ez zuen halakorik eskatzen, eta gu ez ginen berarekin ados. Horregatik ez genuen errektore izateko babestu. Eusko Ikaskuntzakoak ere eredu horren aldekoak ziren.

Hala ere, unibertsitatean nahasian ibiltzen ginen. Azken batean, guri kontra gehien egin digutenak PC eta PSOE alderdikoak izan dira.

Zergatik?

PSOE eta PC alderdi ingurukoak funtzionario sartu ziren. Baina, Espainiako funtzionario izan nahi ez zuen kolektibo handi batek jarraitu zuen unibertsitatean. Irakasle gazteak ginen gehienak. Eta kontra egin genien.

UEUn ibiltzen ginen batzuk mugitzen hasi ginen irakasle kolektibo hori formulatzeko. Koldo Gorostiaga jurista irakaslea izana zen Katalunian, eta hango esperientzia baliatu genuen irakasle propioaren eredu formulatzeko. Horren arabera, Euskal Herrian erabaki behar zen irakaslearen sistema, eta ez Madrilen, funtzionarioekin gertatzen zen bezala. Gainera, irakasle izateko zergatik egin behar nion nik zin Konstituzioari? Irakasleak librea izan behar du, bere pentsamendua espainola izan edo ez, edozein ideologiatakoa izanda ere. Eskatu behar zaion gauza bakarra da irakasle ona izatea. Horregatik ere hierarkiarik gabeko sistema bat

eskatzen genuen. Funtzionarioak oso hierarkizatuta daude, eta guk ez genuen eredu hori errepikatu nahi.

Hori guztia bateragarria zen bai Euskal Herriko unibertsitatearen barrutiaren aldeko mugimendurekin eta bai UEUK eskatzen zuen euskarazko unibertsitatearekin. Azken

batean, unibertsitate euskalduna eta nazionala nahi genuen, eta hori bat zetorren irakasle propioaren formulazioarekin.

«Unibertsitate euskalduna eta nazionala nahi genuen, eta hori bat zetorren irakasle propioaren formulazioarekin»

Noiz arte jarraitu zenuten lanean, funtzionario bihurtu gabe?

1987ra arte. Irakasleen erdiak behin-behineko egoeran jarraitzen genuen, eta kontratu duinago bat proposatzen hasi ginen: behin betikoa izango zena eta Euskal Herriko Unibertsitateak egindakoa, bertokoa. CCOO eta UGT sindikatuetakoak kontra zeuden, noski. Denok funtzionario izan behar genuela esaten zuten.

1987an, baina, zirt edo zart egitea erabaki genuen, eta aldi baterako kontratuak berritzeari uko egin genion: ez genuen berriro kontratu berri bat sinatuko, genuenarekin nahikoa zen. Oso haserre geunden. Irakasle askok hamar urte baino gehiago eginak genituen irakasle moduan, baina bi urtero berritu behar izaten genituen kontratuak, eta sinatu gabe ere irakasleak finkoak ginela esaten hasi ginen, legeak horrela adierazten zuelako.

Ordurako EHU abian zegoen. EHUrekin ez zen posible halako kontraturik?

Ez zieten uzten. Hori egiteko funtzionarioa izan behar zenuela esaten ziguten. Beraz, 500 bat irakaslek plantoa egin genuen: «Kontratu berria eta behin betikoa izan arte, ez dugu sinatuko». Eta lanean jarraitu genuen berdin-berdin, kontraturik gabe.

LAB sindikatuko ordezkaria ere bazinen sasoi hartan.

Sorreatik izan nintzen LABekoa, unibertsitatetik kaleratu gintuzten arte. Sindikatuek ez gintuzten azken momentu horretan babestu; gehiengoaren alde ari zirela esaten zuten, baina ez zen justua. Eta hor apurtu nuen sindikatuarekin. Hori beranduago izan zen. Baina lehen protestetan, bai. Sindikatuko eta behin-behineko irakasleen kolektiboko ordezkaria izan nintzen.

Borroka hori epaitegietara eraman zenuten 200 bat irakaslek.

Jose Mari Sarasibar Iraizoz abokatua ezagutu genuen. Lantzekoa da, burugogorra bezain jatorra. Eta epaiketa kolektiboa egitea onartu zuen. 225 irakasle apuntatu ginen unibertsitatea epaiketara eramateko eta gure behin-behineko kontratuak legez kanpokoak zirela salatzeke. Hasierako 500 irakasle haietatik erdia baino gutxiago geratu ginen, beraz. Jende askok egin zuen atzera, kontratua ez sinatzerakoan unibertsitatetik kanporatua izateko arriskua zenuelako. Baina, batzuek eutsi eta epaiketara eraman genuen unibertsitatea. Eta irabazi egin genuen Bilboko epaitegian: behin-behineko egoeran ginen irakasle guztiak unibertsitate barrura sartu ahal izan genuen horri esker.

Irabazi bai, baina EHUKo errektoretzak ez zuen epaia onartu.

Errekurtsoa ipini zuen berehala, eta Madrilgo epaitegietara pasatu zen auzia, otsoaren etxera. Kolektiboko ordezkaria nintzenez, epaiketa guztia segitu nuen. Lotsagarria izan zen. Auzitegi Konstituzionalean magistratu izandako abokatu batek egin zuen unibertsitatearen defentsa. Beno, defentsa egin-edo. Lotsagarria izan zen, ez zuen ezer ere esan. Baina, Auzitegi Gorenak arrazoia eman zion eta unibertsitatetik kanpo utzi gintuen.

Hala ere, unibertsitatean lanean jarraitzea erabaki zenuen, kontraturik eta babes legalik gabe.

Klaseak ematen geunden-eta epaia atera zenean. Ikasturte osoan jarraitzea erabaki genuen. Normal-normal egin genituen azterketak. Ikasleak gogor borrokatu ziren gure alde. Unibertsitatetik esan zieten ez aurkezteko gure azterketetara, ez zutela baliorik, baina gureetara etortzen ziren. Eta, azkenean, guk sinatutako aktak baliotzea lortu genuen. Kobratu gabe egin genuen lan hori, ikasturtea bukatu bitarte sei bat hilabetetan.

1989an berriro ere beste kontratu bat sinatzeko aukera eskaini zizuen errektoretzak.

Astoari makila eta azenarioa ipintzen zaion moduan, amua ipini ziguten. Eta horixe bera izan zen: etsitzeko 'azken aukera'. Gu ez geunden hori onartzeko prest, sinatuz gero urtetako eskubideak galtzen genituelako, eta ordura arte lortutakoa ezerezean geratzen zelako.

Errektoretzari proposamen berria egin genion orduan: ez ardo ez ur izango zen beste kontratu bat, 'alegala' izango zena eta irakasle propioaren moldeetan emana.

Errektoretzak zer esan zion proposamenari?

Berean jarraitu eta estutu egin gintuen. Azkenean, hamabi irakaslek izan ezik, gehienek sinatu zuten eskainitako kontratua. Zergatik? Izuagatik, nire ustez. Kalera joango ginela mehatxu egin ziguten, eta nik ere kostata hartu nuen erabakia. Ez zen erraza. Botazioa egin genuen, sinatu edo ez erabakitzeko, eta sindikatuak sartu ziren tartean. Sinatzeko gomendatzen ziguten, eta horixe erabaki zuen gehiengoak, kontratuak sinatzea. Batzuek, baina, ez zutela men egingo esan zuten.

Dilema izugarria eduki nuen orduan. Alde batetik, sindikatuko kidea nintzen, baina, kontratuari uko eginez gero, sindikatuaren kontra egingo nuen. Eta, bestetik, sinatuz gero, bakarrik utziko nituen lankideetako batzuk, eta horrekin ere ez nengoen ados. Azkenean, emaztearekin komentatu, eta ez sinatzea erabaki nuen, nire printzipioen kontrako

traizio bat izango zelako. Unibertsitateko irakasleen artean eta euskararen borrokan oso ezaguna nintzen, nola egingo nuen nik atzera... Eta, gehiengoak hartutako erabakiaren kontra, hamabi irakasleek uko egin genion errektoretzaren proposamenari.

Azken bozketa hori egin baino lehen, protesta jendetsuak egin zenituzten: grebak, manifestazioak, itxialdiak...

Errektoretzan egin genuen itxialdi batean kolpe izugarria eman zidan poliziak. Errektoretzako bulegoetan sartu eta han geratu nahi genuen, protesta baketsuan. Baina, Ertzaintzari deitu zioten. Franco hil

zenetik aurrenekoz sartu zen Ertzaintza unibertsitatean.

Errektoretzako eskaileretan nengoela, bat-batean, buruan jo ninduten. Bola handi moduko bat atera zitzaidan kopetaren albo batean, eta jende guztia negarrez, «Joserra, zer egin dizute!». Kolpea izugarria

izan zen, oso leku arrisksuan, hiltzeko ere. Gainera, zer eta itxialdia egiteagatik horrela ni jo? Eta non eta unibertsitatean? Begira zer erantzun jaso genuen.

«Egia esan, guk ez genuen pentsatzen hainbeste luzatuko zenik kontua. Unibertsitatean berriro sartzeko esperantza genuen»

BULEGOA BIZILEKU

Unibertsitateko kontratuari uko egin zenioten hamabi lagun horiek jarraitu zenuten protestan.

Egia esan, guk ez genuen pentsatzen hainbeste luzatuko zenik kontua. Unibertsitatean berriro sartzeko esperantza genuen. Horregatik, soldatarik gabe eta kontua luzatzen ari zela ikusita, hiruk atzera egin zuten, hilabetera. Gera-tutako bederatzi irakasleok klaseak ematen jarraitu genuen

1991-1992ko ikasturtean. Hurrengo ikasturtean beste hiru jausi ziren, eta, azkenean, sei geratu ginen, ez aurrera ez atzera.

Zure bulegoan itxialdia egitea erabaki zenuen orduan?

Urtebete zen gure protesta hasia zela. Nik neure klase guztiak ematen nituen, berdin-berdin, ez zutelako gure lekuan inor ere kontratatu. Beraz, egoerak bere horretan jarraitzen zuen. Hori ikusarazteko, bulegoan itxialdia egitea pentsatu nuen. Emaztearekin adostu, eta hala egin nuen. Klaseak emateko bakarrik ateratzen nintzen bulegotik.

1992-1993ko ikasturte osoa pasatu nuen horrela, 200 egun zehazki. Estera eta lo-zakua ipini nituen bulegoan, eta irakasle gelan bazkaltzen nuen egunero. Jende askok lagundu ninduen. Irakasle asko gure kontra ipini ziren, baina beste asko gure alde. Erresistentzia kutxa sortu zuten, eta geologo talde batek egunero ekartzen zidan bazkaria Leioako Herriko Tabernatik. Ehun egun egin nituenean, Koldo Gorostiak ere itxialdia egitea erabaki zuen Donostiako Zuzenbide Fakultatean. Hango irakaslea zen bera, eta ehun egun egin zituen bulegoan protestan.

Familia ere joaten zitzaizun bisitan?

Asteburu guztietan etortzen zen familia osoa, Lore emaztea eta alabak. Eta lagunak ere etortzen ziren bisitan edo nirekin bazkaltzera. Solidaritate izugarria izan nuen. Bi aldiz bakarrik utzi behar izan nuen bulegoa: ama gaixotu eta txarto ipini zenean, bata, eta ama hil zenean, bestea; Eibarrera joan nintzen familiarekin egotera, eta irakasle batzuk geratu ziren nire bulegoan. Bestela, Gabonak ere unibertsitatean ospatu nituen Santutxuko kuadrillarekin.

Ehunka bisita jaso nituen, baina lanerako ere tartea izan nuen. Ze, bulegoan bakarrik nengoenean, irakurri eta idatzi egiten nuen. *Fisika orokorra* liburuko marrazki guztiak egin nituen, eta teoria fisikoaren oinarrien inguruko hausnarketa bat ere egiteko aprobetxatu nuen beste liburu bat idazteko.

Nik uste hiru bat liburu idatzi nituela itxialdiak iraun zuen bitartean. Itxialdia emankorra izan zen.

Itxialdiko 200 egun horiek pasatuta, protesta gogortzea erabaki zenuen gose grebarekin. Zergatik?

Ikasturtea bukatzera zihoan, eta esan nien lankideei: «Auzi hau konpondu behar dugu, uda ezin dugu hemen pasatu». Gose greba mugagabea egingo nuela esan nien kanporatu-tako hamabi kideei. Konforme zeuden.

Errebindikazio sinple batekin hasi nuen gose greba: errektoretzarekin negoziatu nahi genuen geure egoerari soluzio bat emateko. Negoziatzea besterik ez genuen eskatzen.

Aste bat pasatu zen, eta ezer ere ez. Bi aste pasatu ziren, eta errektoretzatik erantzunik ez. Egun bakoitzean kilo erdi baino gehiago galtzen nuen, eta azken partean mareatu ere egiten nintzen. Gorputza 'jaten' egon nintzen.

Tarte horretan jende piloak etorri zen unibertsitatera babesa erakustera, eta bertso saioak eta halakoak antolatu zituzten.

Hemezortzi egun eman zenituen gose greban.

Azken egunetan oso makal nengoen, eta kezkatzen hasi ziren. Errektoretza presionatzen hasi ziren unibertsitateetik, eta bitartekari bat eskatu zioten orduko Ignazio Etxeberria unibertsitateko gobernu kontseiluko buruari. Etorri zitzaidan, eta gose greba uzteko eskatu zidan irakasle lagun baten bitartez. Baina, nik ezetz, «serioski negoziatzen ez baduzue, jarraituko dut». Ignazio Etxeberriak proposamena egin zidan orduan: gose greba utzi, etxera deskantsatzera joan, eta osatzerakoan negoziatuko genuela hitz eman zidan. Onartu nuen, eta hitza bete zuten.

Negoziazio hura ezerezean geratu zen, baina.

Bilboko Gizarte Kontseiluaren egoitzan elkartzan ginen negoziatzeko. Lehen aipatutako ez ardo ez ur zen kontratu hori hartu genuen oinarri moduan, eta kontratu finkoa negoziatu eta onartu genuen. Beste irakasleen maila berean ipintzen

gintuen horrek, eta gerorako zirrikitu bat zen. Sinatuta, Gizardte Kontseiluko kutxa batean gorde genuen akta.

Akordio hori unibertsitateko kontseiluan ere onartu behar zen bozketa bidez. Eta begira zer gertatu zen: gobernuaren eta unibertsitateko buruen kontra egin zuten Alberto Lopez Basaguren konstituzio zuzenbideko irakasleak, Pedro Luis Arias Ergueta ingeniari kimikoak eta Pello Salaburu hizkuntzalariak. Bozketan altxatu egin ziren hirurak eta kontra bozkatuko zutela esan zuten publikoki. Errektoretzaren eta gobernuaren akordioaren kontra azaldu ziren. Eta horregatik galdu genuen botazioa. Kontratu gabe geratu ginen, kalean.

Zergatik uste duzu egin zutela zuen kontra?

Estatuaren errepresentateak izan ziren, nire ustez. PSOE ingurukoak ziren, eta euren ideologiaren arabera jokatu zuten, errektoretzaren akordioaren aurka. Ezin zuten permititu Euskal Herriko sistema unibertsitarioak kontratu diferentea edukitzea, eta horregatik egin zuten egin zutena. Estatuaren alde ipini ziren.

Zuen kontrako jarrera ere hedatzen ari zen unibertsitatean.

Bulegoan itxita nengoela, artikulu bat argitaratu zen *Egin*-en esanez ez zegoela eskubiderik unibertsitateak ni horrela tratatzeko, eta nire saileko Alberto Chamorro buruaren portatera salatzen zuen. CCOOkoa zen Chamorro, oso espainola; ni oso ondo konpontzen nintzen berarekin, egia esan. Baina, bere izena *Egin*-en azaltzea ETaren mehatxutzat interpretatu zuten. Hurrengo egunean bizkartzaina ipini zioten, ni gose greban nengoen bitartean. Eta presio itzelak eduki nituen: *Egin*-eko artikulu hura publikoki desautorizatu behar nuela esaten zidaten.

«Ezin zuten permititu Euskal Herriko sistema unibertsitarioak kontratu diferenteak edukitzea, eta horregatik egin zuten egin zutena. Estatuaren alde ipini ziren»

Hauxe pentsatu nuen nik: «Bat: artikuluan esaten dena egia da. Bera mehatxatuta sentitzen da, ados, baina hori bere problema da. Eta bi: nire alde idatzi duten zerbaiti kontra egingo diot nik? Zergatik? Gauza justu bat eskatzen ari naiz, eta niregatik kezkatu beharrean, Chamorrogatik kezkatzen dira?». Ezer ez esatea erabaki nuen, horri buruz niri ez zegokidalako ezer ere esatea. Presio izugarriak izan nituen.

Horrek gaiztotu zuen giroa?

Ordura arte sailean oso jator portatu ziren nirekin, baina ordutik aurrera ia denek etsaitzat hartu ninduten. Gose greba utzi eta etxean deskantsatzen nengoela, nire bulegoa hustu egin zuten, niri ezer esan gabe, eta beste eraikin bateko gela batean giltzapetu zituzten nire paper eta gauza guztiak. Niretzako eraso jasanezina izan zen hori. Hortik aurrera, unibertsitatean sartzeko zailtasunak izan nituen, eta beste pertsona bat kontratatu nahi izan zuten nire lekuan. Hor hasi ginen karteltxoak ipintzen eskirolak salatzeke.

Unibertsitatera sartzan jarraitu zenuen, hala ere.

Hasieran klase guztietara sartzan ginen. Irakasle batek bere bulegoa utzi zidan eta mahai tolesgarri horietako batean prestatzen nituen klaseak. 1993-1994ko ikasturtean egin zuen egoerak okerrera.

Egun batean guarda batzuk klasean sartu eta arrastaka atera ninduten. Segurtasun enpresa bat kontratatua zuen unibertsitateak, eta hiruren artean eraman ninduten. Kalera atera berri, ez dakit zelan okurritu zitzaidan baina euren eskuetatik askatu eta auto baten azpira bota nuen nire burua. Orduan bai iskanbila! Autoaren ihes-hodiari helduta eta gurpilekin babestuta, ezin ninduten atera. Ertzainei deitu behar izan zieten.

Jende asko elkartu zen zure inguruan?

Espektakulu izugarria sortu zen. Jendea autoaren inguruan ipini zen, batzuk goiko partean, alboko zubian, leihoetan... guardak inguratuta geratu ziren. Etorri ziren ertzainak eta

berdin. Hortik irten behar nuela esan zidaten, eta nik ezetz. Euskaraz, gainera. Ze ertzainen burua euskalduna zen. Eta hauxe esan nion: «Zu, gauzatxo bat esango dizut: guarda hauek indarka atera naute klasetik eta joka aritu direlako sartu behar izan dut auto azpian; babesteko sartu naiz. Zuk egin behar duzuna da ni babestu, guardek erasotu nautelako. Eta, ostera, zu zaude hemen ni erasotzeko?». Seko geratu zen ertzainburua.

Hasieran ez ziren ausartu ni autoaren azpitik ateratzen. Gero eta jende gehiago ari zen inguratzen, irakasleak ere bai; denak Ertzaintzari kexuka, eskubiderik ez zegoela esanez.

Kontua luzatzen ari zela ikusita, tiraka hasi eta autoa altxatzen ahalegindu ziren, lau bazterretatik bultzaka. Halako batean, autoa altxatu eta askatu zutenean kolpe izugarria eman zidaten. Beldurtu egin nintzen, beste halako kolpe batekin hilko ote ninduten, eta hor esan nuen: «Beno, gero ere aterako naute. Beraz, ni neu aterako naiz autoaren azpitik». Eta hala egin nuen.

Une horretan atera zizuten gero hedabideetan ikusi zen argazki ezaguna.

Argazki horretan ikusten da nola atera ninduten, bai. Alkandora apurtuta neukan, guardek apurtuta. Eta zikin-zikin nengoen auto azpian egoteagatik. Alboan dagoena da ertzain euskalduna. Atera nintzenez barkamena eskatu zidan: «Joserra, ez dakit nola egin dugun hau...». Auto azpitik atera eta hortxe amaitu zen kontua.

Unibertsitatean sartzea debekatu zidaten, niri eta sinatzeari uko egin genion guztioi.

PANKARTAKO ZUZENTZAILEA

Ezin unibertsitatera sartu, atarian pankartarekin protesta egitea erabaki zenuten.

Denek ikusteko moduko lekua aukeratu genuen, unibertsitatearen sarrera, eta pankarta ipinita izan ginen egunero-egunero han, 2007. urtera arte.

Zein zen zuen egunerokoa?

Ordutegi normala egiten genuen. Zortzietarako pankartaren atzean ginen, unibertsitatera etortzen ziren guztiak gu ikusteko. Prentsa guztia irakurtzen genuen, gure artean eztabaidatu, eta 10:30ak inguruan campus alboko baserri-tabernara joaten ginen kafetxo bat hartzera. Eta berriro buelta, 13:00ak arte. Bazkaldu eta arratsaldeko txanda, 17:00ak arte-edo.

Pankartan zinenen bestelako lanetan ere aritu zinen.

Bai, denok. Asko idatzi genuen egunkarietan, esaterako. Baztuetan kolektiboki sinatuta, besteetan pertsonalki. Nikolas Xamardok asko idazten zuen. Berak gazteleraz eta nik euskaraz idazten genuen. Sasoi hartan ere gure pankartaren mugimenduaren inguruko liburua idatzi genuen, gazteleraz; nik gazteleraz idatzi dudan liburu bakarra. Bide batez, Nikolas erabat euskaldundu zen pankartan eta klaseak euskaraz ematen erretiratu zen unibertsitatetik.

UEUn ere segitu nuen lanean, normal-normal. Fisika Sailaren arduraduna nintzen, eta ikastaroak antolatzen eta liburuak idazten eta itzultzen ibili nintzen. Garai horretan ere zuzenketak egiten hasi nintzen. Lehenagotik ere egiten nituen, baina, pankartan denbora nuenez, testu gehiago bidaltzen zizkidaten. Hantxe, zutik ipinita, testuaren kopiarekin eta boligrafoarekin egiten nituen zuzenketak. Liburu pila bat zuzendu ditut nik horrela.

Zuzentzaileen irakasle ere bihurtu zinen.

Zuzentzaileak ze inportanteak ziren konturatu nintzen, eta UEUrekin ikastaro bat 'asmatu' genuen. Bilboko UEUren egoitzan egiten genituen mintegiak. Boluntarioak ziren, interesa zuena etortzen zen.

Testu bat hartu eta zuzendu egiten nuen ikasleen aurrean. Gero, eurek nahi zuten moduan zuzentzeko eskatzen nien, eta nik ondoren zer egingo nukeen azaltzen nien. Sasoi hartan ez zegoen Euskaltzaindiaren hiztegi baturik, eta dena eztabaidatu behar zen. Baina, beti esan diet koherentzia dela

inportanteena. Puntuazioa eta esaldien ordena ere oso inportanteak dira, noski. Horrelako gauzak azaltzen nizkien.

Zehaztasuna ere izugarri garrantzitsua da zuretzat, bai zuzentzaile gisa eta baita dibulgetzaile moduan ere.

Zalantzarik gabe. Zuzentzen ari naizela, esaterako, esaldi bat irakurri eta ez badut ondo ulertzen, egileak ea zer esan nahi izan duen pentsatu behar izaten dut. Zuzentzaileak interpretatu egiten du testua, eta esaten ahalegindu dena zer ote zen zehaztu behar du. Zehaztasuna oso inportantea da.

Zuretzat horretan Joan Mari Irigoien idazlea da maisu.

Harritu egiten naiz ze ondo ipintzen dituen puntuazioak, komunztadurak... Berriro ere beraren libururen bateko pasarte bat irakurtzen badut, disfrutatu egiten dut. Hain da zehatza!

Zure burua idazletzat duzu?

Laura Mintegik konbentzituta eman nuen izena Euskal Idazleen Elkartearen. Egia da liburu eta artikulua asko idatzi ditudala. Baina, ez dut nire burua idazletzat.

UNIBERTSITATERAKO ITZULERA

Hamabost bat urte eman dituzu pankartan protestan, 2006an EHUra itzultzeko zirrikitua zabaldu zen arte.

‘Iztueta legea’ oso inportantea izan zen. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua zen Anjeles Iztueta, eta gure irakasle propioaren oinarriak bildu zituen Euskal Unibertsitate Legean. Nirekin klaseak emanak zituen Iztuetak, eta konfiantza giroa sortu zenez, ‘batzuekin’ hitz egi-teko aukera egon zen. Hori bai, gose greba batzuen ostean. Nikolas Xamardok egindakoa determinantea izan zen horretarako. Berba egiten hasteko ona izan zelako, alde batetik, eta, bestetik, pankartaren zatiketa ‘edukatu’ ekarri zuelako.

«Ikustea horren
bultzatzaileak geu
izan garela, utopia
aktibo batean eta bizi
proiektu bat arriskatuz,
izugarria da. Hori da
nire sentrazioa: merezi
izan duela egin dugun
ahaleginak»

Kontua da guk gose grebak egiten jarraitu genuela urte horietan, txandaka. Horretarako karabana bat ipini genuen unibertsitatearen ondoan. Nikolasek gose greba egin nahi zuela aipatu zuen. Baina, eztabaida piztu zen gure artean: batzuk kontra zeuden, beste batzuk alde. Ni alde. Hor 'apurtu' zen pankarta. Batzuk bakarrik babestu genuen Nikolas Xamar-do, berarekin lo egiten eta karabanan. Pankartan elkarrekin baina banatuta jarraitu genuen.

Ordurako 'Iztueta legea' martxan zegoen Legebiltzarrean, eta gose grebak agintari batzuen jarrera aldatu zuen. Bestelako giroa zegoen. Legea, gainera, onartu egin zen, eta Euskal Herriko Unibertsitatean irakasle propioa izateko aukera zabaldu zuen.

Baina Madrilek atzera bota zuen 'Iztueta legea'.

PSOE konturatu zelako legearen garrantziaz. Errekurtsoa ipini zuen. Baina, kendu zuen gero. Badakizu noiz? José Luis Rodríguez Zapatero Espainiako gobernuko presidentea zela, ETAk su-etena iragarri zuenean. Guk ez genuen PSOErekin hitz egin edo halakorik, baina, errekurtsoa kendu zuten. Baliteke tentsioa lasaitzeko egin izana. Kontua da horri esker bihurtu zela legea finko.

Eta horri esker unibertsitatera itzultzeko aukera izan zenuen.

Momentu egokia zela uste genuen pankartako batzuek. Beste batzuek ez. Eta, momentua zela pentsatzen genuenok, berba egiten hasi ginen agintariekin. Ze guretzako propio egindakoa zirudien atala zuen legeak: unibertsitatean lan egin eta gero kanpoan egon zirenak itzultzeko aukera eskaintzen zuen legeak. Hori bideratzeko pausoak eman ziren, eta, giro ona

zegoenez, unibertsitateko gobernu kontseiluak onartu zuen proposamena. Maiatzean paperak presentatu eta 2007ko irailean sartu ginen ofizialki unibertsitatean.

Nola sentitu zinen ofizialki itzuli zinenean?

Poz izugarria. Begira, gauza bat esango dizut: guk proposatu-tako irakasle propioaren ideia jasotzen zuen 'Iztueta legeak', ez guztia baina ia dena, eta hori jakitea, horren partaide izateko zoria izan dugula kontziente izatea, izugarri pozgarria da. Funtzionario izan gabe eutsi zieten irakasleak ere horri esker sartu ahal izan dira unibertsitatean. Ikustea horren bultzatzaileak geu izan garela, utopia aktibo batean eta bizi proiektu bat arriskatuz, izugarria da.

Esan didate askotan: «Bai, lortu duzue irakasle propioarena, baina begira zer kostu pertsonalarekin». Ados, kostu terriblerekin. Hamabost urte egon naiz unibertsitatetik kanporatuta. Baina, borroka batean kontzienteki sartzen bazara, badakizu kostu bat izango duzula. Nik hori erabaki nuen, arriskua egon bazegoela asumitu nuen. Onartu ez, baina asumitu bai. Eta horren alde jokatzea erabaki nuen. Eta merezi du. Ahalegin horrek fruitua eman du. Ni onuraduna izan naiz, baina batez ere eredu hori dago orain beste guztientzat. Hori da nire sentsazioa: merezi izan duela egin dugun ahaleginak.

Zientzia Fakultatera beharrea, Ingeniaritza Eskolara itzuli zinen euskara teknikoko klaseak ematera. Zergatik?

Itzultzeko aukera eskaini zidatenean, zer egin zalantza izan nuen. Gure eskaeren arabera, norbere sailera itzuli behar genuen, *berrintegratzen* ginelako. Baina, *Egin*-eko artikuluz geroztik nire kontra zeuden Fisika Teorikoa saileko irakasle asko. Ez denak, baina bai asko. Hala ere, Fisika sailean sartzearabaki nuen.

Nire kontrako erreakzio izugarria sortu zen sailean. Gutun latz bat idatzi zuten saileko hiru irakaslek, gutxi gorabehera esanez 'terrorista bat' unibertsitatera bueltatzekoa zela, hamabost urtez ikerketa berezirik egin ez zuena, eta karga terriblea izango

nintzela sailarentzat. Estatuko fisika sailalara bidali zuten gutuna, EHUra hori gaitzetsiz idazteko eskatzen. Leku askotara iritsi zela uste dut. Euskaraz, gazteleraz eta ingelesez idatzi zuten. Ni enteratu ez eta fakultateko irakasle bat etorri zitzaidan gutunarekin: «Joserra, begira zer astakeriak idatzi dituzten zuri buruz. Gezurra dela erantzun behar diezu». Berrero ere errepikatzen zen egoera. «Nik idatzi? Zertarako. Eurek jakingo dute zer dioten. Hori pentsatzen badute nitaz, ezin dut ezer egin. Ez ditut konbentzituriko». Eta, beraz, ez nuen erantzun, hamabost urte lehenago *Egin*-eko artikuluekin egin bezala.

Horren efektua hauxe izan zen: Zientzia fakultatekoak presteuden ni eurengana joateko, eta Ingeniaritza Eskolakoak ere berdin. Euskara teknikoak ikasgaia emateko proposamenak egin zitaten ingeniaritzakoek. Euskara lerroa martxan ipintzerakoan guk geuk sortutako ikasgai bera!

Azkenean, buelta asko eman eta, fisikara joanez gero giroa jasanezina izango zela konturatuta, Ingeniaritza Eskolara joaten erabaki nuen. Beso zabalik hartu ninduten.

Komunikazioa Euskarazko Ingeniaritzan. Hori izan da erretiratu arte eman duzun ikasgaia.

Nire espezialitateetako bat da. Sartu nintzenean birziklatu behar izan nuen, baina pozik egin nuen hori, eta 70 urte bete ditudan arte eman dut, erretiratu arte. Askotan pentsatu dut: gutun hura idatzi zutenek ez dakite zer mesede egin didaten!

KONFIANTZA DATOZENENGAN

Kontrako hitzak bai, baina esker oneko hitz ugari ere jaso dituzu. Omenaldirik goiztiarrena 1999an 11. Korrikari jasotakoak izango zenuen. CAF-Elhuyar saria ere eskuratu zenuen 2011n. Euskaltzaindiak urgazle izendatu zintuen 2006an, eta berriki egin dizu omenaldia UEUK, erretiroaren harira.

Halako omenaldiak jasotzea ohore bat da niretzat. Korrikaren kasuan, gainera, euskalgintzako dozena bat elkarrekin omendu

gintuzten. Ia denak lagunak ditut, Pedro Miguel Etxenike bera, esaterako, eta pozgarria izan zen taldean omenaldia jasotzea. Elhuyarren sariagatik, zer esango dizut... Elhuyar nire bizitza da. Beti hartu dut aintzat euren lana, eta eurek aitortza hori egitea satisfazio handia da. Bihotzez eskertzen ditut.

Dena den, halako omenezko afari ponposoak-eta ez zaizkit batere gustatzen. UEUkoei ere hori esan nien: halakorik antolatuz gero, ez nintzela joango. Ze gehienek borondate onarekin antolatzen dituzte horrelakoak, baina batzuk espezialistak dira egindakoak eginda ere hara azaldu eta hipokrisiarekin zoriontzeko. Hori ezin dut jasan. Horregatik, niri oparitzeko liburu bat egin didate UEUkoek. Nahi duenak idatzi du hor, nahi duena esanez. Eta nik poz-pezik jaso dut.

2017an IkerGazte kongresuan eskaini zenuen hitzaldia dago UEUren omenezko liburu horretan. Bertan diozu euskal unibertsitatea katedral baten modukoa dela, pixkanaka egin beharrekoa.

UEUk 25 urte bete zituenean idatzitako artikulu labur batean oinarritzen da testu hori. Unibertsitatea katedral baten eraikuntzaren modukoa zela esan nuen, harriz harri egin beharrekoa. Nik ahaztuta nuen metafora hori, baina Iñaki Alegriak, UEUko zuzendaria izan zenak, proposatu zidan hitzaldi hori berreskuratu eta IkerGazteren bigarren kongresuan aipatzea. Atariko hitzaldia neuk ematea nahi zuen. Pentsa, ehun ikertzaile elkarrekin euskara hutsean, hori nire ametsa da. Beraz, sarrera hitzaldia ematea onartu eta horretarako idatzi nuen. Euskarazko unibertsitatea katedral baten modukoa dela esan nien, eta eurek ere parte hartu behar zutela eraikuntza horretan. Denon artean eraiki behar da.

70 urterekin erretiroa hartu duzu. Urrutitik begiraten diozu orain katedralari, edo jarraitzen duzu eraikitzen?

Jarraitzen dut UEUkoekin lanean, Wikipediaren proiektuarekin orain. Fisikako testuak txukun ipintzeko proposatu zidan Kepa Sarasolak, orain UEUko zuzendaria denak.

Batxilergoko ikasleentzako oinarrizko testuak dira, eta irudiak ere nik egiten ditut.

Lagundu ahal badut, gustura egingo dut lana. Baina, hori bai: garaian garaikoa egiten ere jakin behar da, eta nire UEUko eta unibertsitateko garaia pasatu da.

Katedraletik kanpo ikusten duzu zure burua, beraz.

Nik egin nezakeena egin dut. Orain gazteagoen txanda da. Begira irakasle emerituak... batzuek ezin dute unibertsitateko lana utzi. Unibertsitateagatik baino, beraien botere estatu-

«Nik egin nezakeena egin dut. Orain gazteagoen txanda da. Erretiratzen ere jakin behar da. Konfiantza dut zuengan. Egin nahi baduzue, egingo duzue. Ziur naiz»

sari heldzeagatik. Erretiratzen ere jakin behar da. Gainera, ikerketarik onenak gaztea zarenean egiten dira. Gero, zuzendu edo fintzen dira, baina gaztetako ikerketak dira inportanteenak.

Konfiantza eduki behar da besteengan, eta erreleboa ematea oso inportantea da. Kontzienteki egin behar da hori.

Denboraz eta errespetuz esan behar da agur, erreleboa txukun eta ondo pasatuta. Konfiantza dut zuengan. Egin nahi baduzue, egingo duzue. Ziur naiz.

Baikorra zara.

Nire edadeko batzuk beti daude esaten lehenago hobeto geundela. Gauzak lortzeko antsietate moduko bat ikusten dut. Baina, katedralaren antzera, prozesu bat da. Motel doa, bai, baina lortzen ari gara. Ni gaztea nintzenean, euskara hilda zegoen, esaterako, eta begira orain. Ez gara konturatzen. Badakit euskara ez dagoela ondo, gaizki dagoela, baina, berriro diot: prozesu bat da, eta inportanteena segitzea eta egitea da. Ni horretan beti izan naiz baikor porrokatua. Konfiantza osoa dut datozenengan. 🍷

GAIAK

- 73** Neurozientzien diskurtso eragina
hezkuntza-kulturan: liluratik harago
Jexux Larrañaga Arriola

Neurozientzien diskurtso eragina hezkuntza-kulturan: liluratik harago

Jexux Larrañaga Arriola

Gizarte eta Kultur Antropologian doktorea

Sarrera

Laurogeita hamarreko hamarkadan hasi eta ordutik hona, neurozientzien goraldia egungo *boom* neurozientifikoaren agerkaria edo isla bihurtu da. Batetik, teknologia berrietako aurrerapenen (eredu biomedikoan)¹ eragina dago, giza garunaren aktibitate elektrikoaren irudien erakargarritasunak sortzen duen lilura, eta, bestetik, industria farmazeutikoaren merkatu interesaren babesa eta bultzada; egokiro txertatzen dira biak egungo gizartearen goranzko pribatizazio zerbitzuetan. Neurozientzien bulkada garaikideak gizarte bizitzaren horrenbeste alorretan sarbidea egiten dihardu, biologiaren legetara murriztutako norbanakoaren ikuskera hedatuz batera; eta, horren bitartez, gizarte kontrola eta diziplinamendua nagusitzeko.

Bulkada murriztaile horren jomugan, giza jokabide osoa azaltzeko, deskribatzeko, aurreikusteko eta aldarazteko neurozientziek darabilten diskurtso garaikidea dago, burmuinean gertatzen diren prozesuen kontrol absolutuaren bermatzaila bihurtzeko ahaleginetik ari dena. Diskurtso moldaera horrek garunaz bakarrik hitz egitera behartzen gaitu, baina

gizabanakoaren gizarte testuingurua eta gizartearen beraren testuinguru soziohistorikoa alboratu egiten du.

Ondorengo lerroetan, paradigma neurozientifikoak eusten duen gizaki neuronalaren ulerkera auzitan jarri nahi izan dugu, hain zuzen, Steven Rosek zehazki «erredukzionismo biologikoa» (Rose 2014) deritzon argudio bideen ildotik. Kontrapuntuan, gizaki sozial eta gizaki kulturalaren izaera beregaina leheneratu dugu, hots: giza izaeraren dimentsio antropologiko bat, hau da, giza talde bateko kidea den norbanakoaren izaera *soziala* eta *kulturala* murriztezina dela argudiatzeko.

Diskurtso zientifista

Neurozientzien neutraltasuna diskurtso zientifistaren norabide bakarreko egien ustezko neutraltasunean eraikita dago. Neurozientzien politikaz kanpoko diskurtso neutrala dirudiena, merkatu interesetara makurtzen da egun eta zientziaren egia biribila eta bakarraren mozorropean aurkezten gizartera, diskurtso nagusitasunaren moldaera bihurtzeko. Izan ere, egungo merkatu sistemak onartu eta elikatzen duen *diskurtso zientifistaren*² neurria egokiro moldatzen da merkatuak berak sortzen dituen beharretara, beti ere irizpide pragmatiko eta funtzionalen zaintzapean erabilia izan eta diskurtso horren salgarritasunaren neurrietan txertatzeko.

*Subjektibotasun neoliberalaren*³ ezaugarritzat jo dezakegu arestian esandakoa. Nora Merlinek (2017) azaltzen duen bezala, merkatu balioetara super-egokitua egongo den norbanako otzanduaren ekoizpena gizarte sistemaren beraren jomuga bihurtzen ari da. Saiakera zientifistek, neutraltasunaren izenean, giza dimentsio ororen aurreikuspena jomugan dute, norbanako otzandua eta kontrolpekoa helburu harturik. Neoliberalismoari funtzionala zaion ereduaren ekoizpenak beharrezkoa du norbanako gainegokitua eta maneiatzeko erraza, zirkuitu neuronaletara murriztutako gizaki biologikoaren ideia leheneratuz. Subjektibotasun neoliberal hori

bihurtzen da eraikuntza biopolitikoaren bermea, hots: araturik eta errezetarekin ekoizitako giza eredu homologatua eta berdindua ('denak berdinak'). Hedabide korporatiboek ere funtzio giltzarria jokatuko dute, identifikazio berdinzalea, masa kultura (idealizazio sozialaren mekanismoaren bidez) eta norbanakotasuna (indibidualismoa) bultzatuz, kalkulagarria izango den subjektibotasun kontsumozalea ekoizte bidean. Eredu horren arabera, subjektuen ekoizpenak laborategi objektuen ekoizpenaren traza hartzen du, izaera bera aurreikuspenetan sartzeko moduko zernahi neurgarria, erabilgarria, ebaluazio eta sailkapen errazekoa bihurtzen baita.

Merlinek (2017) gizarte sistema globalak bultzatzen duen subjektibotasunaren moldaera horri «subjektibotasunaren bahiketa» deritzo.⁴

Neurozientzien
neutraltasuna diskurtso
zientifistaren norabide
bakarreko egien
ustezko neutraltasunean
eraikita dago

'Neuro' aurrizkiaren gainestimazioa

Neurozientziaren arriskua hauxe da: norbanakoaren izaera berariazkoa eta bakarra (subjektibotasuna) ezabatze duen joera. Halere, geroz eta arrakasta gehiagorekin egiten ari da bere sarbidea ezagutzaren hainbat alorretan, hezkuntzara bidean, kasu, sortzen dituen diziplina berrien bitartez, eta merkatuko salgaiak balira bezala zabalduetako pakete hezigarrien formatupean: *neuro-hezkuntza*, *neuro-didaktika*, *neuro-psiko-hezkuntza* eta abar diziplina horien adibide batzuk baino ez dira; eta beste hainbat zientzia alorretan izandako zabalkundea ere hor dago: *neuro-ekonomia*, *neuro-etika*, *neuro-estetika*, *neuro-teologia*, *neuro-politika*, *neuro-marketina*, *neuro-jurisprudentzia*, *neuro-zuzenbidea* eta abar.

'Neuro' aurrizkiaren inflazio kulturalaren garaia da egungoa. Lipinak (2017) azaltzen duenez, egiaztagarria gertatzen

ari da ezagutza neurozientifikoaren erabilpen okerra. Gizarteari begira gainestimatua dagoen ezagutza da, bai egiten den zabalkundeagatik, bai hainbat esparru bereganatzeko egiten dituen ahalegin saioetan; baina hori guztia ondorengo etiko, sozial eta ideologikoak aintzat hartu gabe egiten da. Okerreko erabilpen horrek, azken muturrean, kontsumo proposamena bihurtzen du, hala dio Lipinak. ‘Neuro’ aurrizkiarekin bataiatutako edozelako ezagutza arlotan sarbide erraza aurkitzen du, premia berrietara egokituz eta diskurtso zientifista bera are eta gehiago hauspotuz. Bide hori egiten dihardu *neuro-hezkuntzaren* sarbideak ere; bere proposamenen salgarritasunak erakargarriago egin du hezkuntzaren alorra, eta plangintza orokorretan⁵ txertatzen dira haren erabilera sustatzeko neurriak. Hezkuntza proposamen horietan, besteak beste, hezkuntza porroten erantzun bide azkar eta gidatua emateko hainbat neurri hartzeko proposamena alor desberdinetatik egiten da: *neuro*-garapenaren nahasmenduak, *neuro*-teknologiak, edota *neurozientzia* klinikoa bera.

Oraindik beste muturrean, Anna Carballo⁶ neurozientzian doktorearentzat, ezingo genuke *neuro-hezkuntzaz* hitz egin asmakizun hutsalaren mamua urrutiratu gabe. Izan ere, egile horrek dioskunez, laborategi baten baldintzetan ikertutakoa ezingo da gero ikasgelan aplikatu, «zubi» (edo arrakala) handiegia dagoelako bien artean. Areago, hezkuntzaren arazoak ezingo dira «garunaren ezagutzaren» bidez konpondu. Ondorioztatzen duena da pedagogiaren esku hartzea eta elkar eraginen harremanak behar-beharrezkoak direla hezkuntza prozesuetan.

Neuro-hezkuntzaren logikaren muina: gizaki neurala

Castorinak (2016) azaltzen du neurozientziaz hezkuntzarako egin nahi den jauzia luzeegia dela. Hau da arrakala: laborategi zientzien eremu eta baldintza jakinetan lortutako emaitzak ezin litezke bestelakoa den ezagutza alorrean

(hezkuntza-pedagogia, kasu) lorpentzat jo eta zuzenean programa arrakastatsu bihurtu; haatik, hainbat egilek hezkuntza praktiken erabilpena «arazotsua» dela ondorioztatu dute. Neuro-hezkuntzaren sarbidean neuromitoek (diskurtso zientifisten gaineko interpretazio ulerkera okerrak) izan duten eragina aipatu behar da lehenik, eta, ondoren, zenbait neurozientzialarik egin nahi duten erabilera (aplikazionismoa) ulertzeko moduan atzemandako logikaren okerra: batetik, neurozientzialarien argudiatze logikaren akatsak edo hutsak egon badaude, eta, bestetik, aplikazionismo hori eusten eta zilegitzen ari den mundukera logika alde bakarrekoa dela erakutsi du, ideologia jakinaren, esan dugunez, eredu neoliberalaren atxikimenduaren mesederako. Haatik, beharrezkoa egiten da galdekatzea neuro-hezkuntzaren sarbide baldintzetan dauden ezaugarri kulturalak eta sozialak, jakiteko, hain zuzen, ea bidezkoa den garunaren nagusigoan oinarritutako «subjektu neuralaren»⁷ ulerkera murriztailea.

Ulerkera logika murriztailetik, hainbat neurozientzialarik subjektuaren bizi esperientzia alboratu eta zatietako bati arrazoi kausala eragozten diotenean, argudiaketa akatsa egiten dutela azaldu du Castorinak. Zatietako baten edo garunaren oinarri biologikoan pertsona osoaren ezagutza bildu nahi denean, huts nabarmena egiten du neurozientziak. «Garunak ikasi», «garunak pentsatu» edo «eskolara doan garuna», *neuro-hezkuntzak* erabiltzen dituen moduko burubideek, ondorio okerrak direla erakusten dute. Castorinak neuro-hezkuntzak erabiltzen duen beste logika okerraren adibidea aurrebaldintzen eta ondorioen arteko loturetan ikusten du; izan ere, beti ez dago esaterik aurrebaldintza zuzenek ondorio zuzenak ekarriko dituztenik. Adibidez, diskalkuliaren arazo neurologikoak baldin badaude, matematika ikasteko zailtasunak daude, eta matematika ikasteko zailtasunak baldin badaude, diskalkulia nahasteak daude; dislexiaren arazo neurologikoak baldin badaude, hizkuntzak ikasteko arazoak daude, eta hizkuntza ikasteko arazoak baldin badaude, dislexia nahasteak daude; eta abar.

Neurozientzia mugiarazten duen mundukera ulertzeko, logika kartesiarraren binarismoa aipatu du Castorinak. Neurozientzialari askoren tesien oinarrian, subjektu psikologikoa, soziala, kulturala (psiko-soziokulturala) prozesu biokimikoe-tara murrizteko ameskeria dago. Subjektuek bizi dituzten prozesu mentalak, egoerak, gertaerak, harremanak, prozesu neuralatik soilik azaltzea onartezina bihurtzen da. Horregatixe, hezkuntza prozesuen dimentsio soziala, kulturala eta psikologikoa ezin liteke «ikasten duen garunaren» edota «irakurtzen duen garunaren» ikuspegi murriztutik bakarrik esanguratu.

Logika horren alderdi sozialaren galerari begira jarriz gero, berriz, honela dio Kaplanek:

Pedagogo bezala pentsatu beharra dago zergatik ikuspegi eta ikuskera horiek sartzen diren ikastetxeetan modu akritikoan. Hau da, zergatik, ikasten duten subjektuei buruz pentsatu beharrean, garun txiroago, garun aberatsago edo buruko gaitasunei buruz hitz egiten hasten garen. Pedagogiaren ikuspegi zaharra eta kontserbadorea da, zeren eta guk mantentzen duguna da aberatsen eta pobreen arteko garuneko ezberdintasunik ez dagoela. Dagoena da, edozein kasutan, ikasteko baldintza eta aukera desberdinak, funtsean gizartearenak direnak. Desberdintasunean ez dago ezer naturala denik. Hau da, desberdintasun soziala eta hezitzailea ez dago garunean. Hala ere, ikuspegi horiek norberak kritikoki begiratu eta aztertzen ez baditu, irits liteke pentsatzera ezinbestean burmuinak direla pertsonen arrakasta edo porrota definitzen dutenak, bai gizartean, bai eskolan (Kaplan 2016; itzulpena gurea).

Egile horrek pedagogia kritikoaren eta ikaskuntza/irakaskuntza prozesuen arteko baldintza sozialen lotura lehen baino ahulduago dagoela azaltzen du. Egun, justizia sozialaren mailak berdintzen saiatu beharrean, hezkuntzaren arazoa garunean fokuratu da. *Garunaren fokuratzea*⁸ hezkuntza zereginen erdigunera ekarri da. Ordena soziala zilegitzeko beste modu bat baino ez ote du bihurtzen eskola, hori da Kaplanen galdera. Hortaz, ikasteko ezberdintasunak sortzen direnean, norbana-koaren garunean aurkitutako gabezia neuronalei atxikiko zaie arazoa, epaiketa kondenatzailea balitz bezala. Konplexutasun soziala saihestu eta erantzun tekniko ordezkagarriak bilatzen

dira. Alderdi sozialak baztertzen dituen eskema neuralak, bada, konputagailuaren metafora erabiliz, garuna bihurtzen du prozesadore. Hainbat egilek askatasunaren galerarekin lotu ohi dute neurozientzien honako ikuskera.

Bestalde, neurozientzien bultzadan egiten diren hezkuntza proposamenetan (aldeztatik diseinatutako pakete hezigarriak edo ordenagailu aurrean bakarka jarduteko atazen sekuentziak), hobekuntza neuronalak jartzen da erdigunean, hezkuntza prozesuaren ardatza garunean fokuraturik. Hortaz, lorpen ikaskuntzak behar bezala ez doazenerako edota norbanakoari eskatzen zaizkion jokabideen aldaketa sustatze bidean, erabilera farmakologikoa zilegitu eta eskutik etorriko da. Benetan axola duena jokabidea gobernatuko

Neurozientzien bultzadan egiten diren hezkuntza proposamenetan, hobekuntza neuronalak jartzen da erdigunean, hezkuntza prozesuaren ardatza garunean fokuraturik

duen prozesu neurobiologikoa da: neurozientzien logikak, nagusiki, giza portaera-jokabidea-jardunbidea-gorputza kontrolatu beharreko makina gisara ulertzen du, konputagailuaren metaforaren abiapuntutik. Gizaki neuralaren logika murriztaileak pentsamendu kritikoaren eta askatasunaren galerarekin zerikusirik baduela arrazoitu dugu hemen.

Neuroirudien mitoa edo garunaren ideologia

Neuroirudien zabalkundea uler liteke hainbat giza jokabideen azalpen kausalak egiteko ematen zaien erabilgarritasunagatik. Adibidez, neurozientzia klinikoan, hainbat ustezko 'nahasteen' azalpen frogatzat erabili izan direnean, eskola porroten testuinguruan, kasu. Ume batek arretarik jartzen ez edota ikasten ez duenean, azalpena sinapsi neuronalen akats batean bilatu ohi du neurozientzia klinikoak, esku hartze konduktuala eta farmakologia balioztatuz gaizki dabilena

sendabidean jartzeko (Carpintero 2013). Ustezko normaltasun psikikoaren idealaren ezarpenak horrelako ondorioak sortzen ditu, eta zenbait egilek azal dutakoek haritik, bizitza arruntaren «patologizazioa» (Pérez Álvarez 2011a) negozio bihurtzen da. Hortaz, nola erabiltzen dira neuroirudi horiek egiaztapen frogatzat? Zer egiaztatzen dute?

Neuroirudiak garunaren atal desberdinetan koloreztatutako gunek baino ez dira, erabilpen klinikoan norbanakoari leporatutako akatsa bertan balego bezala fokuratzeko, giza esperientziaren gainerako inguru baldintzak edo gai psikologikoak aintzat hartu gabe, preseski azken horiek direnean alderdi kualitatiboaren esanguratasuna aztertzeko baliotsu. Joera neurozientifiko horrek giza zientzien balioa gutxietsi nahi luke, bere testuinguruan ulertu beharrekoak garuneari bakarrik fokuratu. Garunaren fokuratzeko horretan, hezkuntza testuinguruaren galera osoa dago. Hortaz, neuroirudi horiei ematen zaien erabilerarekiko urrutiratze kritikoa egitea beharrezkoa egiten da. Pentsa al liteke, bada, bizitzaren edonolako gorabeherak, jarrera politikoak, sinesmen erlijiosoak, kultura bidez gureganatutako bizitzeko moduak, jokabide sozialak, harreman pertsonalak, ondorengo egoerak, maitasunekoak, depresioak, garuneari koloreztatutako gune batera murrizgarriak direla? Nola iristen gara horietara?

Lehenik, neuroirudiaren ahalmen erakargarri eta xarmagarria aintzat hartu eta zientziaren izenean egiten den 'naturalizazioa' kulturalki onartzen da. Bigarrenik, esan behar da garunaren fokuratzeko egungo indibidualismo joerarekin ondo ezkontzen dela eta elkar elikatzen dutela. Hirugarrenik, giza zientzien gainbeheraren testuingurua geroz eta beherago dagoenez, lagungarria gertatzen ari zaio. Azkenik, dualismoaren ideia kartesiarra (gorputza/garuna) nagusituz, neuroirudien balioespina onartzen da kultura testuinguruan (eredu biomedikoaren eskola praktiken naturalizazioa vs neurozientziaren diskurtsoa).

Behinola, ba al dakigu zer edo nola neurtzen duten irudi horiek? Neuroirudi horiek⁹ (*Functional Magnetic Resonance*

Imaging) berez neurtzen dutena garun zati baten odol jarioa baino ez da, laburki esanda: zenbat eta odol jario handiagoa izan, orduan eta jarduera neuronal handiagoa duela garun zati horrek, hala ulertu behar dugu. Logika horretan, odol jarioa izango da jarduera neuronalaren adierazle behinena, eta jarduera neuronal, bide batez, jarduera psikologikoa-rena. Koloreztatutako garun gune horiek, bada, odolaren jarioa baino ez dute neurtzen, zehazki, eta odol jario hori ikertzen ari den jardueraren arabera dela ulertu behar-ko dugu (Pérez Álvarez 2011b). Bestalde, neuroirudi hori lagin askoren batez bestekoa dela esan behar da, eta ez du zehazki adierazten lagin bakar baten uneko garun jardue-
ra. Kontuan hartzen da, gainera, egoera guztiz antinaturala dela neurtutakoa: neurketak etzanda eta imanez josita da-
goen makina baten zuloaren barruan egiten dira, baina ez benetako egoera errealean. Nola interpreta litezke orduan neuroirudiak?

Nahiz eta zientziaren prestigioa bere alde izan, irudi horiek, funtsean, giza jardueraren korrelatuak baino ez dira, eta ezin dute giza jokabide-portaera-egoera baten oinarri neuronal hortik azaldu. Hala ere, berme zientifikoaren frogatzat aur-
keztuak direnean, emandako azalpenek sinesgarritasuna ira-
baziko dute hiztegi neurozientifikoaz azalduak diren neurrian. Hori diskurtsoaren eragina da. Izan ere, norbanakoa egun ez da hainbeste definitzen bere 'ni'-aren gorabeheretan, bere garunaren eta sinapsien gorabeheretan baizik (ni sinaptikoa). Garunak pertsona ordezkatzeko neurozientziatik egindako bidea azaldu dugu hemen. Argudio-bide honetara iritsita, esan dezakegu neurozientziek gainetik pasa dutela pertsona izateko baldintzen testuinguru osoa, hau da, gizartea eta kul-
tura. Oinarrian dagoen gizaki neuralaren ikuskeran, garuna da dakiena, ezagutzen duena, oroitzen duena, gezurtatzen duena, gorrotatzen duena edo maitemintzen dena, ez pertso-
na bere osotasunean. Behinola, bioteknologiaren menpean bizi garelarik, «giza ondorengo»¹⁰ aroan (Fukuyama 2002) sarturik bizi gara ere esan daiteke honezkero.

Pedagogiaren berreskurapena

Neuro-hezkuntzaren ikuspegiaren aldeko askok uste dute garuna hobeto ezagutzea eta ikaslea ezagutzea biak baliokideak direla; arrazoibide horri jarraiki, ezaguera horrek berreskuratuko zukeen hainbat ikaskuntzak ikasleari esleitutako ahanzturaren lekua. Baina, arrazoibide horretan hainbat hu-

Neuro-hezkuntzaren ikuspegiaren aldeko askok uste dute garuna hobeto ezagutzea eta ikaslea ezagutzea biak baliokideak direla. Baina, arrazoibide horretan hainbat hutsune ere badira

tsune ere badira, alabaina, garunean fokuratutako azalpen linealetik baino pedagogiaren ikuspegitik berreskuratu beharrekoak direnak.

Lehenik, esan behar dugu garuna begiratzea eta ikaslea begiratzea ez direla gauza bera. Brailovskyk (2016) azaldu duenez, irakaskuntza, bate-tik, pertsonen arteko topaketa hunkibera eta bizia nahasten duen erlazioa da, bizipen askotarikoak bezain sakonak

suspertzeko ahalmena baduena, non eta sinesteak, usteak, ohiturak, ideologia... denak jokoan jarrita diren; baina, irakaskuntza, aldi berean, prestakuntzak eman eta egiaztatgiriak eta tituluak banatzen dituen sistema politiko eta soziala ere bada. Bi zereginak ondo betetzeko zailtasun nabariak izan arren, bietan eraginkorra izatea, hala eskatzen zaio. Ikaskuntza/irakaskuntzak behin baino beharrezkoagoa du harremana eta elkarreragina; izan ere, 'bestetasunik' gabe ez dago irakaspen adierazgarri eta esanguratsurik. Irakaskuntza harreman bezala pentsatzea ezinbestekoa egiten zaigu, egun; baina, aldi berean, ezin da alboratu haren sistema izaera. Sistema publikoaren izaera nagusiki, gainera, bestela proiektu sozialen zerbitzura ezingo litzatekeelako egon. Haatik, funtzioen dilema hori ezin dugu ebatzi oinarri fisiologiko edo neuronalak hobeto ezagutzuz, dimentsio didaktikoen arteko erlazioak eta heziketaren politikak hobeto pentsatuz baizik.

Bestalde, esan behar dugu garunaren ezagutza zientifikoa ez dela modu bakarra –ez eta onena, beharbada– irakas-kuntza hobetzeko. Neuro-hezkuntzan erabilitako «garunean oinarrituriko ikaskuntza» burubidetik hezkuntzaren iraultza iragarri den arren, emandako argudioak aspaldian psikologia ebolutibo klasikoak emandakoen antzekoak dira: «Buruak nola funtzionatzen duen ulertzen badugu, heziketa hobetuko dugu». Bi kasuetan arrazoi bertsuak erabili izan dira, hots: hezkuntza harremanetan gertatzen diren erlazio konplexuak, aldakorak, subjektiboak ezabatu nahi izan direnean, formulazio esentzialistak erabiltzeko joera azaldu da. Paulo Freire (1979) pedagogo handiak baieztatu zuen irakaskuntzaren abiapuntua ikasleen marko kulturean kokatu beharrekoa dela: hezkuntza markoaren osagai ideologiko, politiko eta sozialek bete-bete harrapatu eta zeharkatzen dute hezkuntza prozesua, alboraezinak dira. Ideia hori bera Vigotskiren teoria soziohistorikoak¹¹ berretsi zuen geroago, ikaskuntza/ irakaskuntza berori barnebiltzen duen marko sozialetik bananezina zela azaldu zuenean. Hezkuntza pedagogiaren begirada lantzeak premiazkoa izaten jarraitzen du, hezkuntza trama ekoitziko duten gertuko harreman bero zein gizatiarren bitartez.

Azkenik, hirugarren argudio bat ere badarabil Brailovskiyk; izan ere, ez da gutxietsi behar neurozientzien agindu diskurtsiboak hezkuntzan duen eragina, hots: diskurtsuaren beraren eragina. Foucaulten (1997) arabera esateko, aipatzen dituzten arrazoiak (objektu diskurtsiboak) landu eta zizelkatzen dituzte, euren hizkera berezitua sortzearekin batera. Bidegurutze horretan sortzen dira diziplinen arteko gaizki-ulertuak, neurobiologia eta pedagogiaren artekoak, kasu. Hor dago neurozientzialariek pedagogiaz duten ezagutza eskasa, eta alderantziz ere bai, hezitzaile askok ikerketa neurologikoetatik datorren guztia tolesgabetasun handiz eta modu akritikoan onartzeko joera. Nor egongo da eskolan emozioen diskurtsua (neuro-hezkuntzak bereganaturik) erabiltzen duenaren aurka edo ikerlariek egindako hezkuntza aurkikuntzen aurka?

Neurozientzialariek, bere aldetik, hezkuntzari buruzko ikuspegi nahiko laburra dutelarik, beren esperientzien azalpen eta froga-leku ezin egokiagotzat jo dute eskola. Elkarren arteko ezagutza laburra eta ikuspegi murriztuen ondorenak ez dira lagungarri onenak afera honetan.

Neuro-hezkuntzaren atzean dagoena da hezkuntzan iraultza egiteko ideiarene salgarritasuna, iraultza hori neurozientzietan egiten diren aurrerapenen bitartez etortzekoa baita. Neurozientziek, edozein giza jokabidek sortzen duen jardueran neuronal neurgarritik abiarazita, benetan jokoan jartzen dutena hauxe baino ez da, giza jokabidea arauetara moldatzeko kontrola izateko irrika, hots, ezagutza horren zilegitasunaren eskurapena eta erabilpena. Funtsean, neuronek pertsonengan izan dezaketen eragina kontrolatzeko grina da egiaz axola duena. Baina egia hauxe da: iraultza horrek zerikusi gehiago izan beharko du etorkizuna elkarrekin irudikatzeke zilegitasunaren eraikuntzarekin eta irakaskuntzatik eratorritako beharren bateratze gaitasunarekin, giza taldearen zein norbanakoen erlazioak justizia sozialaren eraldaketa norabidean eraiki ahal izateko.

Askatasunaren aferaz

Ezinbestekoa da elkarren arteko harremana, interpelazioa eta ikaskuntza, bizi garen mundua elkarrekin eraikitzekoa dela sinestekotan. Izan ere, giza ikuskera antropologikoa- ren arabera, gizakiok sozialki eraikiak gara, eta, eraikuntza horren ondorioan, giza zientzien proposamena kulturalagoa eta eraikitzaileagoa bihurtzen da.

Neurozientzien diskurtsoak alderdi metodologiko garrantzitsuak berrikusteko beharra duela ikusi dugu gorago, giza-kiaren mendetako moldaera aldatu edo aldarazteko dituen hainbat aurreikuspen betetzen hasi baino lehen. Gauza bat da gizakiaren ulermenean dimentsio biologiko zein naturalak merezi eta duen garrantziaren berreskurapena aintzat hartzea, eta bestea oso bestelakoa, giza bizitza saretzen duen

mundukeraren konplexutasun soziala eta kulturala murriztea, preseski eraikuntza kulturalaren izaerak oinarri biologikoa moldeatzeko duen ahalmena berrikusi eta gero. Iragan mendean gizakiaren esplikazioa garezurreko arrazoieta murrizteko nahia izan zutenek bezala, gaur neurozientziek neuronen funtzionamendura murriztu nahiko lukete garunaren funtzioa. Baina gizakiak konplexutasuna du ezaugarri. Horrela, esate baterako, sentimendua osotasun kontziente gisa esperimendatzen dugu, eta ez sentsazio banatuen batuketa gisa; emozioak zatikatzea eta banatzea, diskurtso zientifistak egin ohi duen eran, oinarririk gabeko jardunbidea bihurtzen da, lekuz kanpokoa, gure garunaren benetako edukia irudikapen multzoek osatzen baitute.

Neurozientzien jarduna ikuspegi zientifiko positibistak mugiarazi duela onartuz gero, zaharkitutzat jotako ikuspegiak indarrean dirauela ikusten da; izan ere, positibistek uste dute denbora luzea igaro baino lehen gizateriak bere jokabidea modu bakar, erantzun jakin, mugatu eta fidagarrian iragartzeko aukera izango duela, gure bizitza osoak auresangarri bihurtzeraino. Baina, ondo pentsatuz gero, neurozientzia ezingo da mekanizismo berri batean erori, giza naturaren elementurik funtsezkoena bere eraldaketa gaitasuna baita. Eraldaketa gaitasun horren arabera, norbanako bakoitzak bere burua eraldatzeko eremu aske murriztezin bat bere berezkoa du, edozelako zientzia aurkikuntzen gaintik askatasunaren aukera murriztezina bihurtzen duena. Askatasun murriztezin hori giza izaeraren baldintza da. Garunak duen autoeraldaketa gaitasuna norbanakoaren eraldaketarako askatasunaren iturri bihurtzen da.

Iragan mendean
gizakiaren esplikazioa
garezurreko arrazoieta
murrizteko nahia izan
zutenek bezala, gaur
neurozientziek neuronen
funtzionamendura
murriztu nahiko lukete
garunaren funtzioa

Askatasunaren aukera erdigunekoa bihurtzen da afera hone-tan; izan ere, ozenki baieza dezakegu giza izaera bera modu mugagabea aldarazi dutela gizarteak zein hezkuntzak. Hor-taz, neuronak garunaren anatomia erantzuleak diren arren, neuronen moldagarritasuna gizabanakoen esperientzietara egokitzeko ahalmenaz birsortzen dela ikusten da. Giza ga-runari datxekion askatasuna onartzea, haatik, gizakia geneti-koki predestinatuta ez dagoela onartzea da, eta, hein berean, erantzun bakarreko soluziobiderik ez dagoela ere onartzea. Norbanakoaren eremu aske horretan erabaki dezakegula zer izango garen, garabide hori kolektiboa ere badela aitortzeko.

Ondorioak

Neurozientzien amets zientifistek Huxleyk XX. mendearen hasieran idatzitako testu antologikora ginderamatzakete; ber-tan, fikziozko mundu zoriontsua irudikatzen du, eta, gizarte antolaketaren kontrola lortzeko, giza eredu otzandu eta me-dikalizatuaren ekoizpenari ekiten dio. Esperimentu horren ikertzaileek dena aurreikusi eta kontrolatzen dute, gizakien sorkuntzarako prozedura kimikoak barne. Sortzen dituzten gizaki berriek, esaldi laburren errepikapenen bidez, garunean ondo grabatuta izango dituzte jakin beharreko gizarte siste-maren kontsigna nagusiak. Norbait eraman ezinez gaixotuz gero, orduan dagokion pilula jasoko du, ondoezak albora di-tzan eta zoriontsu bizi dadin metropoliaren egonkortasuna arriskuan jarri gabe. Antolaketa sozial egokirako, gizakiak sailkatuak egongo dira gizartean: Alfa, Beta, Gamma, Del-ta eta Epsilon. Alfak adimentsuenak, gihartsu eta garaienak izango dira; Epsilonak txikiak eta motelenak, adimen gutxi-koak. Azpi mailako gizaki horiek aparteko laginetan ekoitzi-ko dituzte, azpiko mailetara behin betiko kondenatuak egon daitezen patu aldaezinean. Hara hor kontrol mekanismoaren gizarte ordenaren lehen ondorena.

Gizarte globalaren *eredu biopolitikoak*¹² erakusten du de-na salerosketa harremanetan taxutzen dela, eta kultura zein

pertsona merkatu neurrien arabera ulertzen direla. Kontsumo beharrianak subjektibotasun otzandua beharrezkoa du, ereduaren beraren bermea izan dadin. Zoriontasunaren bilaketa, ostera, barneratutako gizarte agindua bihurtzen da. Zoriontasuna, kontsumo mugagabea, edozein baldintzatan lortu beharreko arrakastan eta sendabide guztietarako erantzuna duen kontsumo farmakologikoaren eskaintzan erosten da.

Testuinguru horretan kokatu dugu norbanakoa etengabe ebaluatu eta sailkatzeko neurozientziek erakutsitako eskola joera konpultsiboa. Benetan axola duena da norbanako horrek zertarako balio duen edo zertan bihurtuko den bihar edo etzi. Kultura/merkatua bihurtzen duen eta pertsona/makina-merkantzia eraldatzen duen eredu biopolitikoaren atzean, zientziaren apelazio etengabea dago. Neurozientzien ustezko neutraltasuna, baina, norabide bakarreko jarrera ideologikoen atzean ezkutatzen da. Eta politikaz kanpoko diskurtso neutrala dirudiena merkatu interesetara makurtzen da. Interes farmakologikoen babespean, neurozientzien atzean, benetako interes ekonomiko, sozial eta politikoak ezkutatzen dira. Berrikuspen honetan, auzitan jarri nahi izan dugu zientziaren izenean ekoizten diren hainbat zilegitasun, eta zilegitasun horien eraikuntzan ikuspegi murriztaileek jokatzten duten funtzioa; eta horrek zer ondorio dituen hezkuntza-kulturan, hain zuzen, neuro-hezkuntzaren aplikazionismoak sortzen duen erabilpen okerraz jabetzeraino. Zilegitasun horien erabilera gizarte interes jakinetara makurtzen dela argudiatu dugu, azkenik: eredu neoliberalari funtzionala zaion neurozientziaren erabilera okerra egitera behartzeraino. 🍷

Oharrak

1. Eredu biomedikoaren oinarrian arrazoizko pentsamendu kartesiarrak dirau; giza izaera adimena/gorputza dualismotik ulertzen duenez, gorputza fisika klasikoaren legeen arabera funtzionatzen duen egitura biologikotzat jotzen du. Gaixotasunen ikerketa eta trataeran oinarritzen da. Organismoaren kalte morfologiko/funtzionala profesional teknikoak (medikoak) sendatuko du, eta pazientearen funtzioa preskripzio diagnostiko eta terapeutikoan agindutakoa betetzera mugatuko da. Nagusia den eredu horrek pertsonaren dimentsio psikosoziala ulertzeko arazoak ditu, ez du ikuspegi holistiko edota ekologikorik. Eredu horren ezaugarri nagusiak honako hauek dira: biologikoa da, murriztailea, dikotomikoa, zatitzailea eta aginduzkoa. Ikus J. Larrañaga: 'Haurren medikalizazioaren arazoa hezkuntza-porrotaren testuinguruan: eredu biomedikoaren berrikuspen kritikoa', *Uztaro* 97, 2016, 5-15.
2. 'El lenguaje cientifista como pretexto' lanaren egileak ohartarazten digu hizkuntza zientifiko eta ustez neutralaren bitartez gizarte postmodernoetan hezkuntza sistemen helburu errealak ezkutatzeko egon litekeen arriskua. Arrisku horren konponbiderako, ezinbestekoa da hezkuntza-erakundeak testuinguru sozial, politiko, ekonomiko, kultural zabalago baten zatitzat ulertzea (Beltrán 1998).
3. Sistema neoliberalaren agindu aseezinek beti *zorretan* dagoen norbanakoaren uste subjektiboa elikatu ohi dute, *erruduntasuna* elikatuz. Eskolako ahotsek, familiakoek zein lanekoek, beti gehiago eskatzen diote norbanakoari: «zuk gehiago ahal duzu» dioen ahotsak kontsumo, errendimendu eta eraginkortasunaren izenean hitz egiten du. Norbanakoari, bestalde, lortu beharrekoa izango den zoriontasun eta normaltasun psikikoaren ideia inposatzen zaio, eta, berori lortzeko, mugagabeko kontsumoa eta medikalizazioaren bidea eskaintzen zaizkio (Merlin 2017).
4. Dispositibo sozial neoliberalak subjektibotasun uniforme, txunditua, menderatua eta akritikoa sortzen du, serieko objektu bihurtutako subjektu manipulagarria ('Las neurociencias y la colonización de la subjetividad', in Merlin 2017, 77-81).
5. Ikus Hezkuntzara bideratutako Neurozientziaren Plana eta hortik eratorzen dena (www.mecd.gob.es/educacion/mc/neurociencia-educativa/plan/ejes.html).
6. 'La neurociencia no tiene la receta para los problemas de la educación' (Anna Carballori elkarrizketa), *El País*, 2018-02-19.
7. *Subjektu neurala* merkatu sistemarekin loturan jartzen dute hainbat egilek (Malabou 2007, Zimmer 2011, Pérez Álvarez 2011b), hain zuzen merkatu sistemari funtzionala zaion eraiketa bat denez. Pentsamendu horrek erakusten du neoliberalismoak garunaren diseinuarekin bat etorri behar duela.

8. Pérez Álvarezek (2011b) «cerebro-centrismo» izendatu duena itzultzeko erabiliko dugu.
9. Azalpen zehatzagoa egiten du Pérez Álvarezek 'El magnetismo de las neuroimágenes' idazlanean (2011b), irudi horiek duten erakartze gaitasuna eta FMRI neurketen deskribapena.
10. Fukuyamak (2002) ideologiaren arteko gatazka amaitutzat ematen du komunismoaren porrotarekin; gaurkotasanak inposatzen duen aukera bakarra neoliberalismo ekonomikoa da, zeinak berarekin darraren pentsamendu bakarraren ezarpena. Ekonomiak ideologia ordezkatu du. Egun, zientziak baldintzatzen du historia, eta orain biologiaren garaian bizi gara, biologiako aurkikuntzek baldintzatuko dute etorkizuna.
11. Vigotskiren teoria soziohistorikoak agerira ekartzen du umeeek ingurunearekin duten bat-etortze aktiboaren garrantzia eta garapen kognitiboaren prozesuan sozializazioaren ezinbesteko papera. Ikaskuntza elkarreragin sozial eta kulturalaren emaitza gisa jotzen du, giza izaera nabarmenki soziala dela ulertzen baitu. Finean, ikaskuntza prozesua izaera sozial horren ondorioa litzateke.
12. Botere sistemak gizakien gaitasun biologikoaren bahiketa oharkabea egiten dihardu bere interesen alde. Hedabide korporatiboak eta marketina tresna garrantzitsuak dira ideia zein kontsigna gakoak barneratuz joateko, 'naturalizatu' eta kultura sistemak bereganatzen duen arte. Sistema neoliberalaren ekoizpen biopolitiko subjektibotasunaren bahiketari datza (Merlin 2017).

Bibliografia

- Beltrán, D. (1998): 'El lenguaje cientifista como pretexto', *Kikiriki. Cooperación Educativa* 47, 14-20.
- Castorina, J. (2016): 'La relación problemática entre neurociencias y educación. Condiciones y análisis crítico', *Propuesta Educativa* 46, 26-41.
- Duarte, J. (2016): 'Las neurociencias como marketing político', *Ideas de Izquierda* 34, 37-39.
- Foucault, M. (1997): *La arqueología del saber*, Siglo XXI, Mexiko DF.
- Freire, P. (1979): *Pedagogía del oprimido*, Siglo XXI, Madril.
- Fukuyama, F. (2002): *El fin de la historia y el último hombre*, Davinci, Bartzelona.
- Huxley, A. (2002): *Bai mundu berria*, Elkar, Donostia.

- Lipina, S. J. (2017): 'A propósito de la inflación cultural del prefijo *neuro*', *Ideas de Izquierda* 37, 22-25.
- Malabou, C. (2007): *¿Qué hacer con nuestro cerebro?*, Arena, Madril.
- Merlin, N. (2017): *La colonización de la subjetividad. Los medios masivos en la época del biomercado*, Letra Viva, Buenos Aires.
- Pérez Álvarez, M. (2011a): *El mito del cerebro creador*, Alianza, Madril.
- (2011b): 'El magnetismo de las neuroimágenes: moda, mito e ideología del cerebro', *Papeles del Psicólogo* 32(2), 98-112.
- Rose, S. (2009): *No está en los genes*, Crítica, Bartzelona.
- (2014): 'La falacia de reducir la persona a nada más que biología. Entrevista al neurobiólogo Steven Rose', *Ideas de Izquierda* 7, 29-30.
- Taborda Chaurra, J. eta Buritica Arboleda, O. C. (2007): 'El cientifismo como enfoque curricular contemporáneo', *Revista Latinoamericana de Estudios Educativos* 3(1), 103-122.
- Vigotski, L. (2010): *Pensamiento y lenguaje*, Paidós, Bartzelona.
- Zimmer, C. (2011): 'Cien billones de conexiones', *Investigación y Ciencia* 414, 29-33.

Erreferentzia digitalak

- Brailovsky, D. (2016): 'Las neurociencias no revolucionan la educación', *La Izquierda Diario*, 2016-10-18.
- Carpintero, E. (2013): 'Un síntoma de época: la medicalización en los niños', *Topía* 68.
- Kaplan, C. (2016): 'Una mirada crítica de las neurociencias en la enseñanza', *El Litoral*, 2016-08-06.
- Kiel, L. (2017): 'La felicidad al alcance de cualquier cerebro. Una crítica a la moda de las neurociencias', *Página/12*, 2017-05-18.
- Merlin, N. (2017): 'Las neurociencias: un intento de colonizar la subjetividad', *Red Filosófica del Uruguay*, 2017-03-19.

EGUNEN GURPILEAN

93 Kultura

Memoria eta esperimentalak
(Zurrunbiloa)
Zertarako hau dena. Zertarako artea
Itziar Ugarte

99 Soziolinguistika

Baloia eta hitzaren gintzak
Historikoa
Quirolas
D eredukoa izan behar ez duen kirola
Jarraitzeaz harro
Jaime Altuna

105 Glokalia

Kristalezko sabai pertsonala
Autozentsurari bertso
Nahiago irrealista bagara
Alba Garmendia



Memoria eta experimentalta

Badoa urte berria, berria izateari uzten. Eta kulturari zer? Dena berdintsu antzean; hala dirudi. Nori galdetu, hala sentitzen da ontzia. Badakizu, ezer gertatzen ez dela dirudienan gertatzen da dena. Jendea ez dago lo. Transformazio azeleratu baten azpiratutako mundu batean segitzen dugu igerian, non apenas geratzen den arnas-leku nahikorik oraina pausaz behatzeko.

Iaz, sasoi honetan, Joxan Artzeren heriotzaz eta ezusteko albiste hark utzitako gorputzaldiaz inauguratu nuen txoko hau. Urtebete beranduago, hura etorri zait gogora Ibon RGren *Hil zara* (Repetidor, 2019) diskoan murgiltzen hastean. Baita azkenean ikusterik izan ez dudana emanaldi batek bultzatuta ere, zeinetan Rodriguezek berak, Akauzaztek, Amorantek, Joseba Irazokik eta Beñat Axiarik hartu duten parte, olerkariaren omenez. Baina zergatik etorri zaidan Artze burura, hark hein batean nigan sinbolizatu dezakeena, Rodriguezek bakarkako lehen lanaren harira Badok atariari emandako elkarriketarekin izan da. Intereseko hari-mutur dezente dakar Antton Iturberekin izandako solasak; experimentazioa, herri kantuariaren tradizioa eta musika –jarri kultura– bizitzeko gaurko modua. Noan ba kultur aktualitatea (edo) hortik harilkatzera.

Hemen eszena [experimental] bat existitzen dela uste dut, inguruko herrialdeetan baino jende gehiago baitago musika experimentalta egin eta entzuteko prest. [...] Pozik nago, gauza interesgarri asko ikusten baititut, eta benetan goraipatzekoa den errespetu eta arreta handiko giro batean. [...] Etengabeko mugimendua eta berritza dago.

Preziatua eta bazterrekoa, biak batean, da esperimentazioa. Bideak eta bideak daude, aurreikusgarri denetik atera eta bila abiatzeko; eta horietan saiatzen denak ere berdina nahi du, zerbait komunikatu. Horretaz ari gara etengabe; zer esan, zelan esan. Eder egiten zuen Artzek. Eta, orain, ezin ederrago egin duela iruditu zait Ibon RGk.

Gure korrante esperimentalaren barruan, Xabier Erkizia-zen izena aipatu zuen Rodriguezek. Eta niri Mursego etorri zitzaidan kolpetik gogora. Bien arteko katebegi, gaur, Maurizia. *Maurizia Aldeiturriaga Zabala naiz, Zeberion jaioa, Egian [baserria] jaioa, 1904an jaioa*. Euskadi Irratiko *Arratsean* saioan aritu zen hartaz Erkizia, eta Mursego aipatu dut Mursegoren ahotik izan nuelako estreinakoz nik haren berri.

Bi binilotan kaleratu du lana Rodriguezek; *a capella* lehenengo, pianoz lagunduta bigarrena. Bada, ahotsari diogun beldurraz ohartarazi zuen elkarrizketan, beste laguntzarik gabe hura entzuteari diogun izuaz. Eta Erkizia, hain justu, Mauriziaren ahotsaz aritu zen irratian, beldurrik batere ez ziola dirudien hartaz, mikrofonoaren asmakizunaren aurreko eta ondorengo garaiez.

[Leon, Maurizia, Fasio: *Alboka eta Tritikitxa* (Xoxoa, 1979)] Disko honek gordetzen du beharbada mikrofonoaren asmakizunaren aitzineko azken irrintzia. Agerian uzten du erabilitako tresnen, alegia, trikitixaren, albokaren, panderoaren eta ahotsaren indar animalia; jatorrizko soinuazko trakzioa. Eta elementu horien artean nabarmen Maurizia Aldeiturriagaren ahots teknika zinez bereziak gordetzen du beharbada hobekien, bertsolari zaharren grabaketa ahantzien baimenarekin, mendeetan iraun zuen, eta guk jada, bistan da, ezagutu ez dugun altaboz gabeko aro luze baten hatsa.

Kontatzen du Erkiziak, garai bertsuan, «Mauriziaren zintzurri zerion zimurtasunari goxotasun zuri eta intimo baten bidez» erantzuten ziola Lourdes Iriondok, «lehenengoaren primitibotasunari baino bigarrenaren hurbiltasunari beldur gehiago zion erregimen politikoaren pean». Tonuaren berrirakurketa bat proposatu zuela, mikrofono eta bozgorailu

bidez entzutera ohitu zen publikoarekin; atzerabueltarik gabeko hitzarmen berria. Eta, gero, 80ko hamarkadatik aurrera, bozgorailuen biderkatzearekin hitzarmen hori eguneratu egin zela. Are, 80ko urteetan mikrofonoak eta altabozak saturatzea bihurtu zutela askok musikarako bide. Vulpesen *Me gusta zer una zorra* jarri zuten irratian. Haiek, Erkiziarren hitzetan, «mikrofoarekin ez da nahikoa!» oihukatu nahi izan balute bezala.

Ez gaitu harrituko hortaz punk mugimenduak Mauriziarengan topatu izana beraiek desiatzen zuten askatasuna eta, zergatik ez, irreberentzia.

Baina hemen azken tanta, hemen gakoa:

Maurizia Aldeiturriagak bere kabuz abestu zuen, baina Maurizia gehiagori ikasi ondotik, bere zintzurrean oihartzun egiten zuten bezainbat Maurizia aditu ondotik.

Ez naiz aditua sartu naizen uretan; zalea baino ez –aditu ez naizen uretan sartu zale?–. Baina esango nuke Ibon RG entzutean, Mursego entzutean bezala, Maurizia horiek entzuten direla soinuaren geruza atzemanezinetan. Erakutsi gabe ere, aurrekoaz duten ezagutza erakusten dutela. Eta, orduan, esperimentazioak memoria egiten duenean, borobildu egiten dela dena; oraina interesgarriago egiteraino.

Mauriziarekin hasita, aipatu nahi nituen, bidenabar, Iñaki Garmendia *Laja* trikitilaria eta Jon Lopategi bertsolaria; biak hilak urtearen hasiera bizkor honetan –dinosauroen zilborresteaz aritu ginen iaz hemen–. Hitz hauek geratu zitzaizkidan gogoan Twitterren topatzean, Gorka Erostarbek han idatzita:

Juan Luis Zabalak esan zuela uste dut. Kultura ofizialak folklorizatu eta fosilizatu egin izan du trikitia. Kultura alternatiboak, aldiz, baztertu edo gutxietsi. Bitartean Lajak eta Landakandak ahal zuten leku guztietan alegrantzia moduko hori zabaldu dute trikiti doinuz.

Bada hor beste baterako gogoeta gai polita.

(Zurrunbiloa)

Badu gauza eder bat kultur zaletasunak, eta da ekintza infinitu bat dela: disko batek eramaten zaituela poema batera, gero film batera, hark artelanetara, nobela, antzezlanak, berriro kantua, eta horrela orriak bete arte, orriak *k* askorekin, izen-abizenekin, garaien eta korronteen biderkatze efektuarekin.

Baina hurbil du gaitza, agian gero eta hurbilago, han eta hemen agertzen ari dena: itolarria, ezin iritsia. Garaia lortuta dagoela esaten dugu orain, baina ez dakit beste garai batzuetan oso ezberdina izango ote zen. Alde nagusia, Internet, digitalizazioa. Eta harekin dena horren eskura izatearen sentsazio itsu hori, inoiz nondik hasi ez jakitearena, ez baita inoiz amaitzen. Joseba Irazokik bere azken diskoan «mundua buruan kabitzen zaizu, baina burua ez munduan» kantatzen duenean bezala; edo goseak jandako jendarteaz ari denean Idurre Eskisabel bere estreinako poema liburuan.

Rodriguezek ere onartu zuen elkarrizketan Interneten dena eskuragarri izatearen zera horrek sortzen dion larritasuna, horri mugak jartzearen premia. Hala zekarren:

Lorez lore joan edo gauza bakar batean sakondu, baina ezin gara denetara ibili. Interneten jaiotza bizitzen ari gara oraindik. Nahiz eta urte pilo bat daramagula iruditu, berez ez dira hainbeste, eta ikasten ari gara. Gure burua ez dago prest oraindik eskaintza infinitu honetarako. [...] Nire inguruko jendearengan, underground mundukoa nolabait esateagatik, urduritasuna sumatzen dut azken tendentziak ezin jarraitzeagatik, eta niri bost axola zait hori. [...] Modernoena izan nahiaren sukarrak hartu gaitu, eta etengabe berritasunari adi egotea tranpa bat iruditzen zait.

Berriz: «Modernoena izan nahiaren sukarrak hartu gaitu, eta etengabe berritasunari adi egotea tranpa bat iruditzen zait». Ez da askatzailea?

Hortik doa *Hil zara* diskoa, horren aurka egitera. Entzundaldi batzuk eskaini behar zaizkion lan bat dela dio egileak; hala, musika entzuteko egungo modu orokorrari kontra egin

nahi dion lana dela. Eta ez da huskeria. Dena ezagutu nahia baino ia beharra den horren aurrean, susmoa dut hel gaitezkeela gero eta urrunago, baina kostata sakonago. Heldulekuak diluitzen dira zurrunbiloan. Eta beldur naiz gozatzea, galdetzea, murgil egitea... bilatzen genuen tokian ez dugun gero eta sarriago egunean egotea baizik bilatzen.

Itzuli ugari eman daitezke kultura bizitzeko gaurko bideetan, baina buruaren jauziek sarean nahikotxo mugitu den bideo batera ekarri naute, Rodriguezek beste hitz hauekin:

Zuberotar abestiez eta kantatzeko usadioaz erabat liluratua nago estetikoki. Iazko udan Zuberoako festibal batean izan naiz eta han kontzertuen ondoren 500 pertsona elkar zitezkeen txosna batean kantatzera. Izugarria zen, musika ekipoa ez zuten piztu ere egin. Nortasun liriko oso berezia dute, mediterraneanrek dutenaren antzekoa, adibide bat ematearren. [...] Posible da oso mitifikatuta izatea gure artean, baina hala ere ikaragarria da han jazotzen dena.

BBAX Behi Bideko Andere Xuriak taldearen bideoaz ari nintzen. Berori osatzen dute Mirentxu Agerrek, Pantxix Bidartek eta Marie Hirigoienek. Iaz disko bat argitaratu zuten, bigarrena, *Distortsioen munduan* izenekoa, eta bertan parte hartu zutenak ageri dira aipatu bideoan; denera, hamar lagun oholtzan: Sebastien Desgrans, Jurgi Ekiza, Aline Etxeberri, Allande Etxeberri, Karine Etxeberri, Paxkal Irigoien eta Paxkal Indo. 2018ko azarokoa da grabaketa, taldearen azken emanaldikoa, Armendaritzen. *Aresti hun* da kantua, eta hor ez da modernoena izan nahiaren sukarrik, kantuauren lilura besterik; bulkada experimental bat bere xumean, eta memoria ariketa bat. Rodriguezen beste honi josi dakiokena:

Usadioa apurtu baino, usadio horretatik sortzen jarraitzea. Herrimina etengabe sortzen ari garela diot. Une hau ere, herrimin bilakatuko da urte batzuen ondoren. Nostalgia ez dut gustuko, memoria bai, ordea.

Hori dena eta hori baino ez.

Zertarako hau dena. Zertarako artea

Badago azpimarratzeko moduko beste esaldi bat aurrez aipatutako Irazokiren kantuan: «Errealitatea ez da ez erreala eta ez inportantea, horregatik existitzen da artea».

Esperimentazioaz hasi garenez gero, modernoena izan nahiaz eta, Donostiako Tabakalera sartuko dut eztabaidan. Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroaren kultura zuzendariak, Ane Rodriguezek, kargua utziko duelako iragarpenarekin bukatu genuen iazko urtea. Albistearen hotzean, Haizea Barcenillak *Berria*-n idatzitako 'Zokora doan kultura' artikulua piztu zidan niri alarma. Tabakaleraren lana «kulturraren eta artearen adierazpen mota gazte, berri, esperimental, apur bat arriskatua eta saiakerakoari garatzeko esparrua ematea» dela zioen Barcenillak, eta programazio ildo horren alde aritu dela Rodriguez azken sei urteetan. Arte kritikariak ohartarazten zuena zera da: kulturaren behar hori ikusten ez duen «klase politiko baten injerentziak eta presioak» eragina izan duela kargua uzteko erabakian. Ohartarazpenaren ondotik, aurreikuspena:

Hau izango da 2019ko Donostia: Koldo Mitxelena Kulturgune-ko erakusketa aretoa desagertuko da. Izan ere, bi arduradunak jubilatu ostean ez zen erreleborik kontratatu, eta noraezean doa espazioa, azken kolpearen zain. Tabakaleran, bitartekarien prekarizazioak eta iragarritako industria kulturalen sarrerak ekonomia mota jakin batera darama: sistema onartu eta beren kabuz lehiakorrak direnek iraungo dute bizirik. Arteak eta kultura esperimentalak apurka gutxitu eta zokoratuko dira; ziurrenik, espezialistentzako izkina bat mantenduko da, publiko orokorrarekin gehiegi nahasten ez dena, jendea molestatu gabe *gure gauzez* hitz egiten jarraitu dezagun. Guztia pintxoaren eta pisuen prezioa gora doan bitartean.

Eta, egia esan, ez hemen bakarrik, baina hemen gertatzen ari da. 🍷



Soziolinguistika

Jaime Altuna

Baloiairen eta hitzaren gintzak

Baloiairen (e)ta hitzaren gintzak
nahiz (e)ta ez diren berberak,
lehiaren gaindi sustatuz gero
balioak (e)ta manerak,
bultzatuz gero neska-mutilen
kirolerako aukerak,
futbol izar (e)ta zaleen ahotan
lekurik badu euskarak
zuen zangoek (e)ta gure oinek
hortxe egingo dute bat.

Bertso hori kantatu zuen duela urtebete Maialen Lujanbiok Anoeta futbol-zelaian. Real Sociedad klubak Bertsolari Txapelketa Nagusia irabazteagatik omenaldi txiki bat eskaini nahi izan zion partida hasi aurreko ohorezko sakea eginez. Harmailak lepo beteta zeuden Real eta Bartzelona gizonezko taldeek Donostian jokatu behar zuten partidarako, eta ondorengo egunetan irudi bat nabarmendu zuten hedabideek: Leo Messi futbolaria Lujanbioren bertsoa entzuten. Futbolaren izarrak eta bertsoaren txapeldunak bat egin zuten unea EITBko euskarazko web-atarian 2018an gehien ikusi zen bideoa izan zen. Baloiairen eta hitzaren egintzek bat egi-teak interesa piztu zuen.

Historikoa

Urtebete beranduago, hitzak eta baloiak berriro egin dute bat Maite Goñik, egunez egun eta hitzez hitz, osatzen duen

Gaurko hitza hiztegian. Urtarrilaren 30ean *historiko* hitza aukeratu zuen beste euskal futbol-zelai batean gertatutakoa aintzat hartuz. Egun horretan San Mamesen ia 50.000 zale bildu ziren Athletic eta Atletico Madril taldeen arteko partida ikusteko, eta, oraingoan, hedabideek azpimarratu zuten Europan emakumezkoen futbol partida batek inoiz izan duen ikusle kopuru handiena izan zela. Ez hori bakarrik, denboraldi honetan San Mamesen elkartu den zale kopuru handiena suertatu zen; bi astean behin zelai horretan jokatzeko duten gizonzkoen partidetan ez baita lortu horrenbeste jende batzea.

Historikoa eta errekorra izan ziren, beraz, egun horretan eta ondorengoetan, handik eta hemendik zabaldu ziren hitzak, gutxitan bezala, emakumezkoen kirol jarduera bat notizia garrantzitsua bihurtuz. Handik baino hemendik hedatu zirela esan beharko genuke, Euskal Herritik kanpo Bilboko marka nahiko modu anekdotikoan agertu baitzen. Kirol hedabideek nahiago izan zuten egun berean Bartzelonan jokatu zuten Messiren taldearen partida eta garaipena nabarmentzea, *oso historikoa* izan ez arren.

Realaren emakumeek ere egun eta ordu berean jokatu zuten partida eta, Athleticek ez bezala, irabazi egin zuten. Euskarazko prentsan, hasiera batean, hala jaso zuten berria:

Ilusioz betetzeko moduko partida jokatu du Realak eta 4-0 irabazi dio Rayo Vallecanori. Neurketa ona egin du. Jaun eta jabe izan da zelaian, emaitzak islatzen duen bezala. Garaipenari esker, Espainiako Kopako finalerdietarako sailkatu da, historian bigarren bez.

Egunez egun eta hitzez hitz izendatzeko moduak aldatzen ari bagara ere, oraindik orain, kosta egiten zaigu jaun izan gabe kirolean markak egin daitezkeela jabetzeaz.

Quirolas

Historian atzera eramanez ninduen Asier Gabikagojeazkoak abenduan idatzi zuen txio batek:

Gonzalo de Berzeo errioxarraren testu honetan lekukotzen da lehenengoz 'kirol(a)':

Un rico arçidiano bien de tierras estranas
Caeçió esta festa entre essas compannas:
Vío grandes quirolas, proçessiones tamannas
Que nin udio nin vio otras desta calannas.

XIII. mendean idazle errioxarrak idatzitako *Milagros de Nuestra Señora* idazlanean agertzen da 'quirolas' hitza, dibertsio edo jostaketa adieraziz. Itxuraz, Erdi Aroan kirola hitzak lotura handiagoa zuen jolasarekin jokoarekin baino. Egun, ohikoa izaten da kirolak bi alderdi dituela zehaztea: batetik, alderdi ludikoa, aisialdian dibertitzea; eta alderdi agonistikoa, bestetik, norberaren buruarekiko edo besteekiko lehia. Baina argi dago Gonzalo de Berceok deskribatzen zuenak eta egungo kirolak zerikusi gutxi dutela.

XXI. mendean kirolak duen gizarte izaera eta garrantzia nabarmena da, eta, horregatik, gizarte zientzietan maiz 'gizarte egitate oso' gisa deskribatu izan da, gizarte baten instituzio guztiak mugimenduan jartzen dituelako. Baina kirola ez da erraz deskriba dezakegun zerbait, eta konplexutasun horrek arazoak sortzen dizkigu. Ramon Llopis soziologoak elkarrizketa batean zioen bezala, «kirola entitate konplexu eta plurala da. Baina, hala ere, hitz bakar batekin definitzen dugu mundu oso bat; hori da arazoa».

Izaera korapilatsu horri beste hau gehitzen zaio: gehiegitan gizarte gatazka eta eztabaidetatik at dagoen egitate gisa erakutsi nahi izaten da. Ikuspegi horren arabera, kirolak gizarte-balio 'ideal' batzuk ordezkatuko lituzke edo ordezkatu beharko lituzke. Xabier Medina eta Ricardo Sánchez antropologoen ustez, ordea, kirola gizartean dominanteak diren balioetan murgilduta dago eta haien arabera eraikitzen da, baina, era berean, balio sozial horiek birformulatzen ditu, berriak sortuz eta gizarteari emanez. Carmen Diez-ek Euskal Herrian egin izan dituen ikerketa etnografikoetan, argi erakutsi izan digu gure gizartean kirola gizarte arrakasta eta protagonismoarekin lotuta dagoela:

Kirolak, eta batez ere futbolak, ordezkaten duen mundu horrek erreferentzia eta legitimazio gisa jarduten du gizarte-egituran oso garrantzitsua den sozializazio espazio zehatz bat mantentzeko.

Gonzalo de Berceoren garaiko *quirola* baino konplexuagoa, polisemikoagoa eta poliedrikoagoa bihurtu zaigu kirola. Gizartearen instituzio guztiak mugimenduan jartzen dituenek, gizarte arrakasta eta protagonismoaren balioekin lotuta da goenez eta sozializazio-erreferentzia nagusia denez, kirolak erakunde publikoen, komunitatearen eta gizarte mugimenduen ekimen arloa izan beharko luke. Arautu eta planifikatu egiten den arloa da, eta hizkuntzaren ikuspegitik ere antolatua beharreko arloa izan beharko luke, hala ez egiteak bestelako hizkuntza planifikazioak ekartzen baititu.

D eredukoa izan behar ez duen kirola

Hain zuzen ere, azken urteetan euskara eta kirola lotuz hainbat ekimen aktibatu dira, eta martxoan horietako baten emaitzak aurkeztuko dira. *'D ereduko kirola' ikerketa ekintza proiektua* 2016 eta 2018 artean elkarrekin lanean garatzen aritu dira hainbat arlotako erakunde eta teknikariak: Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Soziolinguistika Klusterra, Topagunea, Urtxintxa eta Euskal Herriko Unibertsitatea.

Kirol jarduerak euskaraz izan daitezten behar diren baldintzak, dauden zailtasunak eta klubek eman ditzaketan pausoak aztertzearekin batera, gazteen kirolean protagonista direnen ahotsak ezagutzeko saiakera egin da. Zenbait klubetako errealitatera hurbilduz (Zaramaga Pilota Elkartea, Aixerrota Boleibol Taldea, Padura Saskibalo Kluba, Zarautz Eskubalo Taldea eta Real Sociedad Futbol Taldea), jokalaria eta entrenatzaile gazteek kirolean dituzten hizkuntza-jokaerak eta bizipenak jaso dira, aurrera begirako proposamenak egin ahal izateko.

Jone Miren Hernandezek zuzendu duen ikerketak ondorio interesgarriak utzi ditu. Ezin dira hemen denak aipatu, baina kirolak arreta berezia eta berezitua merezi duela berretsi

da, gazteen bizitzan eta bizimoduan aparteko tokia duelako. Hizkuntzari dagokionez, eskolaren eta eskolatik kanpoko eremua den esparru honen artean kontrastea ematen dela ikusi da: eskolaren araua euskaraz egitea da; aisialdian, aldiz, toki gutxi batzuetan izan ezik, gaztelania da norma. Kirola erdibidean dagoen «hirugarren esparru» moduan irudikatu daitekeela ondorioztatu da: eskolaren formaltasunaren eta kaleko informaltasunaren arteko zubiak eta loturak egin ditzakeen espazioa. Bide horri begira, klubena gazteen-tzako hizkuntza giro babestu bat sortzea dela jaso du ikerketak, hizkuntzarekiko mezu argiak emanaz eta euskararen garapenerako baldintzak jarritz.

Gazteek kirolean bilatzen duten esperientzia aberatsa eta gozagarria babestu behar da, hori baita eremu honek eurekiko duen erakargarritasuna, baina, aldi berean, klubarekiko eta bere taldeekiko duten konpromisoa argi eduki behar dute. Bere hizkuntza jokaera bete beharreko araua baino, bete beharreko konpromiso horren parte izango litzateke.

Baina, beharbada ondorio esanguratsuenaren lehen urtean agertu zen, proiektuaren beraren izena *-D ereduko kirola-* zalantzan jarritz: kirolak ez du zertan eskolak egindakoa errepikatu, eremu bakoitzaren izaera eta helburuak oso ezberdinak direlako. Aurrera begira, ezinbestekoa izango da definitzea eta zehaztea eskola eta kirolaren arteko jarraikortasuna zertan datzan, baina, beti ere argi edukita eskolan egiten ari dena ezin dela bere horretan kirolean txertatu.

Kirolak bere tokia eta bere logika ditu, bere ezaugarriak eta bere protagonistak. Hizkuntza gune berezi horretan txertatzen da eta bertako egoera, dinamika, helburu edota errealitate egokitzen da. Egokitu bakarrik ez, errealitate hori sortzen edota eraikitzen ere laguntzen du, eta kirol esparrua aukera edo mehatxua izan daiteke euskararentzat. Datozen urteetan, beraz, biziberritze prozesuaren gakoetako bat izango da hizkuntza helburuak kirol eremura moldatzea eta, alderantziz ere, hemengo kirol esparruak gizarteak adostutako hizkuntza beharrei egokitzea.

Jarraitzeaz harro

Duela 100 urte, *D ereduko kirola* egitasmoan parte hartu duten klub gehienak ez ziren jai. XX. mende hasieran kirol modernoaren izaera zehazten ari zen, eta egun ezagutzen dugun kirol moldea jaioberria zen Euskal Herrian. Euskararen sustapenean ere orduan hasi ziren sortzen erakunde eta hedabideak. Batzuk gaur arte iritsi dira eta urtarril hasieran etxe askotan opari ederra jaso genuen: 100 urte bete dituen *Argia* aldizkariaren ale berezia.

Duela 50 urte ere, *D ereduko kirola* egitasmoan parte hartu duten klub gehienak ez ziren existitzen. Euskararen biziberritze prozesua aktibatzen ari zen eta, kirola oso hedatua bazegoen ere, arlo horretan ere egun pentsaezinak diren debekuak existitzen ziren. 1967ko apirilean Kathrine Switzer ofizialki maratoni bat egin zuen lehen emakumea bilakatu zen Bostonen, lasterketaren zuzendaria hura kanporatzen saiatu zen arren.

Udazken honetan Switzer Donostian izan da, eta *Argia*-ren 100 orriko zenbaki berezian kirolaren eta hitzaren egintzek bat egin zuten Amaia Lekunberri kazetariak korrikalari estatubatuarrari egindako elkarrizketan. Adinaren muga ere apurtzen ari ote den galdetuta, honela erantzun zuen Switzerrek:

Askoz harroago nago 50 urteren ostean korrika egiten jarraitzeaz, lehenengo lasterketa hartaz baino.

Sasoian segitu beharko dugu zangoek, oinek, hitzek eta ekintzek bat egiteko, garai batekoaz gain, oraingo egintzez ere harro egoten jarraitzeko. 🐾



Kristalezko sabai pertsonala

«Zein da zure tesia?», galdetu zidaten duela gutxi. Erantzunak erraza behar luke, horretan daramatzat behintzat bi urte, buru-belarri. Espero izatekoa ere bazen. Baina erantzun ezinik aurkitu nintzen, urduri, zehaztasun akademikorik eskatzen ez zidan lagunarteko giroan izanda ere. Sorpresaz hartu ninduen galderari erantzun, erantzun nion; esanez ez nintzela ausartzen ezer ziurra esatera, informazio gehiegizkoak gaina hartuta nengoela, edo halakoren bat. Egia erdizka. Etxeko segurtasunean esatera ausartzen naizen tesia jendaurrean ezin agertzea ohikoegia egiten hasi zait-eta. Tesia edo ahotsa izatea, berdintsu zait. Haatik, amildegi baten aurrean bakarrik sentitzearen pareko ezinegon hau ez da arazo pertsonal bat. Edo bai, bada, atzean korapilo politikoa duten arazo pertsonalak baitira gureak.

Datu gutxi batzuk

Dirudienez, filosofiaren esparrua bereziki da esanguratsua. Arantza Etxeberriak artikulu bat argitaratu zuen iaz *Dilemata* aldizkarian. Filosofian zergatik dauden emakume gutxiago galdetzen zuen, baita datu batzuk eman ere. Euskal Herriko Unibertsitateko 2017-2018 ikasturtean, filosofian: (1) Gradu-ko lehen urtean emakumezkoak ikasleen %50 izatera heltzear bazeuden ere, azken urteko ikasleen artean nabarmen egin zuen behera ehunekoak. (2) Master ikasleen %25-30 ziren emakumezkoak. (3) Doktoregaien %35. (4) Emakumeak ez ziren heltzen irakasle titularren %10 izatera. (5) Ez zegoen

emakume katedradun bakar bat ere. (Esan gabe doa aurten-go egoera bera dela.)

2017an eta 2018an argitaratu ziren beste bi artikulua, *Research Policy* eta *Nature Biotechnology* aldizkarietan, dokto-
retzako ikasleen osasun mentalaz (ez soilik filosofiakoak). (1) Gainerako biztanleriak baino sei aldiz aukera gehiago du doktoregai batek depresioa edo antsietatea sufritzeko. (2) Emakumeak diren doktoregaiek gizonak baino %27 aldiz aukera gehiago dute arazo psikiatrikoak sufritzeko.

Ez dut topatu datu horien eta hizkuntzaren arteko ikerke-
tarik. Interesgarria litzateke euskarak jokatzeko duen papera
ere aztertzea, ezta?

Zer dela eta?

Etxeberririk bi hipotesi jasotzen ditu, emakumeak filosofian gutxiengo izatea azaldu dezaketenak. Batetik, estereotipo kon-
tuak. Sozialki negatiboa den estereotipo bat barneratzen da,
norbere burua zerbait egiteko ezgai ikustea dakarrena. Berezi-
ki da eraginkorra estereotipoa esplizitua bada, generoarena, ka-
su. Bestalde, aspektu inkontzienteak daude, estigmatizatutako
talde baten parte diren pertsonekin jokatzeko dugun moduan
eragiten dutenak. Hau da, haiek nola hautematen eta ebalua-
tzen ditugun eta nolakoa den haiekin dugun interakzioa.

Auzia ez da, noski, filosofiara mugatzen. Haizea Barce-
nillak jokamolde horien berri eman zuen *Berrria* egunkarian
(‘Matxismoa akademian’, 2018-11-13):

Adibidez, «gazte» deitzen didatenean, niri bakarrik, taldean nire
adineko hainbat gizon egon arren.

Adibidez, kanpoan ikasi eta pare bat erdaratan aritzen den gi-
zon bati buruz eredu gisa aritzen direnean nire aurrean, jakintzat
emanez ez naizela sekula nire sukaldetik atera eta lanpostua eus-
karaz jakite soilagatik lortu dudala.

Adibidez, bi hitzaldiren artean ondoan eseria dudana adin eta kate-
goria bereko gizonari galdera bat egin, eta hark bizkarra eman eta
nire galdera beste aldean duen katedradunari erantzuten dionean.

[...]

Akademiara ere ez. 2015, Bertsolaritzako Emakumeen III. Topaketak. 16-65 urte bitarteko 39 emakume. Galdera: «Zer behar dugu bertsotan eroso aritzeko?». Bakarka erantzun zuten. «Konfiantza», gehiengoaren erantzuna. Emakundek 2016an egin zuen ikerketak (*Emakume bertsolariak. Ahazturatik diskurtso propiora*) ondorio bertsuak atera zituen: emakumeak plaza hartzeko alde emozionala giltzarri da, «autoestimua eta segurtasuna lantzea erabakigarria da [...] segurtasun falta izaten baita emakumeen bertsolaritza aktiboa uzteko arrazoietako bat», dio web orriak.

Baina nondik nora filosofiaren adierazgarritasuna? Bikaintasun edo jeinutasun idealek ezaugarritzea izan daiteke arrazoietako bat, Etxeberriaren esanetan. Diziplina zaila dela, gainera, pertsona(litate) berezi batzuentzako gordea. Filosofoaren irudia, bestalde, gizonezkoa da. Gizonezkoak dira irakasleak, testuen egileak, filosofiaren historia protagonizatzen dutenak, hizlariak... Are gehiago, portaera maskulintzat ditugunekin identifikatzen da: agresibitatea eta konfrontazioetarako joera eztabaidetan, adibidez. Idealak berdina dira gizon zein emakume izan, desberdina dena horien eragina da. Barcenillari «gazte» deitzen diote, bere adineko gizonezkoei ez bezala. Izan ere, akademiako gizon gazteak «aurreratuak» eta «jenioak» direla onartzen du sarkasmo-kutsuz, «euren adinerako lortu duten guztia» azpimarratzeko soilik gazte; «aurrez aurrekoetan, izena dute». Emakumea, beti adin txiki-ko objektu bailitzan, genero eta hizkuntza profilak betetzeko tresna baino ez da halakoetan.

Etxeberriak beste bi galdera egiten ditu: filosofiak emakumeek ez dituzten ezaugarriak eskatzen ote ditu? Emakumeek desberdin filosofatzen ote dute? Galderak erantzun beharrik gabe, pentsatzekoa da filosofia egiteko modua bera aldatu behar izatea. Emakumeen presentzia handitzea eta emakumeek egindako ekarpenak balioan jartzea erantzun ohikoak dira kasu horietan. Filosofia feministaren ekarpenak azpimarratu ditu Etxeberriak, filosofiaren oinarriak berak aldatzen ari direnak. Filosofiatik harago doa, ordea. Barcenillak hala

dio, egunkari bereko beste artikulua batean ('Zergatik egiten dute uko emakumeek?', 2018-11-29):

Feministok estroktoretan sartzeak ez luke inoiz estroktura horietan errotuta dagoen paternalismo, maskulinismo eta hierarkiaren logika bermatu beharko; hori kolokan jarri behar du. Gu baginen lan hori egiteko prest, baina horrek instituzioaren alde-tik moldaketak egiteko prestasuna ere eskatzen du.

Autozentsurari bertso

Kristalezko sabaia emakumeek beraien bizi laborean gora egiteko duten mugaketari deitzen zaio. Hain zuzen, beraien ibilbide laborean muga jartzen duen sabaia da, gaintzeko zaila eta aurrera jarraitzen galarazten diena. Gainera, ikusezina da, ez da-goelako araurik honen inguruan, ez mugaketa hau zehazten duenik ezta mugaketa hau debekatzen duenik ere (Wikipediatik).

Hemen esandakoak gutxi izanda ere, «ikusezina» den sabaia materializatzen lagunduko zutelakoan nago. Ez da ezer berria.

Kristalezko sabaia pertsonala ere badela esanez hasi naiz, baina. Bizi laborean ez ezik, filosofian ez ezik, kalean ere hitza hartzea –nor izatea– eskatzen duen uneoro martxan jartzen den mugaketa. Besteek eraikia bezainbat norberak sustatua. Autozentsura asmakuntza handia da.

Biktimismo-paternalismo olatuetan ez itozteko, ordea, zer egin? Gai horien eta beste hainbaten inguruan dabil emakume bertsolarien kolektiboa, bertsoan egiteari utzi gabe ('Beroholtzan jarritako oina', *Berria*, 2018-08-11). Hau da, autoestimua eta konfiantza lantzen-pentsatzen-indartzen ari diren une berean ateratzen dira plazara. Egingo al dugu bertsoan?

Nahiago irrealista bagara

Utopia for Realists (Errealistentzako utopia) liburua 2016ko bestseller bat da. Ideia zoro batzuek mundua alda dezaketela

aldarrikatzen du idazleak, 2017ko TED Talks-en *top ten*-ean egon zen Rutger Bregmanek, alegia. Hiru dira liburuko proposamenak: oinarrizko errenta unibertsala, hamabost orduko lan-astea eta mugarik gabeko mundu bat.

(Karikatura kutsua du hain hitz gutxitan egindako liburu iruzkinak. Letra txikia irakurtzera gonbidatuta zaudete.)

Bat: dirua musu truk. Oinarrizko errenta unibertsalaren aldeko datuz eta adibidez beteta daude liburuaren lehen orriak. Inongo baldintzarik gabe ematen den diruak onura argiak dakartza: pobreziak behera egiten du, osasuna hobetzen da (alkohol eta tabako kontsumoa eta ospitalizazio kopurua jaisten dira), ez du alferkeriara bultzatzen: ikasten edota enpresa txikiak martxan jartzen ematen dira orduak... Eta, batez ere, alternatibak baino merkeagoa da. Paternalismo kutsua alboratzen da, gainera, pobreaki zer behar duen erabaki eta hura ematearen orde, diruarekin batera erabakimena ematen zaiolako. «Eta horrelaxe hasten da progresua». Liburuaren izenburuak eszeptizismoz ireki behar nuela ohartarazi bainau, ondorengo aipuak kontuz irakurtzera gonbidatu nau:

Gizarteak ezin du funtzionatu desberdintasun maila bat gabe. Pizgarriak beharrezkoak dira oraindik lanerako, lehiatzeko eta nabarmentzeko, eta dirua oso pizgarri eraginkorra da. Inork ez du bizi nahi zapatariek medikuek adina irabazten duten gizarte batean. Hobeto esan, halako leku batean bizi den inork ez luke gaixotzeko arriskua hartu nahiko.

Bi: hamabost orduko lan-astea. 1930ean John M. Keynes-ek Madrilan eman zuen konferentzia batean iragarpen harrigarri bat egin zuen nonbait: 2030ean historiako erronkarik handienari erantzun beharko zaio, denbora libreari. Oraingoan ere, lanaldi murriztuaren aldeko datuak eta aurpegi ezagunak (H. Ford eta W. K. Kellogg, tartean). Oraingoan ere, abantaila eztabaidaezin bat: *produktiboagoak* gara lan-ordu gutxiago sartzen ditugunean. Lan gutxiago egiten dugunean zoriontsuago ere bagara, lan istripuak gutxitzen dira, CO₂ isurpenak erdira jaisten, langabezia murrizten... Biztanleriaren zahartzeari erantzuteko, berriz, 80 urtera arte egin dezakegu lan.

Eta hiru: «Herrialde bakoitzak onartzen duen etorkin kopurua %3 handituko balu, munduak 305.000 milioi dolar gehiago izango lituzke gastatzeko». Migrazioaren kontrako falaziak deseraikitzerakoan, zilegi lirartekeen neurrien artean aipatzen ditu Bregmanek etorkinei estatuaren laguntzak ukatzea, edo urte kopuru baten ondoren ematea soilik, edo zergetan diru kopuru jakin bat ordaindutakoan; bertako hizkuntza eta kultura ikasteko eska dakieke; botoa emateko eskubidea ukatu; lanik topatu ezean, aberriratu. «Bidegabea dela? Beharbada bai. Baina ez al da askoz bidegabeagoa sarretera erabat ukatzea?».

Euri asko egin du Marxek eta Engelsek sozialista utopikoei kritika egin zietenetik. Fourier, Owen eta Saint-Simonen sozialismoa irrealia zen nonbait. Kritika hartatik utopia errealista honetara, ordea, idealismoari ez ezik idealei ere uko egin diegula dirudi. Ez da debalde ateratzen: utopia aldarrikatu, denak berdin jarrai dezan. 🍷

Bai, Jauna, bai: Fisika Euskaraz.

Askotan esan izandu duto gizon ikastun argiyak, nola pistiyak izan litezken gure erakuslariyak; erlia da bat aipatzen dana ol zer lan arrigarriyak jartzon dituzten guro aurrian onek ots txingurriyak! txepetak berriz erakusten du ainbeste nola aik biyak.

P.M. Otaño

NUKLEARRA?
EZ ESKATZIK ASKO

zugaz/
art

Jakin • eus
herria kultura hizkuntza

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

